



## Bedaio auzoa

# Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesua

JUSTIFIKAZIO-TXOSTENAREN  
HASIERAKO DOKUMENTUA

2025eko abendua

**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)



# Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	<b>3.</b>
<b>1. Aurrekariak</b> .....	<b>6.</b>
1.1. Marko juridikoa .....	6.
1.2. Aurrekari historikoak .....	11.
1.3. Artubi Kultur Elkartea eta auzo-antolaketa .....	16.
<b>2. Egitasmoak ekar litzakeen onurak</b> .....	<b>20.</b>
2.1. Tolosako Udalarekiko harremanak eta administrazioarekiko harremanak oro har .....	20.
2.2. Amezketarekiko harremanak eta Bedaio Amezketara eransteak ekar litzakeen onurak .....	24.
2.3. Bedaioren beharrak eta hobetu litezkeen zerbitzu eta egoerak .....	27.
<b>3. Kokapena eta lurralde-mugaketa</b> .....	<b>38.</b>
3.1. Kokapena eta azalera .....	38.
3.2. Lurralde mugaketa .....	39.
<b>4. Biztanleria eta karakterizazio soziodemografikoa</b> .....	<b>55.</b>
4.1. Biztanleriaren bilakaera .....	55.
4.2. Biztanleria-dentsitatea .....	57.
4.3. Biztanleria adinaren era jaioterriaren arabera .....	58.
4.4. Euskararen ezagutza eta erabilera .....	60.
4.5. Ikasketa-maila .....	62.
4.6. Jarduerarekiko harremana .....	63.
4.7. Enplegua .....	65.
4.8. Etxebizitza .....	68.
<b>5. Bedaioko herri-ondasunak</b> .....	<b>71.</b>
<b>6. Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa</b> .....	<b>84.</b>
6.1. Bedaioko udal zerbitzuen identifikazioa eta balorazio ekonomikoa .....	86.
6.2. Bedaio auzoari dagozkion Tolosako Udalaren aurrekontuetako sarrerak .....	115.
6.3. Bedaio Amezketako auzo izatearen eragina Tolosako Udalaren aurrekontuetan .....	117.
6.4. Bedaioko ohiko udal zerbitzuen balorazio ekonomikoa Amezketako Udalaren ikuspegitik (A blokea) .....	118.
6.5. Aldian behingo herri lan eta inbertsioen balorazio ekonomikoa, (B blokea), Amezketako Udalaren ikuspegitik .....	129.
6.6. Amezketako Udalaren sarrera-aurrekontuen azterketa .....	134.
6.7. Amezketako Udalaren bideragarritasun ekonomikoa .....	136.
6.8. Bideragarritasun ekonomikorako azterketaren ondorioak .....	137.
<b>7. Ondorio orokorrak</b> .....	<b>138.</b>

## Sarrera

Bedaio, Tolosa udalerriri dagokion 12,1 Km<sup>2</sup>-ko azalera duen landa-auzo bat da. Tolosako udalerriri dagokion arren ez dauka inongo muga geografikorik Tolosa hiriarekin. Bedaioren posta kodea, Altzok, Amezketak, Ugartek eta Ergoienak dutena da: 20268. Tolosarena, berriz, 20400.

Tolosa erdigunetik 17 km-ra, Aralar Natur Parkearen sarreretako batean kokatua dago Bedaioko auzogunea (eliza, frontoia, auzo elkarte, taberna bat eta baserri batzuek osatua). Gainontzeko baserriak inguruko lurretan sakabanatuta daude.



Iturria: <https://www.gipuzkoanatura.eus/>

Landa-eremuan kokatuta dagoen auzoa da Bedaio, Tolosako hirigunearekin zerikusirik ez duena. Ez hirigintza aldetik, ezta arlo ekonomikoan, sozialean eta eguneroko bizi-ohiturei dagokienean ere. Alde horretatik, bere mugakide diren herriekin antzekotasun handiagoa duela esan daiteke: Amezketak, Alegia, Alzo, Lizartza, Gaztelu, eta Azkarate (Araitz bailara, Nafarroa).

Bedaioaren kokapen geografiko bereziak, Tolosako hirigunetik urrun eta landa-eremuan egoteak, udal-zerbitzuen antolaketari eta azpiegituren hedapenari lotutako baldintzatzaile objektiboak sortzen ditu —herri-bideen mantentze-beharrak dira horren adibide—. Testuinguru horretan ulertu behar da bedaiotarrek adierazten duten administrazioarekiko urruntasun-sentsazioa, auzoaren landa-izaerari eta kokapenari lotua, nahiz eta Tolosako Udalak landa-auzoei zuzendutako jarduerak eta ekimenak garatu izan dituen.

Auzotarren beharrei erantzuteko eta auzoaren garapenean eragiteko antolamendu eta auzolan egiturak bideratu izan dituzte bedaiotarrek. Zailtasunei aurre egiteko gutxieneko administrazio propio bat izateko beharra ere sentitu izan dute. Baina Gipuzkoako udal-barrutiak erregulatzen dituen martxoaren 17ko 2/2003ko Foru Arauak, eta Foru Arau horretan zenbait aldaketa onesten dituen abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak ere, Bedaioren kasuan, ez dute ahalbidetzen udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko erakunde deszentralizatua izateko aukerarik.

Bestalde, udal barrutiak aldatzeari dagokionez, 2025eko abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren zenbait aldaketa onesten baditu ere, aldaketa horiek ez dute udal barrutiak udalerriz aldatzeko bete beharreko baldintzetan (zehazki 2/2003 Foru Arauaren 5. Artikuluan jasoak), eta ezta udal barrutien aldaketarako prozeduraren espedienteak jaso beharreko edukietan ere (2/2003 Foru Arauaren 11. artikulua 1 eta 2 apartatuetan jaso). Udal barrutiak aldatzeko prozedurari dagokionez, 5/2025 Foru Arauak onesten duen aldaketa bakarra da, interesatutako udaletako udalbatzarrek hartu beharreko erabakiak, aurrerantzean, legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu beharko direla; 2003ko Foru Arauak ezartzen zuena, aldiz, ondorengoa zen: "erabakia Udalbatzarrak hartu beharko du, egitatezko kopuruaren bi herenen eta, beti ere, legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin".

Beraz, 2/2003ko Foru Arauari jarraiki eta Foru Arau horretan zenbait aldaketa onesten dituen 5/2025 Foru Arauari jarriki ere, udal barrutiaren aldaketa egiteko aukera du Bedaiok, hau da, Bedaio Tolosatik bereiztu eta, kasu honetan, Amezketara eransteko aukera. Bedaiotarren ikuspuntutik, aukera hoberena eta "naturalena" da hori, auzoak dituen beharrei modu egokiagoan erantzuteko, udal zerbitzuen antolaketa hobetzeko, eta etorkizunera begira, garapen iraunkor eta integral baterako bide-lerroak eraikitzeko.

Horretarako, Gipuzkoan udal barrutiak aldatzeko prozedura erregulatzen duen martxoaren 17ko 2/2003 Foru arauaren xedearekin bat eginez, udal barruti aldaketarako prozedura abiatzeko nahia dute bedaiotarrek, ondorengo helburuekin bat eginez:

- (a) Udal eskumeneko zerbitzugintza hobetzea.
- (b) Prozesuok eragiten dieten udalen kudeaketa ahalmena handitzea.
- (c) Udal barrutiak errealitate fisikoetara, demografikoetara eta hirigintzakoetara egokitzea, udalerrriaren mapa arrazoizko lurralde antolaketa batean oinarritu eta taxu dadin.

2/2003 Foru Arauak, II Atalburuan eta 5.artikuluaren, udal barrutiak nola alda daitezkeen azaltzen du:

*“1. Udal barrutiak honela alda daitezke:*

- (a) Mugakide diren bi udalerrik edo gehiagok bateginez eta udalerrri berria eratuz.*
  - (b) Udalerrri bat edo gehiago beste bati edo batzuei atxikiz, udalerrri berririk sortu gabe.*
  - (c) Udalerrri bateko edo batzuetako lurralde zati bat hartatik edo haietatik bereiziz eta beste bati edo batzuei erantsiz.*
  - (d) Udalerrri bateko edo batzuetako lurralde zati bat hartatik edo haietatik bereiziz eta udalerrri berria eratuz”*
- (d) atalarekin bat egingo luke txosten honetan landu den kasuak: Bedaio auzoa Tolosa udalerritik bereiztu eta Amezketa udalerrira eranstea, hain zuzen ere.

Horrela, 2/2003 Foru Arauak horretarako zehazten duen prozedurari jarraituz, udal barrutiak aldatzeko espedienteak jaso behar dituen edukien azterketa egin da txosten honetan. Bedaio Tolosatik bereiztu eta Amezketara eransteko prozesua justifikatzen duen hasierako dokumentua da. Hurrengo urratsak dira, batetik, txosten honetako edukiak bedaiotarrekin, Amezketako Udalarekin eta Tolosako Udalarekin, partekatu, kontrastatu eta osatzea; eta bestetik, txosten hau oinarri izanda, Amezketako Udalak eta Tolosako Udalak, Bedaio auzoaren udalerrri aldaketarako prozedura abian jartzea, bi udalen ekimenez, 2/2003ko martxoaren 17ko Foru Arauaren 8. artikulua eta 5/2025 Foru Arauak artikulua horretarako onetsitako aldaketak kontuan hartuta. Behin bi udalen ekimenez prozesua hasten denean, Foru Arauan ezarritako prozedura jarraituko da, eta espedienterako behar den dokumentazio osagarria ere gehituko da, 2/2003 Foru Arauko 11. Artikuluaren eskatzen diren agiriekin.



# 1. Aurrekariak

## 1.1. Marko juridikoa

Bedaio auzoa Tolosatik bereiztu eta Amezketara eranstea ahalbidetzen duen eta prozedura hori arautzen duen marko juridikoa aztertzerakoan, nagusiki, autonomia mailako legeria—2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena— eta foru-araubidea—Gipuzkoako Udal Barrutiak Erregulatzeko Martxoaren 17ko 2/2003 Foru Araua eta abenduaren 22ko 5/2025 Foru Araua (2/2003koaren zenbait aldaketa onesten dituena) — hartu behar ditugu kontuan.

Udalerri bateko edo batzuetako lurralde zati bat hartatik edo haietatik bereiziz eta beste bati edo batzuei erantsiz udal barrutiak alda daitezkeela jasotzen du Gipuzkoako Udal Barrutiak Erregulatzeko Martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, I Idazpuruaren II.atalburuan. III.atalburuan, horretarako jarraitu beharreko prozedura azaltzen da. IV.ean, udal barrutiak aldatzeko espedienteak jaso beharreko edukia.

## I IDAZPURUA UDAL BARRUTIAK

### I ATALBURUA XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. **Udal barrutiak zer diren.**

Udal barrutia udalak bere eskumenean duen lurraldea da. Lurraldea etenik gabea izango da baina, salbuespenez, foru arau hau indarrean sartzen denean dauden barrendegiak edo etendurazko egoerak mantendu ahal izango dira.

#### 2. artikulua. **Xedea.**

1. Gipuzkoan udalerrriak sortzeko eta ezabatzeko, edota udal barrutiak aldatzeko, foru arau honetan eta hau garatzeko erregelamenduzko xedapenetan agindutakoa bete beharko da.

2. Aurreko zenbakian aipatu diren prozesuetan izan beharreko xedeak honako hauek dira:

- a) Udal eskumeneko zerbitzugintza hobetzea.
- b) Prozesuok eragiten dieten udalen kudeaketa ahalmena handitzea.
- c) Udal barrutiak errealitate fisikoetara, demografikoetara eta hirigintzakoetara egokitzea, udalerrriaren mapa arrazoizko lurralde antolaketa batean oinarritu eta taxu dadin.

3. Udalerrriak sortzeko eta ezerezteko prozesuen nahiz udal barrutiak aldatzekoen ondorioz ezin izango da inoiz hirialde etengabe bat udal barruti batean baino gehiagotan zatitu.

### II ATALBURUA UDAL BARRUTIEN ALDAKETA

#### 5. artikulua. **Kasu eta beharkizun orokorrak.**

1. Udal barrutiak honela alda daitezke:

- a) Mugakide diren bi udalerrik edo gehiagok bateginez eta udalerrri berria eratuz.
- b) Udalerrri bat edo gehiago beste bati edo batzuei atxikiz, udalerrri berririk sortu gabe.
- c) Udalerrri bateko edo batzuetako lurralde zati bat hartatik edo haietatik bereiziz eta beste bati edo batzuei erantsiz.
- d) Udalerrri bateko edo batzuetako lurralde zati bat hartatik edo haietatik bereiziz eta udalerrri berria eratuz.

2. Aurreko letretan aipatutako aldaketa horiek egin ahal izateko, udal barrutiek mugakide izan behar dute. Letra horietan aipatzen diren egoeretako bat baino gehiago bildu daitezke espediente bakarrera.

3. Ezin izango da udalerrriaren zati bat hartatik bereizi, udalerrriari aurreko artikuluan aipatutako ezaugarriak kentzen bazaizkio.

4. Udal barrutiaren zati bat hartatik bereizteak lurraldea banatzea ekarriko du berarekin, bai eta ondasunak, eskubideak eta egintzak eta, orobat, zorrak eta betebeharrak ere.

5. Udal barrutiak aldatzeak ezin izango du inoiz ekarri herrialde historikoaren mugen aldaketa.

## **6. artikulua. Udallerriak bategiteko, atxikitze eta bereizteko zergatiak**

1. Udallerriek bategin ahal izango dute:

- a) Bereizita daudela Legeak derrigortzen dituen gutxienezko zerbitzuak eskaintzeko adina baliabide ekonomikorik ez dutenean.
- b) Hirigintzako garapenaren ondorioz beren hiriguneak nahasten direnean.
- c) Ekonomia edo administrazioari arrazoi nabariengatik interesgarria edo komenigarria denean, herritarrei emandako zerbitzuen kudeaketa eta edukia hobetzearen.

2. Udallerri bat edo batzuk beste bati edo batzuei atxiki ahal izateko eta udallerri baten lurralde zati bat hartatik bereizi eta beste bati edo batzuei erantsi ahal izateko, aurreko zenbakiko b) eta c) letretan aipatutako zergatiak gertatu beharko dira.

### III ATALBURUA UDAL BARRUTIAK ALDATZEKO PROZEDURA

## **8. artikulua. Ekimena eta tramitatze era**

5. artikuluan jasotako kasuetan aipatzen diren udal barrutien aldaketak egiteko ondorengo prozedura segitu beharko da beti:

1. Ekimena izan dezakete:

- a) Auzotarrek, udalerriko edo udalerrietako, edota, bereizketa denean, horren edo horien zatiko azkenengo hautesle erroldan daudenen gehiengo absolutuak sinatutako eskariak. Auzotarren sinadurak udal idazkariaren aurrean formalizatuko dira, edo bestela notarioaren protokoloaz.

Kasu honetan, auzotarrek batzorde sustatzailea eratuko dute eta batzorde honek sartuko ditu espedientean 11. artikuluan aipatzen diren agiri guztiak.

Behin batzordeak dokumentazio guztia osatu duenean dagokien udalei aurkeztuko zaie eta, halakorik bada, espedientean dauden adostasunik ezak zehazteko elkarrizketak jarri ahal izango dira martxan. Negoziazio prozesu hori irekitzen bada, 9. artikulua 1 zenbakian aipatzen den epea etenik geratuko da, baina gehienez bost hilabeterako.

Udalek aipatu den dokumentazio hori emateari uko egiten badiote, osatutako espedientea, dagoen egoeran dagoela, Foru Aldundiari aurkeztuko zaio, prozedura ofizios bultzatu ahal izan dezan.

- b) Interesatutako udalak edo udalek. Erabakia Udal Batzarrak hartu beharko du, betiere, legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin (abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak ezarritako aldaketa kontuan hartuta).
- c) Foru Aldundiak edo Batzar Nagusiek, Gipuzkoaren interes orokorrak hala eskatzen duenean.

2. Ekimena martxan jarri ondoren, segitu beharreko prozeduran honako urrats hauek emango dira:

- a) Aldaketak ukitutako udalaren edo udalen hasierako erabakia, betiere, legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartua. Erabaki hori ez da beharrezkoa izango ekimena udalena beraiena bada (abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak ezarritako aldaketa kontuan hartuta).
- b) Formalizatutako espedientea jendaurrean erakutsiko da gutxienez hogeita hamar egunez, udaletxeko iragarki taulan iragarkiak jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta, gutxienez, udalerrri horretan edo horietan zabalkunderik handienekoak diren egunkarietako batean argitaratuz.

- c) Jendaurreko erakustaldia amaitu ondoren, aldaketak ukitutako udalak edo udalek ostera erabakia hartu beharko du/dute, hasierako erabakirako eskatutako gehiengo berarekin. Erabaki horretan, barruti aldaketa bidezkoa den ala ez eta aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu/dituzte.
- d) Aurreko erabakia hartutakoan, Udalak edo Udalek aldaketak ukitutako hautesleen iritzi ez-loteslea jasoko dute kontsulta zuzenaren edo beste motaren batekoaren bitartez. Bereizketa kasuetan, bereizi asmo den edo diren zatiko edo zatietako hautesleen iritzia jasoko da.
- e) Foru Arau honetako 11. artikuluan zerrendatutako agiriez osatutako espedientea izapidetzen amaitutakoan, espediente hori Foru Aldundiari bidaliko zaio nahiz eta Udalaren erabakia aldekoa ez izan; Aldundiak, oinarrizko legeriak eskatutako izapideak betetakoan, honela jokatuko du: Espedientea udalaren edo auzotarren ekimenez hasia izan bada, eta espedientea Foru Aldundiak edo Batzar Nagusiek hasi badute bere tramitazioan horrek ukitutako udalik aurka azaldu gabe, Foru Aldundiak behin-betikoz ebatziko du espedientea Foru Dekretuz.

Espedientea Aldundiak edo Batzar Nagusiek hasia bada eta bere tramitazioan zehar horrek ukitutako udalerriren batek edo batzuk aurkako jarrera azaltzen badu edo badute, Foru Aldundiak dagokion Erabaki proposamena egin eta Batzar Nagusietara bidaliko du, horiek behin-betiko ebazpena emango dutelarik Jarduerarako Arautegiko 112.a) artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.

#### **9. artikulua. Espedientea ofizioz bultzatzea.**

1. Udal barrutiaren aldaketa espedientea auzotar interesatuen gehiengoaren, Foru Aldundiaren edo Batzar Nagusien ekimenez hasten denean, Udalak 8. artikulua 2.a) letran aipatzen den erabakia lau hilabeteko epean hartzen ez badu, espedientea hasitzat joko da epe hori amaitzean. Dena dela, 11. Artikuluan aipatzen diren zehaztasunei buruzko agiriak bidali egin beharko dizkio udalak Foru Aldundiari, honek prozedura ofizioz bultzatu ahal izan dezan.

2. Orobat, jendaurreko erakustaldia amaitu eta handik lau hilabeteko epean udalak espreski hartu ez badu aldaketa bidezkoa den ala ez ebazteko erabakia, 8. artikulua 2.c) letran aipatutakoa, aldeko erabakia dela ulertuko da.

#### **10. artikulua. Prozedura burutzea.**

1. Udal barrutiak aldatzeko foru dekretuak edo Batzar Nagusien erabakiak honako hauek zehaztuko ditu bidezkoa bada:

- a) Udallerriaren izena.
- b) Herriburua kokatuko den hirigunea.
- c) Aldaketak ukitutako udal barrutien muga berriak.
- d) Ondasunak, eskubideak, egintzak, herri erabilerak eta ustiaketak eta, orobat, obligazioak, zorrak eta betebeharrak banatzeko proposamenaren onarpena.
- e) Dokumentazio administratiboari, historikoari eta gaur egungoari, buruzko Xedapenen onarpena eta enplegatu laboralen eta funtzionarioen araudia.
- f) Aldaketak eragiten dien erakunde eta organoen arteko laguntza eta lankidetzari buruzko erabakiak.

2. Gipuzkoako udal barrutiren bat aldatzeko espedientea ebazten duen Aldundiaren Foru Dekretua edo Batzar Nagusien Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara emango da eta Gipuzkoako Udal Erakundearen Foru Erroldan jasoko da, Euskadiko Autonomi Elkarteko eta Estatuko administrazioetara ere idatzizko komunikazioa bidaliko delarik, ondorio egokiak izan ditzan.

3. Foru Dekretuaren edo Batzar Nagusien erabakiaren edukia gauzatzeko erantzukizuna Foru Aldundiarena izango da, aldaketak ukitutako udalen laguntza eta lankidetzak eskatu ahal izatea eragotzi gabe.

IV ATALBURUA  
UDAL BARRUTIAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEN EDUKIA

**11. artikulua. Espedientearen agiriak.**

1. Udal barrutiak aldatzeko espedienteek ondoren aipatzen diren agiriak izango dituzte, bidezkotzat jotzen diren bestelako guztiak izatea eragotzi gabe:

- a) Aldatzekoak diren udal barrutien planoak, udalerrien muga berriak marrazturik dituenak.
- b) Proposatzen den aldaketa egin ahal izateko behar diren zergatiak zuritzen dituen txostena.
- c) Ez udalerrri berriak ez jatorrizkoak hartzekodunen aurrean kaudimen ekonomikoa galtzen ez dutela, udal eskumenak betetzeko behar dituzten baliabideak falta ez dituztela eta aurrez ematen ziren zerbitzuen kalitatea hobetuko dela egiaztatzen duen txostena.

2. Era berean, proposatzen diren zuzenbide eta ekonomi baldintzak sartuko dira espedientearen, besteak beste ondorengo hauek, bidezkoak direnean:

- a) Udalerrri bakoitzak hitzartutako zorrak edo kredituak likidatzeko era.
- b) Aldaketak ukitutako udalerriei komeni zaien bestelako edozein, bakoitzaren obligazioak, eskubideak eta interesak direla eta.

3. Horietaz gainera, lurraldearen zati bat bereizi eta udalerrri independentea eratzeko denean, espedienteak honako agiri hauek izango ditu:

- a) Udalerrri berriak, zerbitzuak betetzeko behar den zenbatekoa kendu ondoren, dirusarrera arruntan aurrekontuko %15 inbertsioetara xeda dezakeela eta jatorrizko udalerrriak eragiketa arruntetan aurrezki maila berari eutsi diezaikeela egiaztatzen duen txostena.
- b) Ondasunak, ustiaketak, herri erabilerak, kredituak eta bestelako edozein eskubide, eta, halaber, zorrak eta obligazioak jatorrizko udalaren edo udalen eta udal berriaren artean banatzeko proiektua eta ebatzi ezin izandako edozein auzi geroago ebatzeko onartzen diren oinarriak. Proiektu horretan jasoko da, baita ere, bereizten den biztanle guneari zerbitzuak ematen ari ziren enplegatu laboralen eta funtzionarioen zerrenda eta bereizketak ukitzen dituen kontratuak.
- c) Halakorik bada, bereizketak ukitutako udalerrriaren edo udalerrien auzo ondasun, eskubide eta ustiaketen ziurtagiria, bai eta bereizten den/diren lurralde zatiko/zatietako auzotarrei bakarrik dagokienena ere, udal idazkariak egina.
- d) Udalerrri berriari emateko asmoa dagoen izenaren proposamena eta, kasua bada, herriburua kokatu behar den biztanle gunea.
- e) Udalerrrietako eta bereizi nahi den lurralde zatiko hautesle, biztanle eta auzotarren kopuruaren ziurtagiria, udal idazkariak egina.
- f) Bereiztekoa den lurralde zatiko auzotar egoiliarren biztanle-errola.
- g) Onartua dagoen hirigintzako orotariko plangintzan bereiztekoa den lurralde zatiari aplikagarria zaion xedapena.
- h) Udaletxeari buruzko txostena eta udal eskumenak egoki garatzeko behar diren langileen plantillari buruzkoa, lanpostuen ebaluaketa, lanpostuak betetzeko era, lotura araudia eta dedikazioa jasotzen dituenak.

**12. artikulua. Zuzenbide eta ekonomi baldintzak.**

Zuzenbide eta ekonomi baldintzak bi aldeetako edozeinek aurkeztu ahal izango ditu eta besteari entzuna izateko aukera emango zaio; adostasunik ez badago Foru Aldundiak ebatziko du. Baldintzak aurkeztuko ez balira edo osorik ez baleude, foru departamentu eskudunak aurkeztuko lituzke; horrelakoetan, entzunak izateko aukera emango litzaieke bi aldeei eta Foru Aldundiak ebatziko lituzke.

## 1.2. Aurrekari historikoak

Erdi Aroan Berastegiko jauntxoek jabegoko lurralde feudala izan zen Bedaio. Juan Martinez de Berastegui jauntxoak 1544ko ekainaren 8an Tolosako jurisdikziopean txertatu zuen, maila juridikoan; maila ekonomikoan, ordea, Berastegiko jauntxoek babespekoa izaten jarraitu zuen. Berastegiko jauntxoak bere ordenantzak ezarrita zituen Bedaion eta, horien arabera, Berastegiko oinetxekoa, aldian aldikoa, erabateko jaun eta jabetzat onartzera behartuta zeuden bedaiotarrak: Bedaioko lur guztiak –ehiza, mendiak, urak, hamarrenak eta lur-emariak–, bereak zituela onartzera eta, ondorioz, halakotzat hartzera. 1735eko ordenantza batzuetan honako hau jasotzen da:

*“Ordenanzas que han de observar los caseros del barrio de Bedayo, perteneciente al poseedor del palacio y torre fuerte de Berastegui, como patrón divíselo y dueño absoluto que es del expresado barrio, sin reconocimiento de otro algún dueño en toda la jurisdicción, por pertenecerle todas sus tierras, caza, montes, aguas, primicias”.*

Praktikan, beraz, Berastegiko jaurgoarek menpe jarraitu zuen Bedaiok, beste 300 urtez. Berastegiko jauntxoek artean, Berastegin ez baizik eta Gasteizen bizi izan zirenak ere badira. Don José Antonio Ribas y Berastegi izan zen lehena, 1677an zendua. Haren ahaide izango zen Diego Manuel Esquivel jauntxoa; 1732an jasotzen da haren berri, lehen aldiz. Baina, harrezkero, Esquiveltarrak izan ziren Berastegiko jauntxoak XIX. mendera arte, “Legardako markes” tituluarekin, 1770etik aurrera.

XIX. mendearen bigarren 1860an, erdian, Don Antonio María de Esquivel y Saenz de Navarrete zendu zen, Legardako markesa eta Berastegiko jaurgoko jauntxoaren oinordekoa. Lege-aldaketak baliatuz, haren alargunak maiorazkoa bere semeen artean zatitzeko erabakia hartu zuen.

Ondasunak bi zatitan banatu zituzten. Bedaio erdia eta Berastegiko ondasun guztiak, Julian Esquivel y Ruiz de Pazuengos Legardako markesaren eskuetara pasa ziren. Berastegikoak Ozpindegiko José Antonio Arregi indianoak erosi zizkion. Bedaio erdia, berriz, Legardako markesaren ondorengoek Fermin Calbetón y Blanchón jaunari saldu zioten, eta, honek, 1900ean Segurako Braulio José Alustiza y Aranbururi.

Bedaioaren beste erdia beste anaiari, Bernardori, egokitu zitzaion. Honen ondorengoek José Elosegí Zabalarri, txapel-fabrika eraiki zuen Antonio Elosegí Lizargarateren semearekin saldu zioten. Honek Normandiatik ekarritako 5.000 sagarrondo landatu zituen Bedaion eta 7.000 zaku sagar biltzera iritsi omen zen.



*Laiariak Bedaion. (1918). Tolosako Udal Artxiboa (TUA)*



*Jose Elosegi Zabala seme alabekin, laguntzaile eta maizterrekin Bedaion. (1900-1920). Tolosako Udal Artxiboa (TUA)*

XX.mendean zehar, Elozegi eta Alustiza familiak izan ziren Bedaioko lur eta baserrien jabe, eta bedaiotarrak maizter, haien arbasoek ereindako lurrak eta bitoki izan zituzten baserriak erosten hasi ziren arte.

Hortaz, latifundio adibide argia izan da Bedaio denbora luzean. Zegozkien baserriak eta lurrak zaintzea eta lantzea familia bakoitzaren betebeharra zen, eta uztaren zati handi bat jauntxoari ematera behartuta zeuden bitartean, auzotarrek hainbat zerga ordaindu behar izaten zituzten. Kasu askotan, baserriak oso egoera txarrean omen zeuden, jauntxoek ez zituztelako mantenu- eta berrikuntza-lanak egiten.

Nekazaritza eta abeltzaintza izan dira Bedaioko ekonomiaren oinarri, bertan ez baita jarduera industrialik egon. Sarobeberri eta Zugastibarrena dira Bedaioko baserri zaharrenetarikoak. Azken hori antzinako baserrien arkitektura tradizionalaren erakusgarri da, egurrezko habez josiriko sareekin eta oholez eginiko fatxadekin. Gurbillaundia Gipuzkoako baserririk handiena da. Baina tamainaz gain, erdian duen patioa du ezaugarri. Kartzela izan zela diote batzuek eta, Karlistaldien garaian, kuartela ere izan zela.



*Iturria: Eduardo Recalde.*

Izan ere, 1970eko hamarkadara arte Bedaiora errepiderik iritsi ez den arren, Zarate mendi-lepoa pasabide estrategikoa izan da historian zehar, bere kokapenagatik, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan. Garrantzi handiko galtzada izan da kostaldearen eta barrualdearen arteko hartu-eman komertzialetan. Baita kontrabando- eta lapurreta-eremu ere. Hori horrela, mikeleteen zaintza-postua egon zen Zaraten. Mikeleteak zergak biltzeaz eta produktuen sarrera eta kontrabandoa kontrolatzeaz arduratzen ziren, Gipuzkoaren muga guztietan.



*Iturria: Txomin Rezola Clemente.*

Errota bat ere badu Bedaiok, XVI.mendeko dokumentuetan jada aipatzen dena. Gaur egun eraberritua eta funtzionamenduan dago. Abaetxea da eraberritua dagoen beste eraikin historiko bat. Nekazalturismo izan da, eta jatetxe bezala ere funtzionatu izan du.



*Iturria: bedaio.com*

Bedaioatar ospetsuen artean daude José Ramón de Sagastume doktorea (Bedaio, 1891), Gipuzkoako Gurutze Gorriaren sortzailea, edo José Ramón Zubillaga idazlea (Bedaio, 1881), gaztetan Argentinara emigratu behar izan zuena eta “Lardasketa” eta “Euskaldunak Argentinan” liburuen egile izan zena.

Aipamen berezia merezi du Juan Antonio Sarasolak (1887-1983) ere. Zumizketa baserrian jaioa, II. Errepublikaren garaian auzo-alkate izan zen. Txistularia izan zen eta Gipuzkoako eta Nafarroako herrietako jaiak alaitzen ibili zen txistu eta danbolin doinuez. Bedaioko Ingurutxo mantentzeko lan handia egin zuen Sarasolak.

Bedaioako ondare materiagabe esanguratsua da Ingurutxo. Nafarroatik sartutako dantza-mota da, Gipuzkoan Bedaion eta Ugarten besterik dantzaten ez dena. Bedaiotarrek modu berezian egiten dute, hala ere. Gaur egun jaietan bakarrik dantzaten da, baina garai batean maiz egiten zen. Igande arratsaldetan erromeria izaten zen, Juan Antonio Sarasolak txistua jotzen zuen eta plazan elkartzen zirenek dantza egiten zuten.



*Iturria: bedaio.com*



*Iturria: Iñaki Zugasti – Dantzan CC-BY-SA*

### 1.3. Artubi Kultur Elkarte eta auzo-antolaketa

Gaur egun, Bedaioko bizilagunen egitura antolatu bakarria Artubi Kultur Elkarte da, auzo elkarte izaera duena eta elkarte gastronomikoa ere gestionatzen duena. Auzoko gazteen ekimenez sortu zen 1994 urtean. Auzoko kaskoan kokatua dago haren egoitza, garai bateko eskoletan. Bazkideen artean badaude auzoko bizilagunak eta baita gaur egun auzoan bizi ez badira ere, auzoarekin lotura eta harremanak dituzten pertsonak ere.

Auzoko talde antolatu bakarria izanik, eta duen dinamika kontuan hartuta, elkargune garrantzitsua da Bedaion. Elkarteko eta auzoko jarduerak antolatzeaz gain (herri batzarrak, ekintza kulturalak, jaiak...), udalarekiko harremanak bideratzen dituen auzo taldea da, hori herritar konkretuen bitartez egikaritzen bada ere.

Artubi elkartearen dinamikaren adibide, ondorengo jarduera soziokulturalak eta kirol-ekitaldiak burutu dira 2024 urtean. Ekintza horiek ekarpen handia egiten dute bai Bedion bertan, bedaiotarren eguneroko bizitzari begira, baina baita kanpo-proiektzioari dagokionez ere, Bedaio bere eremutik kanpora ezagutzera emateko.






*Bedaiko emakumeen "juntaioa"*



*Bedaiko emakumeen "juntaioa"*



*Harri jaien bertsolarien saioa*



**Bedaiko jaien testuinguruan ospatu den "Larrañeta Harria" txapelketan Mikel "Urra" Lopetegi nagusitu da 125 kiloko harri baldarrarekin 20**



*Bedaiko mendi martxa*



*Jaietan ume eta gaztetxoek arteko pilota partida txapelketa Bedaion*



*Postuak Bedaioko azokan*



*Bedaioko azokako erakustoki txokoa*

**"ZAHARTZE AKTIBOA - BIZITZA AKTIBOA- AUZO AKTIBOA" proiektua**



*Isabel Rekalde psikologoarekin  
"Nola kudeatu gure emozioak" tailerra*



*Bedaioko lorategiaren mantenu lanak*



*Mikel Zubeldia Tolosaldeko suhiltzaile buruarekin tailerra*



*Osasun Heziketa: Tolosako mediku eta erizainen eskutik*

Ekintza horiek guztira 18.162€ko aurrekontua izan zuten 2024an. Gastu horiek finantzatzeko, Tolosako Udalaren urteroko 9.000€ko dirulaguntza baliatzen da. Baina autofinantziazio-maila ere handia da: ekintzetan biltzen den diruaren bidez eta herritarren ekarpenen bidez.

Frontoia ezinbesteko espazioa izan ohi da jarduera horien guztien antolakuntzan. Nolanahi ere, aintzat hartu behar da auzoko jaiek, mendi-martxak, azokak edo bestelako jarduerak ere behar espezifikoak sortzen dituztela. Horiei erantzun eta zerbitzu egoki bat emateko, etxola bat erosi zuten bedaiotarrek, 7.000€ko gastuarekin.

Funtzionamenduari dagokionez, bazkide guztiak pasatzen dira juntatik 12 pertsonako txandetan. Junta urtero berritzen denez, momentu horretan dauden pertsonen profilaren arabera gauza batzuek edo beste batzuek arduratzen dira gehiago. Auzoko arazoez, azpiegiturez edo zerbitzu-eskaerez, pertsona konkretu batzuk arduratzen dira, baina beti auzo elkartearen babespean.

Beraz, Artubi elkarteak ez da kultur edo kirol jarduerak antolatzera mugatzen. Auzo-garapenarekin lotuta azken urteotan bideratu izan dituen zenbait gai dira horren adibide: kaskoko uren azpiegituraren berritze-lanetarako komunikazio eta koordinazioaren sarea osatzeko ekimena, “zahartze aktiboa” proiektua, Bedaioko webgunearen ([www.bedaio.com](http://www.bedaio.com)) diseinua eta mantenua edo Gabon eguneko koplakantuan diru-bilketa Bedaioren garapenerako eragina izango duen ekintzetara zuzentzea —2024an bildutako dirua Herri Lurren erosketa abiatzera bideratu zen—.



## 2. Egitasmoak ekar litzakeen onurak

### 2.1. Tolosako Udalarekiko harremanak eta administrazioarekiko harremanak oro har

Bedaioaren eta Tolosako Udalaren arteko harremanei dagokionez, iraganean Auzo Alkate figura bat izan zuen Bedaiok, Tolosako Udalarekiko ordezkari-lanak egiten zituena. 1970eko hamarkada inguruan galdu omen zen figura hori. Gaur egun, Artubi Kultur Elkartearen eta zenbait auzotar konkreturen artean banatzen dute lan hori. Tolosako Udalaren eta Artubi elkartearen arteko hitzarmen bat ere badago indarrean.

Tolosako Udalaren aldetik, lehenik eta behin, Ingurumena eta Landa-auzoak azpisailaren eta Hirigintza eta Obrak zerbitzuaren bitartez harreman zuzena izan da Bedaiorekin, momentuko gai eta beharren arabera, betiere.

Ingurumena eta landa-auzoak azpisailaren eskutik eta Hiritik At kooperatibaren bitartez, Bedaioko ekipamendu-, hirigintza- eta gobernantza-ereduari buruzko azterketa bat egin zen 2021 urtean, bedaiotarren eskaera bati erantzunez.

Hirigintza sailari dagokionez, Bedaioko etxebizitza-garapenari buruzko azterketa bat egin zen, Hirigintza Plan Orokorra berritzeko prozesuaren baitan. Abadetxearen eta bere inguruaren egokitzelanak ere egin ziren, ondoko aparkalekuak barne.

Gobernantza eta Komunitatea sailetik, halaber, Bedaioaren garapen sozio-komunitariorako proiektuak eta ekintzak bideratu izan dira. Horrez gain, harremanetarako kanala zabalik egon da beti.


2025ean AuzoEkin udal estrategia martxan jarri du Tolosako Udalak, parte hartzearen bidez Tolosako auzoak modu integralago eta orekatuagoan garatzeko. Parte-hartzea izango da horretarako bitarteko nagusia, baina herritarrei kanal zuzenagoa ahalbidetzeaz gain, erabakimen handiagoa ere emango zaie.

Herria zortzi zonatan banatu eta horietako bakoitzerako ekintza plan bat garatzea da udalaren helburua; aurrera begira ere, zona bakoitzak aurrekontu bat izango du, eta auzotarrek lehenetsi ahal izango dute zertara bideratu dirua. Abiapuntu modura, hiru zonatan gauzatu da proiektua 2025ean: landa-eremuko auzoetan (Bedaio, horien artean), Bidebieta-Izaskun inguruan eta San Esteban auzoan.

Eremuz eremu egoera eta beharrak aztertzea izan da proiektuaren lehen urratsa. Gero, lau urteko begirada izango duen plan bana sortuko da zona bakoitzeko, egin beharreko interbentzioak jasoko dituen. AuzoEkin egitasmoaren baitan, San Esteban auzoa, Bidebieta-Iparragirre-Izaskun ingurua eta landa-auzoak hobetzeko 194 proposamen egin dituzte herritarrek. Landa-auzoei dagokienez, 61 izan dira jasotako proposamenak. Bedaioz gain, Auzotxikia, Olarrain, Aldaba, Aldabatxiki, Urkizu eta Uganerako proposamenak jaso dira. Horietan, hornidurarekin —energia, ura, saneamendua, interneteko konexioa— lotutako gaiak dira nagusi, baita bideei eta mantentze-lanei eragiten dietenak ere.

Eredu aldaketa tarteko, trantsizio urtea izan da 2025a. Hori dela eta, ez da parte-hartze bidezko aurrekontu prozesurik zabaldu, bere horretan. Horren ordez, AuzoEkin estrategiaren eremuen logikara gerturazten den proposamena landu du udalak, auzoek egindako eskariak eta aurreko urteko prozesuko proposamenak aintzat hartuta.

Hori horrela, AuzoEkin estrategian integratu dira parte-hartze bidezko aurrekontu-prozesuak, baita Auzoen Mahaiak ere. AuzoEkin-en hastapen hauetan izan ez diren bost eremuetan, urtero burutu beharreko bi bilera horiek 2025 urteari dagokion beheko egutegian jaso dira.



Iturria: Tolosako Udala

Beraz, azken urteotan, parte-hartze bidezko aurrekontu-prozesuak burutu ditu Tolosako Udalak. 2024ko aurrekontuetan, adibidez, Bedaioko frontoia egokitzeko lanak (20.000€ko balioarekin) bozketa fasera iritsi ziren, nahiz eta azkenean ez zen proiektua bozkatuena izan. Ondorioz, proiektua ez zen aurrera atera.

Horiez gain, bestelako gai zehatzen inguruko parte-hartze prozesuak ere egin dira Tolosan. Batzuetan zein besteetan, Bedaioko auzotarrek parte hartzeko aukera izan dute eta haien ekarpenak aintzat hartu dira. Ondorengo da azken urteotako parte-hartze prozesuen zerrenda osoa:

**Zumarditxikiaren berrantolaketa**

2021/06/01 - 2021/12/31

**Terrazak, eta beste elementuak jartzea arautzen duen Ordenantza berrikustea**

2022/03/28 - 2022/04/11

**Aurrekontu partehartzaileak 2023**

2022/09/26 - 2022/11/10

**Etorri Tolosako Liburutegi berria diseinatzeraz!**

2022/03/21 - 2023/01/09

**Aurrekontu partehartzaileak 2024**

2023/09/18 - 2023/11/28

**San Esteban hirigintza garapenerako parte hartze prozesua**

2022/12/19 - 2024/03/20

**Ospitalea eraiki ahal izateko Hirigintza Antolatzeko Plan Orokorren aldaketa puntuala**

2023/11/08 - 2024/03/22

**Irisgarritasun Plana berrikustea**

2024/01/10 - 2024/06/19

**AROA: hizkuntza-politikako plan estrategiko berria**

2024/01/01 - 2024/12/31

**Tolosako Herritarren Batzarra**

2021/12/01 - 2027/12/31

Tolosako Udalarekiko harremanaz harago, azpimarratu beharra dago, administrazioak oro har Bedaiorekiko izan duen trataerari begira, kontuan hartu izan dela Tolosa hirigunearekiko distantzia, auzoaren landa-izaera eta mugakide dituen herriekiko harremana. Horren adibide da oinarrizko zerbitzuen kudeaketa:

- › Bedaioko haurren eskolaratzea ez da bere udalerrira, Tolosara bideratzen, Amezketeta eta Alegiara baizik.
- › Bedaiotarren oinarrizko osasun publikorako zerbitzua ez da bere udalerrira, Tolosara zuzentzen, Alegiara baizik.
- › Tolosako gainerako auzoek ez bezala, Bedaiok eskaripeko taxi zerbitzua dauka Amezketako Ugarte auzoraino, ez Tolosaraino.

## 2.2. Amezketarekiko harremanak eta Bedaio Amezketara eransteak ekar litzakeen onurak

Mugakidetasun geografikoaz harago doa Bedaioren eta Amezketaren arteko harremana:

- Amezketako baserri batzuetara joateko beharrezkoa da Bedaiora doan GI-3711 errepidea erabiltzea Bedaioko eremuetan barrena.
- Amezketara ere landa-eremuko herri bat izanik, egunerokotasunean hainbat nekazal-jarduera konpartitzen ditu Bedaiorekin: larreak, animaliak...
- Bedaiotarrak, oro har, harreman sendoagoak dituzte amezketarrekin tolosarrekin baino.
- Bedaioko haur eta gazteen lagunartea eta ondoren jarraituko duen harremana ere Amezketan errotua dago.
- Kultur harremanak ere badira Amezketara eta Bedaioren artean sendotu direnak: Gabonetan bedaiotarrak Amezketako zenbait baserrietara hurbiltzen dira koplak zaharrak kantatzera; eta inauterietan, Amezketako txantxoak dira Bedaioko baserrietara hurbiltzen direnak haien dantzak eskaintzera.

Zerbitzu jakin batzuen erabileran ere gauzatzen da lotura hori. Haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan, hain zuzen ere:

- Haur eskola.
- Haur txokoa (goizetako zaintza-zerbitzua eta familien erabilerarako lokala).
- Eskola, eta harekin batera, eskola kirola (Bedaioko 3 eta 6 haur artean azken ikasturteetan).
- Udaleku irekiak (Bedaioko 3 eta 6 haur artean azken ikasturteetan).
- Udako herri-kirolak (Bedaioko 10-12 haur azken ikasturteetan)
- Gaztelekua (Bedaioko 7 gazte azken ikasturteetan).

Gai horrekin lotuta, Amezketako Zumadi eskolak antolatzen duen “Balio zibiko eta etikoak” proiektuarekin bat egiten dute bedaiotarrek: LH5-LH6 geletako ikasleak Artubi elkartearen izaten dira, Bedaioko helduenekin elkarrekintza sustatzeko —umeak Amezketatik Bedaiora garraiatzeko gastua Tolosako udalak ordaintzen du—.



Bedaio auzoa Amezketara eranstean administrazioa herritarrarengana hurbiltzea eta haren jarduerak eta eraginkortasuna herritarraren beharretara hobeto egokitzea ekar lezake, orokorrean:

- › Administrazioa herritarrarengana gerturatzea: zerbitzuak eta auzotarren eskaerei erantzuteko ardura. Arazoen konponbiderako azkartasuna.
- › Herritarrek zenbait zerbitzu publiko hurbilago jaso ahal izateko aukerak ugartzea.
- › Auzo bizitza eta komunitatearen kohesiorako garrantzitsuak diren oinarritzko zerbitzuak ezartzea, defizitarioak badira, babes publikoekin.
- › Auzoaren beraren herri dinamika eta bizitza soziala suspertzea, ekimen berriak bultzatuz. Herritarren parte-hartzea areagotzea.
- › Gutxieneko baliabide publikoekin hornitzea auzolana, herrigintza jardueraren oinarri izan dena.
- › Baliabideak areagotzea: Udalaren ekarpena eta udalerriz gaindiko erakundearen dirulaguntzak (Foru Aldundia, Europa...), udalerriz txiki eta landa-izaerako eremuak zuzendutako laguntza-lerro espezifikoaren bidez, Bedaiora bideratzeko aukera handituz.

Bedaiok, Tolosaren parte izatearekin lotuta, urtetan izan dituen zenbait muga gainditzeko aukera ere ekar lezake Amezketara eransteak:

- Amezketaren udalerraren parte izanik, Enirio-Aralar mankomunitatearen parte hartzeko aukera izango luke Bedaiok. Izan ere, Bedaioko Aralarren kokatuta egonagatik ere, Bedaioko abeltzainek edo abelburuak dituzten herritarrek ezin dituzte Enirio-Aralar mankomunitatearen larreak erabili, Tolosa ez delako mankomunitatearen parte.

Bedaiok ez du larre komunalik beste herriekin, eta herritarrek aziendak Enirio-Aralar mankomunitatetik kanpo dauden mendietan dituzte, ez dutelako Aralarko mendietan bazkatzeko aukerarik. Egoera hori saiheste aldera, zenbait bedaiotar Amezketan erroldatu izan dira, larre horiek erabili ahal izateko.

- Amezketaren udalerraren parte izanik landa-herri txikiei zuzendutako dirulaguntzak eskuratzeko erraztasun handiagoa izango luke Bedaiok (gaur egun ez du sarbiderik, 20.000 biztanleko udalerraren baten parte delako, nahiz eta Bedaioren errealitatea bat datorren dirulaguntza horiek jasotzen dituzten herri txikiekin).

## 2.3. Bedaioren beharrak eta hobetu litezkeen zerbitzu eta egoerak

Azken urteotan Bedaiok Tolosako Udalarekiko edo beste administrazio publikoekiko (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza...) izan dituen harremanetan landu izan diren gaiak jaso ditugu atal honetan. Garrantzi handikoak dira horietako asko, egunerokoan duten eraginagatik edo urte luzez egindako eskaerak direlako. Beraz, Bedaio Tolosatik bereiztu eta Amezketara erantsiko balitz, lehentasunen artean kokatuko liratekeen gaiak dira, auzoaren garapenari begirako plangintzan.

### Estolderia eta saneamendua

Baserriek, haien ur zikinak bideratzeko, eraiki ziren garaian antolatutako ur-bideak dituzte. Auzoguneko estolderia zaharkituta dago eta ez dago inolako saneamendu-instalaziorik ur zikinenzako.

Baserrietatik etortzen diren hoditeriak puntu jakin batzuetan bildu eta beraien tratamendua aztertzeke asmoa adierazi zuen udalak 2015ean (jartzeko kostua eta mantenua). Aukera desberdinak: fosa septikoa, zizareen bidezko garbiketa-sistema...

Ur-horniketari dagokionez, azken urteotan udalak hainbat depositu bideratu ditu baserri-multzo batzuei zuzenduta.

### Herri-bideak

Baserri asko Bedaion zehar sakabanatuta daude eta hauetara ailegatzeko zenbait herri-bide, egoera txarrean daude eta eraberritu beharrean.

Herri-bideen inbentarioa berrikusi egin zuen udalak 2015ean. Orduan aztertu zituen:

- › Baserri-bideak egokitzea.
- › Eliza eta Bedaio Bitarte elkartzen dituen herri-bide zatian barandadua jartzeko lanak.
- › Gaur egun herri-bideekin lotuta identifikatzen diren beste behar espezifikoko batzuk:
- › Errotatik Bedaiorako bidea: orain dela 12 urte inguru "todouno"rekin berritu zen pista, baina euri-urak bideratzeko arekarik ez zen eraiki. Ondorioz, pista hondatuta dago.
- › Bedaiotik Zaraterako bidea: kotxeak bertatik ibili ahal izateko aukera aztertzeke beharra aipatu izan da. Bedaiotik Zaraterako pista hau partikularra da, beraz, zailtasun hori gainditzeko aukerak aztertu beharko lirateke.
- › Eskoletzeko herri-bide zaharra eta Amezketako baserrietako bidegurutzeko zubiko egurrezko hesia hautsita dago. Erortzeko arriskua dago eta, gainera, sasia eta sastrakekin ez da ikusten barandarik ez dagoela.


## Bedaiora doan errepide nagusiaren (GI-3711) egoera

GI-3711 errepidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa den errepide zati bat da. Errepide gris bezala dago katalogatuta eta Tolosako auzoa den Bedaio eta Amezketa Urkolaparte auzoan zehar barreiatzen den errepide zati bat da.

Amezketa Ugarten du lotura GI-2133 errepide berdearekin. Ugartetik abiatuta, 7 kilometroko luzera du eta Bedaioko kaskoan du amaieran. Bedaio eta Urkolaparte auzoetara iristeko errepide bakarra da. Beraz, garrantzi handikoa auzo horietako biztanleentzat eta bertan kokatuta dauden enpresentzat.

Errepidearen ondorengo erabilerak azpimarra daitezke: haur eta gazteak eskolaratzeko garraioak, helduen oinarrizko beharretarako garraioak, zabor-bilketa, bertako biztanlegoaren garraioak (lanera joateko, bertakoen arteko komunikazioetarako, aisialdirako, medikutara joateko, erosketetarako...), zurgintza enpresaren garraioak (langileak, kamioiak, enpresaren inguruan sortzen diren azpikontrata eta behar desberdinen garraioak...), lehen sektoreko lanetarako mugimenduak (traktore, kamioi, azpikontrata...).

Aipamen berezia merezi dute Belardipeko Erleak enpresaren inguruan ematen diren formakuntzek, Euskal Herriko osotik etorritako bisitariak jasotzen dituztelako. Horrez gain, Aralar Natur Parkean kokatuta dagoen auzoa izanik, hainbat mendizale eta bisitariren garraio bide bakarra da GI-3711 errepidea. Txirrindulari askok ere erabiltzen dute Bedaiorako igoera.



Iturria: bedaiotarrak.

Zenbait behar azpimarragarri:

- › Errota-Eskoletxe-Ilorreta zatia: ibilgailuek eta oinezkoek espazio berbera partekatu behar dute eta oinezkoen segurtasun-falta handia da, bihurgune itxia eta ikusgarritasun gutxikoa baita. Kontuan hartu behar da, gainera, umeen eskola garraiorako bilgunea dela eta, horrez gain, adineko jendea ibiltzen dela bertan. Seinaleak eta errepide bazterra ahalik eta gehien aprobetxatzea eta espazioa partekatzen dela adierazteko margotzea proposatu dute bedaiotarrek. 2022an egindako eskaera batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun zuen zaila dela bideragarritasun ekonomikoaren ikuspuntutik oinezkoentzako ibilbide bananduak propio eraikitzea, aurrez existitu izan direnak egokitzea ez bada. Horrelakoetan, ibilgailuek eta oinezkoek errepidea konpartitzea besterik ez dela geratzen. Horregatik, bizikidetzaz hori segurtasunez egiteko neurri posibleak aztertuko zituztela.
- › Bedaioko erdigunera iritsi baino lehen (azken kilometroaren inguruan), errepide bazterrak “todouno”rekin txukundu eta espazioa dagoen eremuetan aparkalekuak sortzeko beharra aipatu izan da.
- › Abiadura murrizteko elementuak: seinaleak edota badenak. Batez ere, errepide parean etxebizitzak daudenean, zarata eta arriskua murriztu dadin.
- › Errepidearen eraberritze-lanen ondoren, Arrupeko bidegurutze aurreko bihurgunea seinaleztatzea komeni da, errepidea estutzen dela adieraziz. Hesi bat jartzea izan daiteke beste aukera bat, albora erortzeko arriskua saihesteko.

Azpimarratu behar da, eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena izanik, hari dagozkiola errepidearen garbiketa- eta konponketa-lanak. Hala ere, arazoaren eta beharren berri emateko ardura udalarena ere bada.

### Eskaripeko taxi zerbitzua

2014an, Gipuzkoako garraio publikoko autobus zerbitzuaren berrantolaketa bat egin zen eta eskaripeko taxi zerbitzua jarri zen martxan. Aukera aprobetxatu nahirik, eskaripeko taxi zerbitzua eskatu zuen Bedaiok, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin zuen —Tolosako auzo bakarra izan zen zerbitzua eskatzen—. 2015ean, Tolosako Udalak taxi zerbitzua jarri zuen auzoetatik Tolosa erdigunera eta Asuncion Klinikara. Bedaio, Aldundiaren zerbitzua izanik, ez zen egitasmo horretan sartu.

Nolanahi ere, Bedaiok Aldunditik jasotzen duen zerbitzuak baditu bere gabeziak, kontuan hartuta norberaren autoa erabiltzeko gai ez direnei (adinekoak, nagusiki) edo ezintasunengatik autoa erabiltzeko zailtasunak dituztenei zuzendutako zerbitzua dela:

- › Amezketako Ugarte auzoraino iristen da zerbitzu hori. Ugarte auzoa, pasabideko leku bat da, inolako zerbitzurik ez duena. Kontuan hartu behar da gainontzeko herrien eskaripeko taxiek zerbitzu administratibo, komertzial edo sanitarioak dituzten herrietan izan ohi dute helmuga.
- › Amezketatik Tolosara edo Amezketatik Alegiara doan autobus zerbitzuak zeharkatzen du Ugarte auzoa eta zerbitzu hori baliatzen dute bedaiotarrek Ugartetik aurrerako zatia egiteko. Hala ere, eskaripeko ordutegiaren lau aukeretatik batek ez du kointziditzen Amezketatik datorren autobusarekin eta beste baten kasuan, autobusak Alegian bukatzen du ibilbidea.

Hori dela eta, zerbitzua osatzea eskatu izan dute bedaiotarrek, Tolosaraino edo, gutxienez, Alegiaraino, eraman ditzan taxiak.



*Irudia: eskaripeko taxi zerbitzuaren geralekua Ugarten (Amezketan).  
Iturria: bedaiotarrak.*

## Tolosako Udalaren eta Bedaioko Artubi elkartearen arteko hitzarmena

Bedaioko Artubi Elkarte eta Tolosako Udalaren arteko lehen hitzarmena 2007an sinatu zen. Akordio horrek, Bedaio bere osotasunean garatzeko helburuak jasotzen zituen, hainbat arlotakoak: azpiegiturak, zerbitzuak, hirigintza, erakundeen arteko harremanak... Zenbait urtetarako planifikazioa egin eta jarraipen batzorde bat eratuz.

2015ean, Bedaiokoa ere gainerako auzoekin dituen “kultur eta kirol ekintzen” hitzarmenen markora egokitzea baloratu zuen Tolosako Udalak, urteko ekintzei dagokien dirulaguntza jasoz. Bedaiotarrek, aldiz, hori baino zabalagoa izango zen akordio baten beharra ikusten zuten, eta 2007koaren parekoa zen hitzarmena sinatu zuten 2017an. 2022az geroztik, “kultur eta kirol ekintzei” loturiko hitzarmena du Bedaiok, Tolosako gainerako auzoek bezala.

## Enirio-Aralar Mankomunitatea

Aurrez azaldu bezala, Bedaio Aralarren kokatuta egonagatik ere, Bedaioko abeltzainek edo abelburuak dituzten herritarrek ezin dituzte Enirio-Aralar mankomunitatearen larreak erabili, Tolosa ez delako mankomunitatearen parte. Egoera hori saiheste aldera, zenbait bedaiotar Amezketan erroldatu izan dira, larre horiek erabili ahal izateko.

Bedaiok ez du larre komunalik beste herriekin, eta herritarrek aziendak Enirio-Aralar mankomunitatetik kanpo dauden mendietan dituzte, ez dutelako Aralarko mendietan bazkatzeko aukerarik.



*Iturria: bedaio.com*

## Mugikor estaldura eta internet konexioa

Mugikor-estaldura edukitzeko arazo nabarmenak ditu Bedaiok. Wi-fi bidezko internet konexioa badago, 2022az geroztik. Baina azpiegitura gabezia horrek, arazo nabarmenak eragin ditzake, COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioaren testuinguruan gertatu zen bezala: telefono finkoaren matxura baten ondorioz, komunikazio-isolamendua ere bizi izan zuten bedaiotarrek.

Gai honekin lotuta, 2015-2019 legealdian, banda zabaleko internet konexio ultralasterra hedatzeko zenbait laguntza-deialdi egon ziren, baina 2.500 biztanletik beherako udalerrietako diseminatu edo unitate higiezin sakabanatuei zuzenduak, eta Bedaio auzoa kanpoan geratu zen, udalerrri tamainaren baldintza ez zuelako betetzen.

## Landatasun-maila

Landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntza-programa batzuetan ezartzen diren sailkapen-irizpide teknikoaren ondorioz, landa-izaerako udalerriei zuzendutako zenbait deialditatik kanpo geratu izan da Bedaio, udalerrriaren sailkapen orokorrari lotutako balioa duelako esleituta. Sailkapen horren arabera, Bedaiok Tolosari dagokion balioa (G5) du esleituta, inguruko udalerrri batzuenetik ezberdina (Amezketak eta Alegik G3, Lizartzak G2, Orexak G1...). Bedaioren landatasun-maila egokitzeko eskaera egin zen 2016an, baina Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ez zuen onartu.

## Lurzoruaren balioa

2011n, bedaiotarrek Bedaioko zenbait lurzoruren balioaren egokitzapena eskatu zuten, Ondare Higiezinaren Zergaren ondorioetarako, landa-eremuko beste udalerrietan aplikatzen ziren balio-irizpideekin parekatzeko helburuarekin. Eskaera horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzen jo zuen lur-eremu jakin batzuk katalogatu eta balioztatzea, aplikagarriak ziren irizpide teknikoaren arabera; hala ere, gainerako lurzoruei dagokienez, indarrean zeuden sailkapen- eta balorazio-irizpideek bere horretan jarraitu zuten.

### Kotxeentzako aparkalekuak

Bedaion ekitaldiren bat antolatzen denean, edota Abaetxe ostatura joateko ere, bertaratzen diren kanpoko kotxeentzako aparkaleku behar handia dago Bedaion eta eragozpen bat da hori Bedaiora joateko.

### Errepide bazterreko zaborteia

Bedaioko herrigunera iritsi aurretik, errepide-ertzean, erabilera desegokia duen gunea bat dago, hondakinak modu irregularrean bertan uzteko joera baitago. Debeku seinaleak jartzearekin bakarrik ez da arazoa konpondu, eta antzeko egoerak udalerriko beste eremu batzuetan ere gertatzen zirela kontuan hartuta, arazo horri irtenbide bat nola eman aztertzeko beharra adierazi zuen Tolosako Udalak 2015ean, aplikagarriak diren irizpide teknikoaren baitan.

### Autobusaren biraketa

2015ean, eskolako autobusak Eskoletxen buelta emateko joera hartu zuela ikusita, egoera horrek sortzen zuen arriskuaren berri eman zitzaion autobus zerbitzuari. Bedaiotik zetozen autoek ikuspen eskasa zuten puntu horretan. Hori dela eta, alternatiba aproposago bat bilatzea eskatu zitzaion autobus-zerbitzuaren arduradunari.

### PR GI-112 ibilbidearen egoera

PR GI-112 bidearen mantentze eta garbiketa-lanak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak dira. Testuinguru horretan, 2015ean Tolosako Udalak, dagokion administrazioarekin harremanetan jartzeko asmoa adierazi zuen, bidearen egoerari eta beharrezko garbiketa-lanei buruzko informazioa helarazteko

## Frontoia

Frontoia da auzoko ekintza ugariaren gunea, eta badaude harekin lotutako beharrak:

- › Plan orokorraren aldaketa partzialean aztertu zen frontoi sarrera egokitzea, bertan egiten diren ekintzak errazteko (adibidez, txosnaren sarbidea errazteko). Material sarrera edo zenbait gailuren sarrera oztopatu egiten du sarreran dagoen lur muturrak.
- › Atzealdeko argiteriari dagokionez: jai edo ekitaldi berezietan komun publikoak jartzen dira bertan, baina gauez ez dago argirik.
- › Sabaia: itoginak ditu.
- › Komun publikoak eraikitzeko aukera: frontoi atzean, Abaetxe ondoko “estalpean”.



*Iturria: bedaio.com*

## Artubi elkarteko irisgarritasuna

2015ean, Udalak azaldu zuen Artubi elkartearen aurrealdeko terrazako egokitzapenak ezin zituela bere gain hartu, ez esku-hartzea, ezta proiektuaren diseinua ere. Materialen hornikuntzan laguntzeko aukera azaldu zuen. Halaber, irisgarritasun-baldintzak betetzeko zailtasunak identifikatu ziren, errepidetik elkarteko sarrerara dagoen kota-aldaketa nabarmena delako (4 metro ingurukoa).

Bestalde, inguruko maldetatik datorren urak ekarritako material solidoak, elkartearen sarrerako zoladuran pilatzeko dira eta oinezkoek irrist egiteko arriskua sortzen da.

### Artubiren aurrekaldeko kontenedoreen lekualdatzea

Edukiontzien eremua txukuntzeko egurrezko etxola edo paretatxo bat egitea proposatu zuen udalak 2015ean, kokapena aldatu gabe. Adieraziz bidearen zabaltzea egingo balitz edo eremuaren urbanizazioa aldatuko balitz, edukiontzien kokapena berriz aztertuko litzatekeela. Edukiontzi hauen lekualdatzea bidea zabaltzearekin lotuta dago, lurren jabea berbera baita.

### Eskoletxe-ilorreta bidegurutzeko eta belarmugako zabor-edukiontziak

Eskoletxe-ilorreta bidegurutzeko eta Belarmugako zabor-edukiontzien inguruak oso zikin egoten dira. Gainera, sasiz eta sastrakez betetzen dira. Gunea gehiago mugatzeko neurriak proposatu dira: hormigoi gehiago eman, hesitu, garbitu...

### Eliza

Elizaren inguruko eremuko zenbait behar:

- › Elizaren inguruan dagoen egurrezko zorua: hezetasunarekin labainkorra jartzen da. Kontuan hartu behar da, gainera, elizara gehien hurbiltzen den jendea adinekoa dela eta erortzeko arriskua dutela.
- › Elizaren inguruan dauden bankuek berniza behar dute eta burdinezko barandak pintura.

### Eskola (eskoletxe)

Itoginak ditu eta bajantea puskatuta dago. Teilatua erortzeko arriskuan dago eta, gainera, teilatuko urak ondoko etxebizitzara erortzen dira.

Tolosako Udalaren eraikin publiko bat da. Aurretik erabilera anitzak izan dituen eraikina izan da. 2021ean Hiritik At kooperatibak egin zuen azterketaren arabera, etxebizitza erabilera esleitzea aukera bat izan daiteke, erabilera honek dituen aukerak baloratuz: larrialditarako apartamentuak, alokairu sozialera bideratutako apartamentuak... Nolanahi ere, erabateko birgaitzea beharko luke horretarako.

### Abaetxe eraikinari etekin handiagoa ateratzea

Abaetxe eraikinaren erabilera optimizatu eta etekin handiagoa ateratzeko aukera aipatu izan dute herritarrek: ganbaran gela balioaniztuna atonduz edo 2.solairuko gelak aprobetxatuz.



Iturria: <https://luberri.net/>

### Abaetxeko lorategia

Lorategian dauden egurrezko mahai batzuk hondatuta daude.

### Larrañeta baserria

Larrañeta baserriaren egitura-hormak egoera arriskutsuan daude. Erortzea ekiditeko neurriren bat hartu beharko litzateke: jabeak birgaitzera behartu, babestu... Kudeaketa lan baten beharra dago.

### Gatz-paleak

Neguko gatz-paleak soberan gelditu izan dira Eskoletxen, Sagardotegian eta Kaskoko plazan. Gatz-zakuren bat puskatzen bada zorua hondatu egiten du.

### Baserrien izendapen-seinaleak

Batzuetan, edo falta dira edo oso hondatuta daude. Larrialdietarako zerbitzuek (anbulantziak, suhiltzaileek,...), deiak jasotzen dituztenean, baserrietara iristeko zailtasunak izaten dituzte. Arazo horren aurrean, bedaiotarrek beharrezko ikusten dute, baserrien seinaleztapenean, fotolumineszentzia bidez baserriaren zenbakia nabarmentzea, gauzez ere ikusteko moduan.

### Hilerriko sarrera

Hormigoia hondoratzen ari da.

### Umeen parkea

Kolunpioa hautsita dago eta zoruak garbiketa bat behar du.



## 3. Kokapena eta lurralde-mugaketa

### 3.1. Kokapena eta azalera

Bedaio auzoa Gipuzkoako Tolosaldea eskualdean kokatua dago, Aralar Natur Parkearen sarreretako batean, Balerdi mendiaren magalean. Auzogunea 400 metroko garaieran dagoen arren, Artubi tontorra Bedaioko lurretan kokatzen da eta 1.263 metroko garaiera du.

12,1 km<sup>2</sup>-ko azalarekin, Tolosa udalerraren herena osatzen du, udalerraren gainerakoarekin inolako mugarik egiten ez badu ere. Baso-azalera eskualdeko handienetakoa du, 865 Ha. Larreak 250 Ha eta belardiak 17 Ha.

Inpernu-erreka eta inguruko errekaak Bedaio errekan batzen dira eta honek, lehenik Amezketa eta azkenik Oria ibaian isurtzen ditu bere urak. Eskualde guztiak bezala, klima atlantiarra eta orografia malkartsua ditu Bedaiok.

Tolosa udalerria 17km-ra dago eta Gipuzkoako hiriburua, Donostia, 43 km-ra. Donostiatik etorritik gero, N1 errepidean Alegiara hartu eta GI-2133 errepidetik Amezketako Ugarte auzoraino joan behar da. Bertan, GI-3711 errepidean gora, Bedaio auzoraino iristeko.




*Iturria: Txomin Rezola Clemente*

### 3.2. Lurralde mugaketa

Bedaio ez du mugarik Tolosa udalerraren gainerakoarekin. Irla moduko bat osatzen du, alde horretatik. Gipuzkoan mugakide ditu: Amezketeta, Alegia, Altzo, Lizartza eta Gaztelu. Nafarroan, Araitz udalerria. Ondorengo bi mapetan ondo ikus daiteke ikuspegi orokor hori, Tolosa udalerrri osoa eta Bedaio inguruko udalerrrien testuinguruan kokatuz.


#### 1. irudia. Bedaioren kokapena eta Gipuzkoan mugakide dituen udalerrriak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua


Tolosako Udalak landutako ondorengo hiru planoetan ikus daiteke Tolosa udalerriaren eremu osoa gaur egun (Bedaio barne), Tolosa udalerriaren eremua Bedaio gabe eta Bedaio auzoaren eremua bakarrik.

**2. irudia.** Tolosako eremu osoa.



*Iturria: Tolosako Udala.*

**3. irudia.** Tolosako eremua Bedaio gabe.



*Iturria: Tolosako Udala.*


**4. irudia.** Bedaioko eremua.



*Iturria: Tolosako Udala.*

Bedaioaren mugak zein diren modu zehatz batean aztertzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren baliabideak erabili ditugu. Bedaioaren mugakide duen udalerrri bakoitzarekin eta Enirio-Aralarrekin dituen mugak mapetan irudikatu ditugu, eta mugarrien inguruko informazioa eta kokapen zehatza (koordinatuekin) ere jaso ditugu.

### 5. irudia. Bedaioaren mugak (ikuspegi orokorra)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

## Amezket

(8,54 km)

### 6. irudia. Bedaioren mugak (Amezket)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

**1. taula.** Amezketako mugarriak.


Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	ARTUBIKO-GAÑA	Arrunta	Bikaina	Lau mugakide: Amezketak, Tolosa (Bedaio), Enirio- Aralar, Araitz (NA)	X 578133 Y 4764559	1261,20 m
2	IMPARNO-ERREKA-BAZTERRA	Normala, ibarbidera	Ona		X 578003 Y 4765803	563,28 m
3	BEDAYO-KO-ERROTA	Balizkoa, ibarbideen elkargunean (mugarria ez dago fisikoki)	Ona	Erreken elkargunea	X 577886 Y 4767894	215,05 m
4	UGARTE	Balizkoa, ibarbideen elkargunean (mugarria ez dago fisikoki)	Ona	Erreken elkargunea	X 575271 Y 4768315	148,84 m
5	INTZAUZPE	Normala, ibarbidera	Ona		X 575882 Y 4769778	476,14 m
6	MIZPIRAU	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Amezketak, Tolosa (Bedaio), Alegia	X 575883 Y 4769942	511,64 m

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.*

## Alegia

(1,22 km)

### 7. irudia. Bedaioren mugak (Alegia).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

### 2. taula. Alegiako mugarriak.

Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	MIZPIRAU	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Amezketeta, Tolosa (Bedaio), Alegia	X 575883 Y 4769942	511,64 m
2	BIZUTZA	Balizkoa, ibarbideen elkargunean (mugarria ez dago fisikoki)	Ona	Hiru mugakide: Tolosa (Bedaio), Altzo, Alegia. Erreken elkargunea	X 575605 Y 4771018	172,44 m

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

## Altzo

(3,72 km)

### 8. irudia. Bedaioren mugak (Altzo).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

**3. taula.** Altzoko mugarriak.


Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	LAZKUGAÑE	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Tolosa(Bedaio), Altzo, Lizartza.	X 578169 Y 4769678	774,26 m
2	LAZKUGANE	Arrunta	Bikaina		X 578025 Y 4769529	684,94 m
3	LAZKUGANE	Arrunta	Bikaina		X 577684 Y 4769355	569,66 m
4	ZITZIOLA	Normala, ibarbidera	Ona		X 577562 Y 4769406	507,98 m
5	BIZUTZA	Balizkoa, ibarbideen elkargunean (mugarria ez dago fisikoki)	Ona	Hiru mugakide: Tolosa (Bedaio), Altzo, Alegia. Erreken elkargunea	X 575605 Y 4771018	172,44 m

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.*

## Lizartza

(658,03 m)

### 9. irudia. Bedaioren mugak (Lizartza).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

### 4. taula. Lizartzako mugarriak.


Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	AÑI	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Tolosa (Bedaio), Lizartza, Gaztelu (Añi)	X 578742 Y 4769394	731,89 m
2	CACHETI- GOYE	Arrunta	Bikaina		X 578496 Y 4769546	743,71 m
3	LAZKUGAÑE	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Tolosa(Bedaio), Altzo, Lizartza.	X 578169 Y 4769678	774,26 m

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

## Gaztelu/Añi

(1,03 km)

### 10. irudia. Bedaioren mugak (Gaztelu/Añi)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

### 5. taula. Gaztelu/Añiko mugarriak.


Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	AÑI	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina	Hiru mugakide: Gaztelu (Añi), Tolosa (Bedaio), Araitz (NA)	X 579433 Y 4768675	619,67 m
2	AÑI	Arrunta	Bikaina	Hiru mugakide: Tolosa (Bedaio), Lizartza, Gaztelu (Añi)	X 578742 Y 4769394	731,89 m

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

## Araitz (Nafarroa)

(5,13 km)

11. irudia. Bedaioren mugak (Araitz).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

**6. taula.** Araizko mugarriak.

Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
1	AÑI	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina	Hiru mugakide: Gaztelu (Añi), Tolosa (Bedaio), Araitz (NA)	X 579433 Y 4768675	619,67 m
2	ALTZAIASU	Arrunta	Bikaina		X 579488 Y 4768602	610,86 m
3	ALTZAIASU	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina		X 579556 Y 4768509	605,91 m
4	ALTZAIASU	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina		X 579582 Y 4768465	606,98 m
5	ALTZAIASU	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina		X 579607 Y 4768411	602,23 m
6	ALTZAIASU	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina		X 579641 Y 4768354	589,06 m
7	ZURZETA	Laguntzailea, banalerrora	Bikaina		X 579665 Y 4768314	579,40 m
8	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579702 Y 4768150	564,89 m
9	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579700 Y 4768031	561,85 m
10	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579704 Y 4767992	560,74 m
11	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579710 Y 4767966	558,52 m
12	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579746 Y 4767889	549,27 m


Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
13	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579792 Y 4767855	549,00 m
14	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579816 Y 4767840	547,67 m
15	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579838 Y 4767795	551,62 m
16	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579833 Y 4767743	535,49 m
17	ZURZETA	Arrunta	Bikaina		X 579822 Y 4767611	522,22 m
18	ETEBIDE	Arrunta	Bikaina		X 579891 Y 4767248	516,89 m
19	ETEBIDE	Arrunta	Bikaina		X 579925 Y 4767188	516,86 m
20	ETEBIDE	Arrunta	Bikaina		X 579922 Y 4767017	505,98 m
21	ZARATE	Arrunta	Ona		X 579819 Y 4766786	482,43 m
22	ZARATE	Arrunta	Ona		X 579790 Y 4766659	477,80 m
23	ZARATE	Arrunta	Bikaina		X 579767 Y 4766571	483,51 m
24	ELUSU	Arrunta	Bikaina		X 579559 Y 4766288	584,95 m
25	ELOSU	Arrunta	Ona		X 579371 Y 4765984	725,56 m

Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkina	Koordenatuak	Altitudea
26	URREA-GAÑA	Arrunta	Bikaina		X 579288 Y 4765760	764,23 m
27	URDILLECO-LEPOA	Arrunta	Bikaina		X 579162 Y 4765530	721,40 m
28	URDILLECO-LEPOA	Arrunta	Bikaina		X 578971 Y 4765323	761,95 m
29	URDILLECO-LEPOA	Arrunta	Bikaina		X 578959 Y 4765267	779,14 m
30	URDILLECO-LEPOA	Arrunta	Ona		X 578901 Y 4764808	1196,35 m
31	ARTUBIKO-GAÑA	Arrunta	Bikaina	Lau mugakide: Amezketeta, Tolosa (Bedaio), Enirio- Aralar, Araitz (NA)	X 578133 Y 4764559	1261,20 m

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

## Enirio-Aralar

### 12. irudia. Bedaioren mugak (Enirio-Aralar).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.

### 7. taula. Enirio-Aralarko mugarriak.

Zbk.	Kokapena	Mota	Doitasuna	Iruzkinak	Koordenatuak	Altitudea
1	ARTUBIKO-GAÑA	Arrunta	Bikaina	Lau mugakide: Amezketa, Tolosa (Bedaio), Enirio-Aralar, Araitz (NA)	X 578133 Y 4764559	1261,20 m

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.




## 4. Biztanleria eta karakterizazio soziodemografikoa eta sozioekonomikoa

### 4.1. Biztanleriaren bilakaera

Biztanleria-galera handia izan du Bedaiok azken lau hamarkadetan. Ia % 40koa, 1981etik 2024ra. 2011n behea jo zuen, 81 biztanlerekin. Horren ondoren gora egin du, eta ehun biztanleren bueltara itzuli da.

Amezketak ere beheranzko joera darama, baina jaitsiera apalagoa izan da, % 17,4koa denbora-tarte horretan bertan. Tolosako biztanleriak, berriz, % 6,4ko igoera izan du. Tolosak XXI.mendean hartu du goranzko joera, eta, batez ere, 2011 eta 2021 artean izan zuen hazkunderik handiena: 18.232 biztanle izatetik 19.795 izatera.

1. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera 1991-2024.



Iturria: INE-Nomenclátor o Población por unidad poblacional. Siadecok landua.

**8. taula.** Biztanleriaren bilakaera 1991-2024.

	1981	1991	2001	2011	2021	2024	2024-1981 ALDERAKETA
Bedaio	161	146	119	81	99	97	-% 39,8
Amezketza	1.138	1.040	994	970	945	940	-% 17,4
Tolosa	18.894	18.150	18.102	18.232	19.795	20.099	% 6,4

*Iturria: INE-Nomenclátor o Población por unidad poblacional. Siadecok landua.*

Lehendik ere biztanleria-galera handia izan zuen Bedaiok, iturri dokumentalen arabera, XX.mendearen erdian 500 biztanleren bueltan baitzebilen auzoa.

## 4.2. Biztanleria-dentsitatea

Tolosa udalerrri osoak baino askoz ere biztanleria-dentsitate txikiagoa du Bedaiok. 97 biztanle eta 12,1km<sup>2</sup>-ko azalerarekin, 7,6 biztanle/km<sup>2</sup>-ko biztanleria dentsitatea du Bedaiok. Tolosak, aldiz, 20.099 biztanle eta 37,38 km<sup>2</sup>-ko azalerarekin, 537,7 biztanle/km<sup>2</sup>-ko biztanleria-dentsitatea du.

Amezketaren biztanleria-dentsitatea baino apalagoa ere bada Bedaiorena, baina askoz ere hurbilago dago haren datuetatik: 940 biztanle eta 20,58km<sup>2</sup>-ko azalerarekin, 45,7 biztanle/km<sup>2</sup>-ko biztanleria-dentsitatea du Amezketak.

**9. taula.** Biztanleria-dentsitatea (Bedaio, Amezketeta eta Tolosa) (2024).


	Biztanleria (2024)	Azalera	Biztanleria-dentsitatea
Bedaio	97	12,1 km <sup>2</sup>	7,6 biztanle/km <sup>2</sup>
Amezketeta	940	20,58 km <sup>2</sup>	45,7 biztanle/km <sup>2</sup>
Tolosa	20.099	37,38 km <sup>2</sup>	537,7 biztanle/km <sup>2</sup>

*Iturria: INE-Noménclator. Población por unidad poblacional (2024). Siadecok landua.*

### 4.3. Biztanleria adinaren eta jaioterriaren arabera

Biztanleriaren adinaren arabera egiturari dagokionez, hurren pisua (0-14 urte) nabarmen altuagoa da Bedaion (% 19,6), Amezketaekin (% 13,5) eta Tolosarekin (% 13,9) alderatuta. Aldiz, 25-34 urte arteko bost gazte besterik ez dira bizi Bedaion ( biztanleriaren % 5,1). Aldiz, altua da 60-69 urte artekoen pisua Bedaion (% 26,8). Hortik gorakoena, ordea, Amezketa eta Tolosan baino baxuagoa da. Nolanahi ere, hiruetan altuena da adinekoen indizea Bedaion (% 26,80)—% 22,60 Amezketa eta % 23,03 Tolosan—.

2. grafikoa. Biztanleria adinaren arabera (2024)



Iturria: INE-Nomenclátor o Población por unidad poblacional. Siadecok landua

**10. taula.** Biztanleria adinaren arabera (2024)

	Bedaio		Amezketeta		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0-14	19	19,6	124	13,5	2.777	13,9
15-19	4	4,1	61	6,6	1.122	5,6
20-24	5	5,2	52	5,7	1.121	5,6
25-29	3	3,1	46	5,0	1.018	5,1
30-34	2	2,1	33	3,6	1.109	5,5
35-39	6	6,2	56	6,1	1.109	5,5
40-44	7	7,2	56	6,1	1.316	6,6
45-49	4	4,1	68	7,4	1.553	7,8
50-54	5	5,2	93	10,1	1.399	7,0
55-59	6	6,2	64	7,0	1.456	7,3
60-64	10	10,3	59	6,4	1.403	7,0
65-69	16	16,5	61	6,6	1.193	6,0
70-74	2	2,1	43	4,7	1.047	5,2
>= 75	8	8,2	104	11,3	2.364	11,8
Guztira	97	100,0	920	100,0	19.987	100,0

*Iturria: Eustat-Lurdata***11. taula.** Haur indizea eta adinekoen indizea (2024)

	Haur indizea (0-14 urte)		Adinekoen indizea (64 urtetik gora)		Biztanleria guztira	
	Biztanleria	%	Biztanleria	%	Biztanleria	%
Bedaio	19	19,58	26	26,80	97	100,0
Amezketeta	124	13,47	208	22,60	920	100,0
Tolosa	2.777	13,89	4.604	23,03	19.987	100,0

*Iturria: Eustat-Lurdata*

Jaioterriari dagokionez, Bedaioko 97 biztanleetatik 96 Gipuzkoan jaioko dira (% 99). Amezketan % 89,5era jaisten da portzentajea, eta Tolosan, % 78,16ra. Tolosa da, beraz, jatorri-aniztasun handieneko herria. Beste jatorrien inguruko daturik ez dugu eman, Bedaioren kasuan, informazioaren konfidentzialtasuna dela eta, zenbait datu ez daudelako eskura.

**12. taula.** Gipuzkoan jaiokoak (2024)


	Bedaio		Amezketeta		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Gipuzkoan jaiokoak	96	99,0	823	89,5	15.621	78,16

*Iturria: Eustat-Lurdata*

#### 4.4. Euskararen ezagutza eta erabilera

Bedaioiko ia biztanle guztiak dakite euskaraz (% 95,9). Amezketan baino are altuagoa da ehuneko hori, Amezketan ere oso altua izanik: % 88,8. Bedaion ez bezala, Amezketan euskara ulertzen ez duenik ere bada (% 6,0). Baina horien pisua, nabarmen altuagoa da Tolosan (% 15,0).

3. grafikoa. Euskararen ezagutza (2021) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata


13. taula. Euskararen ezagutza (2021) (%)

	Bedaio			Amezketan			Tolosa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Euskaldunak	100	93,9	95,9	86,3	91,1	88,8	70,2	70,3	70,3
Ia euskaldunak	0	6,1	4,1	5,7	4,6	5,2	14,2	14,7	14,7
Erdaldunak	0	0	0	8,0	4,2	6,0	15,6	15,0	15,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Eustat-Lurdata

Bedaion, ia hamarretik zortzik egiten dute gehienbat euskaraz etxean (% 78,6). Amezketan baino are altuagoa da ehuneko hori, Amezketan ere oso altua izanik: % 72,6. Tolosan, berriz, % 36,3ra jaisten da etxean gehienbat euskaraz egiten dutenen portzentajea. Hamarretik lauk gaztelaniaz egiten dute (% 39,9) eta hamarretik bik bi hizkuntzetan neurri berean edo antzekoan (% 20,4).

**4. grafikoa.** Etxeko hizkuntza-erabilera (2021) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata

**14. taula.** Etxeko hizkuntza-erabilera (2021) (%)


	Bedaio			Amezketeta			Tolosa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Euskara	81,6	75,5	78,6	71,2	73,9	72,6	36,5	36,1	36,3
Gaztelania	4,1	8,2	6,1	14,3	12,5	13,4	39,9	39,9	39,9
Biak	14,3	16,3	15,3	9,4	10,0	9,7	20,2	20,6	20,4
Beste bat	0,0	0,0	0	5,1	3,5	4,3	3,4	3,4	3,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Eustat-Lurdata

## 4.5. Ikasketa-maila

Biztanleriaren ikasketa-mailari dagokionez, Amezketaren egoeratik hurbilago dago Bedaio: behe mailako ikasketak dituztenen pisua handia da Tolosarekin alderatuz (% 34,5)—Amezketan (% 54,6) baino txikiagoa Bedaion (% 46,3)—. Aldiz, goi-mailako ikasketak dituztenen pisua txikia da Tolosarekin alderatuz (% 45,7) —Amezketan (% 26,3) baino handiagoa Bedaion (% 32,4)—.

**5. grafikoa.** 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren ikasketa-maila (2023) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata

**15. taula.** 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren ikasketa-maila (2023) (%)

	Bedaio		Amezketan		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bigarren hezkuntzako lehenengo etapa eta hortik beherakoak	37	46,3	432	54,6	5.842	34,5
Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta bigarren hezkuntzaren osteko hezkuntza ez goi-mailakoa	17	21,3	151	19,1	3.351	19,8
Goi-mailako hezkuntza	26	32,4	208	26,3	7.749	45,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>80</b>	<b>100</b>	<b>791</b>	<b>100,0</b>	<b>16.942</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Eustat-Lurdata

## 4.6. Jarduerarekiko harremana

Langabezia-tasa baxuagoa du Bedaiok (% 4,2), Amezketaekin (% 7,3) eta Tolosarekin (% 6,5) alderatuta. Eta bereziki baxua da, gainera, emakumezkoen artean (% 3,6).

Kontuan hartu behar da langabezia ezkutua ohiko ezaugarria izan dela urtetan Bedaioren moduko landa-eremuetan: baserrian lanean ari diren baina kanpoan ere lan egingo luketen emakumeen kasuan, bereziki.

**6. grafikoa.** Langabezia-tasa (2023) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata


**16. taula.** Langabezia-tasa, sexuaren arabera eta guztira (2023) (%)

	Bedaio			Amezketa			Tolosa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Langabezia-tasa	3,6	5,0	4,2	8,9	5,7	7,3	6,8	6,0	6,5

Iturria: Eustat-Lurdata

Biztanleria landunaren pisua handixeagoa da Bedaion (% 48,5), Amezketan (% 45,7) eta Tolosan (% 45,5) baino. Sexuaren arabera alde esanguratsua dago Bedaion, hala ere: % 55,3 da biztanleria landuna gizonetzkoen artean eta % 42,0 emakumezkoen artean. Biztanleria ez aktiboan kontrakoa gertatzen da: % 56,0 emakumezkoen artean eta % 42,6 gizonetzkoen artean. Amezketan eta Tolosan, berriz, alde hori ez da horren handia.

**7. grafikoa.** Biztanleria, jarduerarekiko harremanaren arabera (2023) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata

**17. taula.** Biztanleria, jarduerarekiko harremanaren eta sexuaren arabera (2023) (%)


	Bedaio			Amezketa			Tolosa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Landunak	42,0	55,3	48,5	42,4	48,8	45,7	43,5	47,6	45,5
Langabeak	2,0	2,1	2,1	4,7	2,7	3,7	3,6	3,0	3,3
Ez aktiboak	56,0	42,6	49,5	52,9	48,4	50,6	52,9	49,4	51,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100	100	100,0	100	100	100,0	100

Iturria: Eustat-Lurdata

## 4.7. Enplegua

Bederatzi pertsona ari dira Bedaion lanean, horietatik zazpi gizonezkoak (% 77,8). Haien biztanleriarekiko, sortzen duten enplegu kopurua handiagoa da Amezketan (392) eta Tolosan (6.641).

**8. grafikoa.** Pertsona enplegudunak, sexuaren arabera eta guztira (2024)



Iturria: Eustat-Lurdata


**18. taula.** Pertsona enplegudunak, sexuaren arabera eta guztira (2024)

	BEDAIO						AMEZKETA						TOLOSA					
	Emakumeak		Gizonak		Guztira		Emakumeak		Gizonak		Guztira		Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Enpleguak	2	22,2	7	77,8	9	100	106	27,0	286	73,0	392	100	3.460	53,6	3.001	46,4	6.461	100

Iturria: Eustat-Lurdata

Eustat-en datuen arabera, zazpi establezimendu daude Bedaion, guztiak bi langile edo gutxiagokoak. Eta horietatik lau, lehen sektorekoak dira. Argazki horrek ez du zer ikusirik Tolosakoarekin, bertan, establezimenduen % 1,6 besterik ez baita lehen sektorekoa —horietako batzuk Bedaiokoak dira, gainera—. Amezketan ere, pisu nabarmena du lehen sektoreak, establezimenduen laurdena pasatxo baitagokio. Baita 0-2 langile arteko establezimenduek ere (% 81,3). Tolosan, aldiz, % 69,1 era jaisten da establezimendu txikienen pisua.

**9. grafikoa.** Establezimenduak guztira, 0-2 langileko establezimenduak eta lehen sektoreko establezimenduak (2024) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata

**19. taula.** Establezimenduak guztira, 0-2 langileko establezimenduak eta lehen sektoreko establezimenduak (2024)

	Bedaio		Amezketeta		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Establezimenduak guztira	7	100	80	100	1.393	100
0-2 langile arteko establezimenduak	7	100	65	81,3	962	69,1
Lehen sektoreko establezimenduak	4	57,1	21	26,3	23	1,6

Iturria: Eustat-Lurdata

Bedaioarrek helarazitako informazioaren arabera, bertan kokatuta dauden jarduera ekonomikoen artean:


- Lehen sektoreari dagokionez, abeltzaintza-ustiategi bat dago eta bi erlazaintza-enpresa txiki. Basogintzak ere badu presentzia. Horrez gain, landa-eremua izanik, etxebizitza guztiek dute sektoreari loturiko jarduerak garatzeko beharra. Auzotarren artean, gainera, lehen sektoreari loturiko jarduerak garatzeko zaletasuna handia da. Baserritik bizi ez badira ere, baserria da auzotar gehien-gehienek bizilekua.
- Bigarren sektorean, inguruan garrantzi handia duen zurgintza enpresa bat ere badago, Amezketeta eta Bedaioko lur-sailetan kokatua eta 20 langile dituen.

## 4.8. Etxebizitza

Etxebizitzak egoiliar kopuruaren edo horietan bizi den pertsona kopuruaren arabera aztertuz, 6-9 artekoen ehuneko handia nabarmentzen da Bedaion (% 12,1), batez ere —Amezketan % 2,5 eta Tolosan % 1,9—. Pertsona bakarreko etxebizitzaren kopurua, aldiz, baxuagoa da Bedaion: % 24,2 —Amezketan % 30,4 eta Tolosan % 32,3—.

Bedaio landa-eremuko auzo tradizionala izanik ia erabat baserriz osatua dago, bertako lurretan zehar barreiatutako baserriak dira nagusi.

**10. grafikoa.** Etxebizitzak, horietan bizi den pertsona-kopuruaren arabera (2023)



Iturria: INE-Nomenclátor o Población por unidad poblacional. Siadecok landua


**20. taula.** Etxebizitzak, horietan bizi den pertsona-kopuruaren arabera (2023)

	Bedaio		Amezketan		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Pertsona 1	8	24,2	111	30,4	2.692	32,3
2 pertsona	9	27,3	91	24,9	2.423	29,1
3-5 pertsona	12	36,4	154	42,2	3.058	36,7
6-9 pertsona	4	12,1	9	2,5	157	1,9
>= 10 pertsona	0	0	0	0	5	0,1
Guztira	33	100	365	100	8.335	100,0

Iturria: Eustat-Lurdata

Bedaion, gaur egun, ia etxebizitza guztiak daude jabetzan, 33tik 32 (% 97,0). Portzentaje hori baxuagoa da Amezketan (% 86,3) eta, batez ere, Tolosan (% 82,6).

**11. grafikoa.** Etxebizitzak, edukitze-erregimenaren arabera (2023) (%)



Iturria: Eustat-Lurdata

**21. taula.** Etxebizitzak, edukitze-erregimenaren arabera (2023)

	Bedaio		Amezketa		Tolosa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Jabetzan	32	97,0	315	86,3	6.881	82,6

Iturria: Eustat-Lurdata

Bedaioko hainbat baserri eta etxebizitza hutsik daude eta batzuek eraberritze-lanen beharra dute. Bigarren etxebizitza modura erabiltzen diren asko ere badira, auzoan jaiok diren eta gaur egun kanpoan bizi diren askok asteburu pasa joateko ohitura baitute. Bestalde, aziendak gordetzeko ukulu modura erabiltzen diren baserriak ere badira.

Biztanleriaren beherakada nabarmena etxebizitzak eraikitze aukerarik ezaren ondorio izan da neurri handi batean —orokorrean baserriak kalera joateko joera alde batera utzi gabe—. Orain dela 30-35 urte Bedaioko gazte ugari omen zegoen auzoan bertan bizitzeko gogoz, baina etxerik erosteko aukera izan ez izanak ondoko herrietara eramán zituen.

Kontuan hartu behar da Bedaio landa-eremua dela bere osotasunean eta lur-eremuaren gehiengoa, auzogunea izan ezik, urbanizaezin gisa kalifikatuta dagoela. Horrek erabat baldintzatzen eta mugatzen du etxebizitzaren eraikuntza.

2009an Tolosako HAPOa onartu zen, Bedaio auzoan 22 etxebizitza berri planteatzeko aukera ematen zuena. Baina garapen hori ez da aurrera atera, hein handi batean, etxebizitza garapen horrek beregain hartu beharko zituelako auzoko urbanizazio-lanak.

Bestalde, herritarrek deitoratu izan dituzte nor bere lurretan etxebizitza bat eraikitzeko dauden zailtasunak: burokrazia luzea, baimena lortzeko nekazaritzatik bizi beharra edo diru-sarreraren zati handi bat jarduera horretatik atera beharra... (Tolosako HAPOaren arabera lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitzarako eraikuntza berriak eraikitzeko aukera bakarra nekazal ustiapenarekin lotura izatea da). Araudiz kanpo dauden zenbait etxebizitzaren egoera erregulatu eta etxebizitza-izaera onartzea ere bai, bizigarritasun-baimena emanaz. Azpimarratu behar da, dena den, muga horiek ez direla Tolosako HAPOan ezartzen, Euskadiko 2006ko Lurzoruaren legean baizik (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa).

Etxebizitza-arloko garapenerako beste aukera batzuk:

- Tolosako HAPOak jasotzen duen bezala, kaskoaren hazkuntza batekin posible litzateke eraikuntza berriak egitea. Horrez gain, Bedaioko herrigunearen azalera handitzean bere baitan geratzen diren eraikinak lurzoru urbanoan sartuko lirateke zuzenean, araudiz kanpo dauden eremu horretako eraikuntzak kontsolidatzeko edo ordenazioz kanpo geratzeko aukerarekin.
- Hutsik eta utzirik dauden baserriak berreskuratu daitezke. Baserri erabileran katalogatua egon bada, egun egoera ez bizigarri batean egon arren, hau birgaitu eta etxebizitza bezala sailkatu daiteke.
- Segregazioa baimentzen da, baldintzen arabera 2 edo 3 etxebizitzetan segregatu daiteke jada etxebizitza erabilera duen eraikin bat.



## 5. Bedaioko herri-ondasunak

Bedaioko lau eraikin daude jasota Tolosako Udalaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario orokorrean: Eskola zaharra (behekoa), Eskola zaharra (goikoa), Nagusi Etxea eta Frontoia. Horietako bakoitzeko fitxa bat dago inbentarioan, informazio katastrala, balioa eta bestelako informazioa jasotzen duena.

**13. irudia.** Tolosako Udalaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario orokorrean jasotako dauden Bedaioko lau eraikinaren kokapena



Iturria: Tolosako Udala

## Eskola zaharra (behekoa)

INVENTARIO GENERAL DE BIENES Y DERECHOS.  
INMUEBLE RÚSTICO  
TOLOSAKO UDALA

IDENTIFICACIÓN	Organización: TOLOSAKO UDALA		Naturaleza del dominio: Dominio Público / Servicio Público		
	Nombre: ANTIGUAS ESCUELAS (BEDAIO ABAJO)				
	Nº Inventario: 1.2.000009				
	Descripción: Edificio y otras construcciones				
GENERALES	Destino: EQUIPAMIENTO CÍVICO-SOCIAL		Fecha Adquisición: 01/07/1911		
	Forma de adquisición: DONACIÓN				
	Aprovechamiento: Improductivo		Paraje: BEDAIO		
	Polígono:		Parcela:	Propiedad: Propio	
	Referencia Catastral: 7868002				
	Lindero Norte: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 13-015				
	Lindero Sur: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 13-015				
	Lindero Este: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 13-015				
	Lindero Oeste: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 13-015				
	Observaciones generales: EDIFICIO DE PLANTA RECTANGULAR CON DOS PLANTAS SOBRE SEMISÓTANO, TODAS ELLAS CON ACCESOS INDEPENDIENTES, A LA PLANTA SUPERIOR SE ACCEDE DESDE UNA ESCALERA EXTERIOR. SU ESTRUCTURA ES DE MUROS DE CARGA DE MAMPOSTERÍA ENFOSCADOS CON MORTERO, LOS FORJADOS Y ARMAZÓN DE CUBIERTA SON DE MADERA, REMATADO A DOS AGUAS EN TEJA ÁRABE. ACTUALMENTE EL SEMISÓTANO, A NIVEL DE CARRETERA, ES UN ALMACÉN, MIENTRAS QUE LA PRIMERA PLANTA CARECE DE USO (ANTIGUA ESCUELA), Y LA ÚLTIMA ALTURA (ANTIGUA VIVIENDA DE MAESTROS) SE UTILIZA COMO SEDE DE LA ASOCIACIÓN DE VECINOS DEL BARRIO DE BEDAIO.				
Signatura del lugar de archivo de la documentación: CAJA Nº1, EXPEDIENTE B.6.2.2/00.2					
REGISTRALES	Título de adquisición: ESCRITURA PÚBLICA DE DONACIÓN A FAVOR DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA DE D. BRAULIO ALUSTIZA Y ARAMBURU Y LOS SRES. ZUBILLAGA, MAYO ARTOLA Y ZBEIRA, OTORGADA ANTE EL NOTARIO DE TOLOSA D. SALVADOR MARTÍNEZ A 01/07/1911.				
	Notario: SALVADOR MARTÍNEZ		Protocolo:		
	Registro Propiedad: TOLOSA		Tomo: 421		
	Libro: 37	Folio: 159	Finca: 819	Inscripción: 1ª	
	Observaciones Registrales: DONACIÓN DE LA FINCA CON DESTINO A LA EDIFICACIÓN DE ESCUELAS PARA LOS VECINOS DEL BARRIO DE BEDAIO, SI ALGÚN DÍA EL BARRIO SE SEGREGASE DEL MUNICIPIO DE TOLOSA, LA FINCA PERTENECERÁ A LA ENTIDAD JURÍDICA SEGREGADA Y NUNCA SERÁ CONSIDERADA COMO PROPIEDAD REGISTRAL DE LOS VECINOS.				
EDIFICACIÓN	Fecha obra: 01/01/1922		Tipo Construcción: Rústica		
	Estado Conservación: Malo		Nº Plantas: 3		
	Fachada: ENFOSCADA		Carpintería exterior: MADERA		
	Cubierta: TEJA				
UNO ANIS LUG	Clasificación: RURAL AGROGANADERA Y DE CAMPIÑA		Calificación:	Edificabilidad:	

Edificio Catalogado:
----------------------

VALORACIONES	Parcela:		
	Superf. Registral:	Superf. Catastral: 74,00 m2	Superf. Real: 74,00 m2
	Valor Adquisición:	Valor Catastral: 18.684,37 €	Valor Actual:
	Construcción:		
	Superf. Catastral: 222,00 m2	Superf. Ocupada: 74,00 m2	Superf. Const.: 222,00 m2
	Valor Adquisición:	Valor Catastral: 65.226,83 €	Valor Actual:
	Inmueble:		
Valor Adquisición:	Valor Catastral: 83.911,20 €	Valor Actual: 83.911,20 €	


AMORTIZACIÓN	Cuenta Contable:	
	Valor neto contable:	Amortización acumulada:
	Años Máximos:	Coficiente Máximo:

SEGURO	Seguro:	
	Descripción:	
	Prima:	
	Tipo de cobertura:	
	Fecha de inicio:	Fecha de vencimiento:
	Número de póliza:	

RENDIMIENTO	Derechos Reales a Favor:	
	Derechos Reales en Contra:	
	Derechos Personales:	
	Importe Derechos. a Favor:	Importe Derechos. en Contra:
	Rendimiento:	Importe Rendimiento:

USOS FUNCIONALES	
------------------	--

MEJORAS	
---------	--



## Eskola zaharra (goikoa)

INVENTARIO GENERAL DE BIENES Y DERECHOS.  
**INMUEBLE URBANO**  
 TOLOSAKO UDALA

IDENTIFICACIÓN	Organización: TOLOSAKO UDALA		Naturaleza del dominio: Dominio Público / Servicio Público		
	Nombre: ANTIGUAS ESCUELAS (BEDAIO ARRIBA)				
	Nº Inventario: 1.1.000244				
	Descripción: Edificio y otras construcciones				
GENERALES	Destino: EQUIPAMIENTO CÍVICO-SOCIAL		Fecha Adquisición:		
	Forma de adquisición: NO CONSTA				
	Referencia Catastral: 7866007				
	Dirección: BEDAIO AUZOA, 27				
	Manzana:		Parcela:		Propiedad: Propio
	Lindero Norte: VÍA PÚBLICA URBANA				
	Lindero Sur: PARCELAS CATASTRALES RÚSTICAS 251 Y Y 139 DEL POLÍGONO 14				
	Lindero Este: PARCELA CATASTRAL URBANA 7867013				
	Lindero Oeste: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 251 DEL POLÍGONO 14				
	Observaciones generales: EDIFICIO DE PLANTA RECTANGULAR Y DOS ALTURAS, DE ESTRUCTURA DE HORMIGÓN ARMADO, CERRAMIENTO DE FACHADAS DE LADRILLO MACIZO CARAVISTA Y HUECO, REVOQUES DE MORTERO DE CEMENTO Y CUBIERTA A DOS AGUAS DE TEJA ÁRABE. ESTÁ CEDIDO EN PRECARIO POR LA COMISIÓN PERMANENTE MUNICIPAL DEL 18/03/1983 A LOS VECINOS DEL BARRIO COMO LOCAL SOCIAL EN SU PLANTA BAJA.				
Signatura del lugar de archivo de la documentación:					
REGISTRALES	Título de adquisición:				
	Notario:		Protocolo:		
	Registro Propiedad:		Tomo:		
	Libro:	Folio:	Finca:	Inscripción:	
	Observaciones Registrales:				
EDIFICACIÓN	Fecha obra: 01/01/1961				
	Estado Conservación: Bueno		Tipo Construcción: Tradicional		
	Fachada: LADRILLO		Nº Plantas: 2		
	Cubierta: TEJA		Carpintería exterior: MADERA		
URBANISMO	Clasificación: ÁREA URBANA		Calificación: EQUIPAMIENTO COMUNITARIO		
	Edificio Catalogado:				
VALORACIONES	Parcela:				
	Superf. Registral:		Superf. Catastral: 115,00 m2	Superf. Real: 941,00 m2	
	Valor Adquisición:		Valor Catastral: 22.526,00 €	Valor Actual:	

<b>Construcción:</b>		
Superf. Catastral: 230,00 m2	Superf. Ocupada: 115,00 m2	Superf. Const.: 230,00 m2
Valor Adquisición:	Valor Catastral: 71.219,70 €	Valor Actual:
<b>Inmueble:</b>		
Valor Adquisición:	Valor Catastral: 93.745,70 €	Valor Actual: 71.219,70 €

<b>AMORTIZACIÓN</b>	<b>Cuenta Contable:</b>		
	Valor neto contable:	Amortización acumulada:	
	Años Máximos: 100	Coficiente Máximo: 2,00 %	Valor residual:

<b>SEGURO</b>	<b>Seguro:</b>	
	Descripción:	
	Prima:	
	Tipo de cobertura:	
	Fecha de inicio:	Fecha de vencimiento:
	Número de póliza:	

<b>RENDIMIENTO</b>	<b>Derechos Reales a Favor:</b>	
	<b>Derechos Reales en Contra:</b>	
	<b>Derechos Personales:</b>	
	Importe Derechos. a Favor:	Importe Derechos. en Contra:
	Rendimiento:	Importe Rendimiento:

<b>USOS FUNCIONALES</b>	
-------------------------	--

<b>MEJORAS</b>	
----------------	--



## Nagusi etxea

INVENTARIO GENERAL DE BIENES Y DERECHOS.  
**INMUEBLE URBANO**  
 TOLOSAKO UDALA

IDENTIFICACIÓN	Organización: TOLOSAKO UDALA		Naturaleza del dominio: Dominio Público / Servicio Público		
	Nombre: CASA NAGUSI ETXEA (BEDAIO)				
	Nº Inventario: 1.1.000094				
	Descripción: Edificio y otras construcciones				
GENERALES	Destino: EQUIPAMIENTO CÍVICO-SOCIAL		Fecha Adquisición: 06/10/2008		
	Forma de adquisición: PERMUTA				
	Referencia Catastral: 7867007				
	Dirección: BEDAIO AUZOA, 26				
	Manzana:		Parcela:		Propiedad: Propio
	Lindero Norte: PARCELA CATASTRAL URBANA 7867011 Y RÚSTICA 88 DEL POLÍGONO 14				
	Lindero Sur: VIAL, BEDAIO AUZOA				
	Lindero Este: PARCELA CATASTRAL URBANA 7867006 Y PLAZA PÚBLICA				
	Lindero Oeste: PARCELA CATASTRAL URBANA 7866006				
	<p><b>Observaciones generales:</b> ANTIGUA CASA RECTORAL DE BEDAIO Y HUERTA CONTIGUA, SE TRATA DE UNA CONSTRUCCIÓN DE PLANTA RECTANGULAR Y TRES ALTURAS DE ESTRUCTURA DE MURO DE MAMPOSTERÍA DE PIEDRA CON REFUERZOS DE SILLERÍA Y LADRILLO EN ESQUINAS, DINTELES Y JAMBAS. ESTÁ CUBIERTO A DOS AGUAS POR UN ENTRAMADO DE MADERA REMATADO EN TEJA CURVA CERÁMICA. EL EDIFICIO ESTÁ ACONDICIONADO COMO CENTROL SOCIAL, SIENDO SU PLANTA INFERIOR UNA TABERNA CON COCINA, COMEDOR Y BAR SEPARADOS, ASEOS, VESTUARIOS Y ESPACIOS DE PERSONAL EN LA PRIMERA PLANTA, Y EL RESTO DE ESPACIO SIN DEFINIR. AL SUR DE LA CONSTRUCCIÓN PRINCIPAL SE ENCUENTRA UN AMPLIO ALMACÉN Y ESPACIOS DESTINADOS TAMBIÉN A USOS SOCIALES (128 M2), DE ESTRUCTURA DE MADERA QUE APOYA SOBRE EL MURO DE CONTENCIÓN DEL VIAL QUE CRUZA EL BARRIO, EL CERRAMIENTO ES DE LADRILLO CARAVISTA Y LA CUBIERTA SOBRE UN ARMAZÓN DE MADERA, ES DE CHAPA METÁLICA PERFILADA. LA ANTIGUA HUERTA, DELMITADA POR UN MURETE DE MEDIANA ALTURA DE MAMPOSTERÍA DE PIEDRA, HA SIDO AJARDINADA, Y SE HA INSTALADO EN LA MISMA UN PARQUE INFANTIL ACOLCHADO EN CAUCHO. (106 M2).</p> <p><b>Signatura del lugar de archivo de la documentación:</b></p>				
REGISTRALES	<p><b>Título de adquisición:</b> ESCRITURA PÚBLICA DE PERMUTA ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA E INVERSIONES BIDEAN S.L. OTORGADA ANTE EL NOTARIO DE TOLOSA DÑA. MARÍA VALENTINA MONTERO VILAR EN EL Nº 935 DE SU PROTOCOLO, A 06/10/2008.</p>				
	Notario: MARÍA VALENTINA MONTERO VILAR		Protocolo: 935		
	Registro Propiedad:		Tomo: 1.756		
	Libro: 278	Folio: 86	Finca: 594	Inscripción: 23*	
<p><b>Observaciones Registrales:</b> PERMUTÓ EL AYUNTAMIENTO LA PARCELA F DE LA RELACIÓN DE PARCELAS RESULTANTES DE LA REPARCELACIÓN DEL POLÍGONO USABAL SUR, CON LA PROMOTORA INVERSIONES BIDEAN S.L.</p>					
EDIFICACIÓN	Fecha obra:				
	Estado Conservación: Bueno		Tipo Construcción: Rústica		
	Fachada: PIEDRA		Nº Plantas: 3		
	Cubierta: TEKA		Carpintería exterior: MADERA		

URBANISMO	Clasificación: ÁREA URBANA	Calificación: EQUIPAMIENTO COMUNITARIO	Edificabilidad:
	Edificio Catalogado:		

VALORACIONES	Parcela:		
	Superf. Registral:	Superf. Catastral: 126,00 m2	Superf. Real: 1.775,00 m2
	Valor Adquisición:	Valor Catastral: 33.386,42 €	Valor Actual: 33.386,42 €
	Construcción:		
	Superf. Catastral: 261,00 m2	Superf. Ocupada: 321,00 m2	Superf. Const.: 707,00 m2
	Valor Adquisición:	Valor Catastral: 45.891,97 €	Valor Actual: 45.891,97 €
	Inmueble:		
Valor Adquisición: 0,00 €	Valor Catastral: 79.278,39 €	Valor Actual: 79.278,39 €	

AMORTIZACIÓN	Cuenta Contable: 211 -- CONSTRUCCIONES		
	Valor neto contable:	Amortización acumulada:	
	Años Máximos: 100	Coficiente Máximo: 2,00 %	Valor residual:

SEGURO	Seguro:	
	Descripción:	
	Prima:	
	Tipo de cobertura:	
	Fecha de inicio:	Fecha de vencimiento:
	Número de póliza:	

RENDIMIENTO	Derechos Reales a Favor:	
	Derechos Reales en Contra:	
	Derechos Personales:	
	Importe Derechos. a Favor:	Importe Derechos. en Contra:
	Rendimiento:	Importe Rendimiento:

USOS FUNCIONALES	
------------------	--

MEJORAS

06/09/2010 - 111.555,10 € - ORAS DE HABILITACIÓN DE BAR-MERENDERO COMO CENTRO DE REUNIÓN Y DESARROLLO SOCIAL EN EL BARRIO. C.UZTURPE S.L.  
31/03/2011 - 12.937,80 € - INSTALACIÓN DE NUEVA CALEFACCIÓN PELLETS EN NAGUSI ETXEA. UZTURPE ERAIKUNTZAK S.L.



## Frontoia

INVENTARIO GENERAL DE BIENES Y DERECHOS.  
INMUEBLE URBANO  
TOLOSAKO UDALA

IDENTIFICACIÓN	Organización: TOLOSAKO UDALA		Naturaleza del dominio: Dominio Público / Servicio Público		
	Nombre: FRONTON (BEDAIO)				
	Nº Inventario: 1.1.000095				
	Descripción: Edificio y otras construcciones				
GENERALES	Destino: EQUIPAMIENTO DEPORTIVO		Fecha Adquisición: 01/01/1986		
	Forma de adquisición: DONACIÓN				
	Referencia Catastral: 7866006				
	Dirección: BEDAIO AUZOA, 26W				
	Manzana:		Parcela:	Propiedad: Propio	
	Lindero Norte: PARCELA CATASTRAL RÚSTICA 14-088				
	Lindero Sur: ESPACIOS LIBRES SIN CATASTRAR, BEADIO AUZOA				
	Lindero Este: ESPACIOS LIBRES SIN CATASTRAR, BEADIO AUZOA				
Lindero Oeste: ESPACIOS LIBRES SIN CATASTRAR, BEADIO AUZOA					
Observaciones generales: FRONTÓN CUBIERTO (28X11 MTS., 11 MTS. DE ALTURA) DE ESTRUCTURA DE MUROS DE HORMIGÓN ARMADO Y CERRAMIENTO DE HORMIGÓN CON REVOCO EXTERIOR, EN SU PARTE SUPERIOR EL MURO CONTINÚA EN PANELES OPACOS Y TRANSLUCIDOS DE POLICARBONATO, QUE TIENEN SU PROLONGACIÓN EN AL CUBIERTA A DOS AGUAS. LA PISTA ES DE SOLERA DE HORMIGÓN PULIDO. FUE CONTRUIDO POR M. CARRERA S.A. Y CONSTRUCCIONES LANTEKO S.A. EN EL AÑO 1987.					
Signatura del lugar de archivo de la documentación: CAJA Nº 1, EXPEDIENTE B.6.2.2/00.1					
REGISTRALES	Título de adquisición:				
	Notario:		Protocolo:		
	Registro Propiedad:		Tomo:		
	Libro:	Folio:	Finca:	Inscripción:	
Observaciones Registrales: INMUEBLE ADQUIRIDO POR DONACIÓN DEL TERRENO DE DÑA. MARÍA PILAR LARRETA ALTUNA COMO DESTINO A USO PÚBLICO-SOCIAL EN BENEFICIO DE LOS VECINOS DEL BARRIO, D NO COSNTA QUE LA DONACIÓN SE HAYA FORMALIZADO EN ESCRITURA PÚBLICA.					
EDIFICACIÓN	Fecha obra: 01/01/1987				
	Estado Conservación: Bueno		Tipo Construcción: Rústica		
	Fachada: PINTADA		Nº Plantas: 1		
	Cubierta: LÁMINAS IMPERMEABLES		Carpintería exterior:		
URBANISMO	Clasificación: ÁREA URBANA		Calificación: DOTACIONAL	Edificabilidad:	
	Edificio Catalogado				
ACCIONES	Parcela:				
	Superf. Registral:		Superf. Catastral: 308,00 m2	Superf. Real: 308,00 m2	

Valor Adquisición:	Valor Catastral: 8.462,81 €	Valor Actual: 8.462,81 €
Construcción:		
Superf. Catastral: 308,00 m2	Superf. Ocupada: 308,00 m2	Superf. Const.: 308,00 m2
Valor Adquisición:	Valor Catastral: 34.162,88 €	Valor Actual: 34.162,88 €
Inmueble:		
Valor Adquisición: 0,00 €	Valor Catastral: 42.625,69 €	Valor Actual: 42.625,69 €

AMORTIZACIÓN	Cuenta Contable: 211 -- CONSTRUCCIONES		
	Valor neto contable:	Amortización acumulada:	
	Años Máximos: 100	Coefficiente Máximo: 2,00 %	Valor residual:

SEGURO	Seguro:	
	Descripción:	
	Prima:	
	Tipo de cobertura:	
	Fecha de inicio:	Fecha de vencimiento:
	Número de póliza:	

RENDIMIENTO	Derechos Reales a Favor:	
	Derechos Reales en Contra:	
	Derechos Personales:	
	Importe Derechos. a Favor:	Importe Derechos. en Contra:
	Rendimiento:	Importe Rendimiento:

USOS FUNCIONALES	
---------------------	--

MEJORAS	
---------	--





## 6. Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa

Bedaioko auzoaren udalerrri-aldaketak izango lituzkeen ondorio ekonomikoak aztertu dira atal honetan, gaur egungo egoera eta udalerrri-aldaketaren ondorengo egoera alderatuz.

Horretarako, hurrengo zortzi atalak landu dira:

### 1. Bedaioko udal zerbitzuen identifikazioa eta balorazio ekonomikoa (Tolosako Udalaren ikuspegitik).

- Bedaiori zuzenean lotutako udal zerbitzuen eta jardueren identifikazioa.
- Ohiko funtzionamenduari lotutako zerbitzu jarraien balorazioa (A blokea).
- Aldian behingo konponketa-lan eta inbertsioen azterketa (B blokea).
- Zerbitzu eta inbertsio horien pisu erlatiboa Tolosako Udalaren aurrekontu egituran.

### 2. Bedaio auzoari dagozkion Tolosako Udalaren diru-sarreraren azterketa.

- Zerga nagusien eta finantzaketa-iturri nagusien identifikazioa.
- Bedaiok sortzen dituen sarreraren koherentzia demografikoaren egiaztapena.

### 3. Bedaioren udalerrri-aldaketak Tolosako Udalaren aurrekontuan izango lukeen eragina.

- Gastuen murrizketaren eta diru-sarreraren jaitsieraren zenbatekoa.
- Udalaren kaudimen ekonomikoan izan dezakeen inpaktuaren balorazio orokorra.

### 4. Bedaioko ohiko udal zerbitzuen balorazio ekonomikoa Amezketako Udalaren ikuspegitik (A blokea).

- Zerbitzu bakoitza Amezketako egungo antolaketa- eta kudeaketa-ereduan nola integratuko litzatekeen.
- Ohiko funtzionamendu-gastuen urteko estimazioa eta bideragarritasunaren balorazioa.

**5. Aldian behingo herri-lan eta inbertsioen balorazioa Amezketako Udalaren ikuspegitik (B blokea).**

- Ustekabeko konponketa-lanak, bide-berritzeak eta azpiegitura-inbertsioak.
- Amezketako inbertsio-ahalmenarekin duten bateragarritasunaren azterketa.

**6. Amezketako Udalaren sarrera-aurrekontuen azterketa (Bedaio integratuz gero).**

- Zerga eta finantzaketa-iturri nagusien estimazioa.
- Bedaiok sortuko lituzkeen sarreren egitura eta bolumen ekonomikoa.

**7. Amezketako Udalaren bideragarritasun ekonomikoaren balorazio orokorra.**

- Sarreren eta gastuen arteko oreka.
- A blokeko zerbitzuak eta B blokeko inbertsioak finantzatzeko gaitasunaren azterketa.

**8. Bideragarritasun ekonomikoaren ondorioak.**

- Bi udalerrien kaudimen ekonomikoaren bermatzea.
- Zerbitzuen jarraikortasuna eta kalitatearen hobekuntza.
- Foru Arauak ezarritako baldintzen betetze orokorra.

## 6.1. Bedaioko udal zerbitzuen identifikazioa eta balorazio ekonomikoa

Azpi-atal honen helburua da gaur egun Tolosako Udalak Bedaioko auzoari ematen dizkion udal zerbitzuen gastu ekonomikoa zehaztea, jarraian, udalerrri-aldaketaren ondorioz Tolosako Udalaren aurrekontuan gertatuko litzatekeen aurrekontu-murrizketa kuantifikatzeko.

Azterketa hau **irizpide mugatu eta zehatz baten** arabera egingo da: **ez dira kontuan hartuko Tolosako Udalaren funtzionamendu eta egiturazko gastu orokorrak** (I. kapituluko pertsonal gastuak, II. kapituluko gastu arrunt orokorrak edo udal egiturari lotutako zeharkako kostuak), hain zuzen ere, Bedaio Amezketara pasatzeak ez duelako inolako eraginik izango gastu-mota horietan, eta behin Bedaio Amezketara udalerrikoa izandakoan, Tolosako Udalaren funtzionamendu eta egiturazko gastu orokorrak bere horretan mantenduko direlako. Hori horrela izanda, honako gastuak hartuko dira kontuan:

- **II. kapitulutik** (gastu arruntak) Bedaiorekin zuzenean lotura dutenak, osorik edo zati batean.
- **IV. kapitulutik** (Transferentzia arruntak) Bedaioko jardueri, elkarteei edota zerbitzuei zuzendutakoak.

Beraz, egindako ariketa da kalkulatzeko **Bedaio Amezketako udalerrira pasatuko balitz, Tolosako udal aurrekontua zenbatean murriztuko litzatekeen**, betiere murrizketa hori Bedaiori zuzenean lotutako gastuei dagokiena izanik.

### Irizpideak:

Bedaiori atxikituriko gastuak identifikatzeko, honako irizpideak erabili dira:

- Zerbitzua edo jarduera Bedaioko lurraldean garatzea.
- Gastuaren hartzaile zuzena Bedaioko biztanleria edo bertako eragileak izatea.
- Proiektu edo partida zehatzaren eragin-eremua Bedaio izatea.
- Zerbitzua Bedaiorentzat bereziki diseinatua edo egokitua izatea.

Irizpide horien arabera, Tolosako Udalak Bedaion ematen dituen zerbitzuen balorazio ekonomikoa egiteko, hurrengo udal-zerbitzu bakoitzaren azterketa egin da, halako zerbitzurik eskaintzen den, nola kudeatzen den eta zenbateko gastu-aurrekontua dagokion baloratzeko. Bi bloke bereizi dira:

A blokea	B blokea
Ohiko funtzionamenduari loturiko zerbitzu jarraiak, urteroko aurrekontua eskatzen dutenak.	Aldian behin egin beharreko konponketa lan edota inbertsioekin lotura dutenak.
<b>Ohiko zerbitzu jarraiak (A blokea):</b>	<b>Aldian behingo herri-lan eta inbertsioak (B blokea):</b>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herriguneko espazio publikoen, berdeguneen eta eraikin publikoen ohiko garbiketa-lanak.</li> <li>2. Herri, baserri edo baso-bideen ohiko garbiketa-lanak (bide bazterren garbiketa).</li> <li>3. Auzoko jaiak, azokak eta bestelako kultura eta aisialdi-jarduerak.</li> <li>4. Gizarte-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza eta gizarte zerbitzuen arrera-zerbitzua).</li> <li>5. Ingurumena, landa garapena eta garapen soziokomunitariorako proiektuen sustapena.</li> <li>6. Ur hornidura eta estolderia-zerbitzua (estolda-zuloak eta ubideak garbitzea, estolderia-sarean konponketa egitea).</li> <li>7. Argiteria publikoa.</li> <li>8. Hondakinen bilketa eta kudeaketa.</li> <li>9. Hilerria (garbiketa eta mantenu-lanak eta hilerriaren jarduerarekin lotutako lanak).</li> <li>10. Telekomunikazioak eta azpiegitura digitalak (estaldura, internet-konexioa...).</li> <li>11. Garraio publikoa.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>12. Herrigunean zein baserri bideetan sortutako ustekabeko beharrei erantzuteko egin beharreko aldian behingo konponketa-lan txikiak.</li> <li>13. Herriguneko espazio publikoak edota baserri bideak berritzeko egindako lanak.</li> <li>14. Udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegiturretan egindako inbertsioak.</li> </ol>

### 6.1.1. Bedaioko ohiko udal zerbitzuen balorazio ekonomikoa (A blokea)

#### 1. Herriguneko espazio publikoen, berdeguneen eta eraikin publikoen ohiko garbiketa-lanak

##### (a) Tolosako Udalak Bedaion emandako zerbitzuen balorazio-hurbilpena

Bat kale garbiketarako, eta bestea berdeguneen zaintzarako, bi enpresa ezberdin ditu kontratatuak Tolosako Udalak, eta enpresa horien bitartez ematen dira Bedaio auzoari dagozkion zerbitzuak ere. **Bedaiori dagokionez, urtean behin** bertaratzen dira bi enpresa horiek **herriguneko plaza eta berdeguneen garbiketa lanak egitera**, Bedaioko jaiak ospatzen diren egunen bueltan. Tolosako Udaleko hirigintza saileko arduradun teknikoekin kontrastea eginda, ezinezkoa da zerbitzu horiek ematen dituzten enpresek Bedaiorako egindako lanaren kostua zehatz kalkulatzeko. Hurbilpen bat egiteko eskatuta, **urtean 3.000 €koa izan da hirigintza saileko arduradun teknikoak egindako estimazioa.**

Bestalde, **Tolosako Udalak ez dauka inolako zerbitzurik kontratatuta erabilera publikoa duten Bedaioko eraikinen garbiketa-lanak egiteko.**

##### (b) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrak

Tolosako Udalaren aurrekontu likidatua, 163- Kale Garbiketa eta 171- Parkeak eta Lorategiak programena eta, sailkapen ekonomikoari jarraiki 227-garbiketa kontzeptuarena, urtean batez beste, 2,1 milioi euro ingurukoa izan da 2021etik 2024ra (1.485.059 € kale garbiketa eta 579.529 € parke eta lorategien garbiketa); eta 2025eko hasierako aurrekontua, 1.860.000 €koa bide garbiketarako, eta 698.000 parke eta lorategien garbiketa lanetarako.

## 2. Herri, baserri edo baso-bideen ohiko garbiketa-lanak

Atal honetan bi kontzeptu bereizten dira, izaera eta kudeaketa-mota ezberdina dutenak:

- **Herri bideen ohiko garbiketa:** desbroze lanak eta bide bazterren garbiketa.
- **Elurra kentzeko zerbitzua:** neguko mantentze-lanei lotutako esku-hartzeak, bai lanen kostua, bai aseguru-gastuak.

### (a) Deskribapen orokorra

**Herri bideen garbiketa** lanak, Bedaioko landa-inguruneko baserri eta mendi-bideei garbi eusteko egiten diren urteroko lanak dira: sastrakak kentzea, bide bazterrak garbitzea eta zirkulazioa oztopatzen duten elementuak ezabatzea.

Bestalde, **elurra kentzeko zerbitzuarekin**, Bedaioko bideen erabilera bermatzeko zerbitzua ematen da, elurra kentzeko makineria erabiliz eta horrekin lotutako aseguru-kostuak barne hartuta.

### **Bedaioko bideen identifikazioa (desbroze-lanen eremua):**

Tolosako Udalaren 2025SABI0005 espediente zenbakidun plegu teknikoetako eranskinean, bide garbiketa egin beharreko 7 baserri-bide eta 5 mendi-bide zerrendatzen dira. Hala ere, bedaitoarren emandako informazioaren arabera, Tolosako Udalak garbitu beharreko mendi-bideak 3 dira, ikus hurrengo tauletatako informazioa.


Baserri bideak (7 unitate):


ID bidea	Luzera (m)	Bide mota	Izena
4	1.507	Baserri bidea	JAZKUEBEKOA
7	445	Baserri bidea	ILLORRETA
8	434	Baserri bidea	ZUMIZKETA
9	792	Baserri bidea	GURBILLATXIKI
10	569	Baserri bidea	GURBILLAUNDI
11	324	Baserri bidea	ARRUPE
14	208	Baserri bidea	BEDAIO BARRENA
Guztira garbiketa lanak egiten diren baserri bideak	4.279 m		

Mendi bideak (5 unitate):

ID bidea	Luzera (m)	Bide mota	Izena	Oharrak
150	2.661	Mendi bidea	BEDAIO – GURDINEKO LEPOA	
151	810	Mendi bidea	BEDAIO BARRENA OTAMUÑO	
152	1.530	Mendi bidea	ILLORRETA MENDI BIDEA	Ez da garbiketa-lanik egiten
153	2.176	Mendi bidea	ZUMIZKETAKO BASOAK	Ez da garbiketa-lanik egiten
154	2.275	Mendi bidea	GR-21 ZARATE	
Guztira mendi-bideak (plegu teknikoan arabera)	9.452 m			
<b>Guztira garbiketa lanak egiten diren mendi-bideak</b>	<b>5.746 m</b>			

Desbroze-lanen Bedaioko baserri eta mendi bideen luzera guztira, 10.025 m (10 km) da. Tolosa udalerrri osoarenak, berriz, baserri-bideetan 24.881 m eta mendi-bideetan 47.143 m, guztira 72.024 m; beraz garbitu beharreko bideen luzerarekiko, Bedaiokoek Tolosarekiko duten pisu erlatiboa % 14 inguruko izango litzateke.



1. Planoa: Bedaio	<ul style="list-style-type: none"> <li>Garbitu beharreko herri bideak</li> <li>— Baserri bideak</li> <li>— Mendi bideak</li> </ul>	Proiekzioa ETRS89 /UTM zone 30N Eskala: 1: 25000	<b>TOLOSAKO UDALA</b> 2025/07/28	 Tolosako Udala
-------------------	--	---	-------------------------------------	---

**(b) Lan edo zerbitzuak, urteak eta aurrekontuak**

Hurrengo taulako datuak, Bedaioko baserri eta mendi bideen garbiketa-lanen 2018tik 2025era arteko aurrekontuak dira.

1. Herribideen garbiketari dagokion 2018-2025 epealdiko gastu metatua:

Urtea / epea	Jarduera	Saila	Zenbatekoa (€)
2018	Herribide garbiketa	Hirigintza	2.013,34
2019	Herribide garbiketa	Hirigintza	3.995,11
2020	Herribide garbiketa	Hirigintza	3.995,11
2021–2023	Herribide garbiketa	Hirigintza	7.994,25
2023–2025	Herribide garbiketa	Hirigintza	7.994,25
2025	Herribide garbiketa (udazkeneko desbrozea)	Hirigintza	1.390,90
GUZTIRA (2018–2025):			25.992,06 €
<b>URTEKO BATEZ BESTEKOA (2018–2025):</b>			<b>3.249,00 €</b>

2. Herri-bideen garbiketari dagokion 2025eko kontratuaren arabera urteko batez besteko aurrekontua:

Bestalde, Tolosako Udalaren 2025SABI0005 espediente zenbakidun kontratuaren arabera, hurrengo 10 urteetarako esleitutako kontratuaren baitan Bedaioko baserri eta mendi-bideen garbiketari dagokion aurrekontua 59.000,00 €koa da, beraz **urteko batez bestekoa 5.900,00 €koa izango litzateke eta kopuru hori erabiltzea da egokiena, Bedaio auzoaren udalerrialdaketak etorkizunean Tolosako Udalean izango lukeen inpaktu ekonomikoa ebaluatzeko.**

3. Elurra kentzeko zerbitzua:

Urtea / Epea	Zerbitzua	Saila	Zenbatekoa (€)
2021–2025	Elurra kentzeko zerbitzua	Hirigintza	14.488,00 (urteko batez bestekoa: 2.897,60)
10 urte	Elurra kentzeko zerbitzuaren aseguruak	Kontratazioa	2.500,00 (urteko batez bestekoa: 250,00)
Elurra kentzeko zerbitzuaren urteko batez bestekoa (zerbitzua gehi aseguruak)			3.147,60 €

**(c) Urteko batez besteko aurrekontua**

Eraitza:

- » Herri bideen garbiketa (2025SABI0005 kontratuaren arabera): **5.900,00 € / urtean**
- » Elurra kentzeko zerbitzua: ..... **3.147,60 € / urtean**
- » **GUZTIRA: . 9.047,60 € / urtean** (2 ataletako urteko batez besteko gastu osoa.)

**(d) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrekiko, 210 artikuluekiko eta 14 – Landa garapena programarekiko pisu erlatiboa.**

Sailkapen ekonomikoaren arabera, “21- Konponketak, mantentzea eta artapena” artikuluko, “210 – Azpiegitura eta ondasun naturalak” kontzeptuko eta “14 – Landa garapena” programaren Tolosako Udalaren 2021etik 2025era arteko batez besteko aurrekontua 30.325,00 €koa da. Ondorioz, Bedaioko bideen garbiketari eta elurra kentzeari lotutako urteko 9.047,60 €-ko batez besteko gastuak, landa-garapeneko programari dagokion guztizkoaren %30 inguruko pisu erlatiboa du. Biztanleriaren ikuspegitik, gastu horrek 0,45 €/biztanle/urte inguruko inpaktua besterik ez du (20.000 biztanle inguruko udalerria kontuan hartuta).

**(e) Balorazio orokorra.**

**Bideen mantentze eta berritze lanekin batera, baserri bideen eta mendi bideen garbiketa lanak maiztasun egokiarekin eta behar bezala egitea funtsezkoa da Bedaiorako.** Aurreko atalean aztertutako obra txikien kasuan ez bezala, zerbitzu hauek urterokoak dira eta gastu egonkor gisa kontsideratu behar dira udal aurrekontuan. Ikuspegi ekonomiko orokorretik, gastu horrek ez du eragin negatibo adierazgarririk Tolosako Udalaren kaudimen ekonomikoan, ezta udalaren funtzionamendu- eta inbertsio-gaitasunean ere. Era berean, zerbitzu hori, Amezketako Udalak gaur egun egiten duen landa-bideen ohiko garbitze-lanekin guztiz uztargarria dela ere ondorioztatzen da.

### 3. Auzoko jaiak, azokak eta bestelako kultura eta aisialdi jarduerak

#### (a) Deskribapen orokorra

Atal honek Bedaioko auzoan azken urteetan egindako jai, kultura eta aisialdi jarduerak jasotzen ditu, bereziki “Kultura Plazara Bedaio” ekimenaren baitan antolatutako kultur ekitaldiak eta Tolosako Udaleko ingurumen sailetik kudeatutako Bedaioko azokari lotutako garraio gastuak eta zerbitzu osagarriak (komun publikoak). Aurrekoek gain, atal honi, gabonetako argiak jartzeko gastuak ere gehitu zaizkio.

#### (b) Zerbitzu-motak, urteak eta aurrekontuak

Hurrengo taulan zehaztu dira Kultura Plazara programaren baitan Bedaion 2021etik 2025era antolatutako jardueren gastuak.

Kultura Plazara Bedaio – azken urteetako ekitaldiak:

Urtea	Jarduera	Zenbatekoa (€)	Oharrak
2021	Alaitz Artula kontzertua	484,00 €	Ekipoaren kostua ez da identifikatu
2023	Mirua taldearen kontzertua	3.267,00 €	1.815 € (kontzertua, BEZa barne) + 1.452 € (ekipoa, BEZa barne)
2024	Grimm Anaien Parkea – familia emanaldia	1.210,00 €	BEZa barne
2025	Esti Markez kontzertua	5.358,00 €	3.180 € (kontzertua) + 2.178 € (ekipoa, BEZa barne)
Guztira (2021-2025)		10.319,00 €	
<b>Guztira Kultura Plazara urteko batez bestekoa (2021-2025)</b>		<b>2.063,80 €</b>	

Bestelako zerbitzu osagarriak:

Epea	Zerbitzua	Saila	Zenbatekoa (€)
2022–2025	Autobus zerbitzua – Bedaioko azoka	Ingurumena	2.010,00 € (urteko batez bestekoa: 502,50 €)
10 urte	Festetarako eta azokarako komun publikoak	Kontratazioa	10.760,00 € (urteko batez bestekoa: 1.076,00 €)
10 urte	Gabonetako argiak	Kontratazioa	1.500,00 € (urteko batez bestekoa: 150,00 €)
<b>Guztira bestelako zerbitzuen urteko batez bestekoa</b>			<b>1.728,50 €</b>

**(c) Urteko batez besteko aurrekontua**

**Kultura Plazara Bedaio**, urteko batez bestekoa: **2.063,80 € / urte**

**Bestelako zerbitzu osagarriak (autobus zerbitzua, komun publikoak eta gabonetako argiak):**  
**1.728,50 € / urte**

Bi multzoak batuta, Bedaioko jai, azoka eta kultura jardueri lotutako gastuen **urteko batez besteko orokorra** honakoa da:

» **Urteko batez bestekoa: .....3.792,30 €/ urtean**

**(d) Tolosako Udalaren aurrekontu osoarekiko pisu erlatiboa**

Tolosako Udalaren **338 – Herri jaiak eta ospakizunak** programaren **2025eko hasierako aurrekontua 823.218 €koa** da.

Datu horiekin alderatuta, Bedaioko kultura eta jai jardueri lotutako urteko batez besteko 3.792,30 € inguruko gastuak programa horren %0,4 inguruko pisua du.

**(e) Balorazio orokorra**

Jaiak, azokak, kultura eta aisialdiren alorrean, hiru aurrekontu-mota kontsidera daitezke azken urteetan sistematikoki errepikatu direnak: Bedaion egiten den azokarako ipintzen den autobus zerbitzuaren aurrekontua, Bedaion jartzen diren komun publikoen aurrekontua eta “Kultura Plazara Bedaio” programaren baitan antolatutako kultur emanaldiak kontratatuzera bideratutako aurrekontuak; eta aurrekontu guzti horien urteko batez bestekoa, 3.792,30 €koa da.

#### 4. Gizarte-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, prestazio ekonomikoak, sustapena)

##### (a) Deskribapen orokorra

Tolosako Udalak Bedaion ematen dituen gizarte-arloko zerbitzuei dagokienez, etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren balorazio ekonomikoa jasotzen da atal honetan, eta txosten hau idatzitako unean, Bedaioko familia bakar batek jasotzen du zerbitzu hori. Horrez gain, gizarte-arloko oinarrizko arreta zerbitzua ere jasotzen dute bedaiotarrek, baina zerbitzu horiek, Tolosako Udalaren gizarte-zerbitzuetako langileen bitartez kudeatzen dira, Tolosako Udalaren egiturazko funtzionamendu-gastu kontsideratzen dira, eta horrenbestez, gizarte-arrerako zerbitzuen Bedaiori dagokion balorazio ekonomikoa ez da kontuan hartu.

##### (b) Gizarte-zerbitzuen aurrekontuak

Zerbitzua	Erabiltzaileak / Kasuak	Zerbitzu-mota	Zenbatekoa (€)	Maiztasuna
Etxez etxeko laguntza	Erabiltzaile 1 azken 10 urteetan	Batez beste 200 ordu urteko	6.038 € / urte	Urte osoan zehar
Oinarrizko gizarte-zerbitzuen arreta	14 pertsona (espediente aktiboak edo historikoak)	Hitzorduak, balorazioak, deribazioak, jarraipenak eta izapideak egin	Ez dago zenbateko zehatzik esleituta	Urte osoan zehar

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kasuan, gaur egungo lizitazioaren arabera, Bedaioko erabiltzaile bakar batekin, urtean **6.038 euroko** gastu-aurrekontua sortzen da. Edonola ere kontuan hartu behar da, aurrekontu horren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen duela, eta horrez gain, erabiltzaileak ordaindu beharreko tasak ere jasotzen dituela Tolosako Udalak.

##### (c) Urteko batez besteko aurrekontua

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuak **6.038 € / urteko kostu zuzena** du, erabiltzaile bakarrari lotua.
- Gizarte-zerbitzu orokorrari (espedienteen kudeaketa, jarraipenak, balorazioak eta izapideak) ez zaio kostu ekonomiko zehatzik esleitzen, baina udal langileen dedikazio teknikoa eskatzen du.

Ondorioz, balorazio ekonomikoa egiteko Bedaioko gizarte-zerbitzuei lotutako **urteko batez besteko gastu zuzena 6.038,00 €koa da**, baina erabiltzaileak ordaindutako tasak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzak deskontatu gabe.

**(d) Tolosako Udalaren aurrekontu-egiturarekiko pisu erlatiboa**

Tolosako Udalaren “**Etkez etxeko plana**” kontratuaren:

- 2023 eta 2024ko batez besteko aurrekontu likidatua: **1.225.821 € / urte**
- 2025eko hasierako aurrekontua: **1.526.788 €**

Beraz, Bedaioko aurrekontuak (6.038 €) , Tolosako Udalaren 2025eko hasierako aurrekontu osoarekiko (1.526.788 €) duen pisua %0,49koa da.

**(e) Balorazio orokorra**

Bedaioko gizarte-zerbitzuei lotutako gastuak, eskala txikikoak, egonkorak eta kudeagarriak dira, eta udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, Amezketako Udalarentzat ere guztiz bideragarria izango litzateke Bedaion zerbitzu horiek ematea. Batetik, etkez-etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, lehendik ere Amezketako Udalak urtean 105 mila euro inguruko aurrekontua bideratzen du horretara; eta bestetik, gizarte-zerbitzuak bedaiotarrei ere emateko, gizarte-zerbitzuetako lantalde propio bat du Amezketako Udalak.

## 5. Ingurumena, landa garapena eta garapen soziokomunitariorako proiektuen sustapena

### (a) Deskribapen orokorra

Atal honek, auzoaren landa garapena eta dinamika soziokomunitariora bideratzen diren aurrekontuak jasotzen ditu. Esku-hartze horiek, nagusiki, **Artubi Elkarteari zuzendutako dirulaguntza** izendun bidez gauzatu dira, 2022tik aurrera, urtean 9.000,00 €ko dirulaguntza baten bitartez.

Aurrekoaz aparte, telekomunikazioen arloan, banda zabala ezartzeko dirulaguntza puntualak ere eman izan ditu Tolosako Udalak, ingurumen arlotik.

### (b) Dirulaguntzen urteak eta aurrekontuak:

#### → Artubi Elkarteari emandako dirulaguntza izendunak

Urtea	Hartzailea	Saila	Zenbatekoa (€)	Maiztasuna
2018	Artubi Elkartea	Ingurumena	6.000,00	Urtero
2019	Artubi Elkartea	Ingurumena	6.000,00	Urtero
2020	Artubi Elkartea	Ingurumena	3.093,22	Urtero
2021	Artubi Elkartea	Ingurumena	3.083,28	Urtero
2022	Artubi Elkartea	Ingurumena	9.000,00	Urtero
2023	Artubi Elkartea	Ingurumena	9.000,00	Urtero
2024	Artubi Elkartea	Ingurumena	9.000,00	Urtero
2025	Artubi Elkartea	Ingurumena	9.000,00	Urtero
<b>Urteko batez bestekoa (2022tik aurrera)</b>			<b>9.000,00</b>	

*Iturria: Tolosako Udala. Siadecok landua*

#### → Familientzako dirulaguntza (banda zabala):

Urtea	Hartzailea	Saila	Zenbatekoa (€)	Maiztasuna
2018	Familiak	Ingurumena	6.000,00 €	Puntuala
2021	Familiak	Ingurumena	4.021,60 €	Puntuala
<b>Urteko batez bestekoa (2018tik 2025era)</b>			<b>1.252,70 €</b>	

*Iturria: Tolosako Udala*

### (c) Urteko batez besteko aurrekontua (2022–2025)

2021 urtean Bedaiora bideratutako dirulaguntzak ezohikoak izan ziren, pandemiak eraginda: alde batetik, internet zerbitzuarekin lotuta, banda zabala ipintzeko dirulaguntzak eman ziren; eta bestetik, Artubi Elkartearen bitartez kudeatu ohi diren jardueretarako dirulaguntza, bai 2020koa, bai 2021ekoa (3.083 €), 2019koa baino txikiagoa (6.000,00 €) izan zen. Horregatik, Bedaiora bideratutako dirulaguntzen urteko batez bestekoa kalkulatzeko, 2022–2025 aldia hartu da kontuan, pandemia ondorengo azken 4 urteak hain zuzen ere.

Bestalde, internet-eko konexioa izateko gastuei aurre egiteko, 6.000,00 €ko dirulaguntza bat eman zien Tolosako Udalak Bedaioko familiei 2018an, eta 4.021,60 €ko beste bat 2021ean. 2018tik 2025era, arlo horretan emandako dirulaguntzen zenbateko osoa, 10.021,60 € izanik, azken 8 urteetako urteko batez bestekoa, 1.251,70 €koa izango litzateke.

Dirulaguntzen urteko batez bestekoa:

- » Artubi Elkartearen dirulaguntzaren urteko batez bestekoa: ....9.000,00 € / urte
- » Banda zabala jartzeko familiei emandako dirulaguntzak: .....1.251,70 € / urte
- » **Dirulaguntzak guztira: ..... 10.251,70 € / urte**

### (d) Tolosako Udalaren aurrekontu-egiturarekiko pisu erlatiboa

Artubi Elkarteari emandako dirulaguntza, Tolosako Udalaren aurrekontuetako “172-Ingurumenaren babesa eta hobekuntza” programan jasotzen da, eta “481- Transferentzia arruntak, irabazi-xederik gabeko erakundeei” kontzeptuan. Sailkapen funtzional eta ekonomiko horretako Tolosako Udalaren aurrekontuen urteko batez besteko likidatua, 24.342€koa izan da 2022tik 2024ra eta 2025eko aurrekontu onartua, 36.000 €koa izan da.

### (e) Balorazio orokorra

Tolosako Udalak Artubi Elkarteari emandako dirulaguntza, Bedaioko auzotarrek antolatutako urteko jarduera soziokultural, komunitario eta dinamizazio-jarduerak eragindako gastuak ordaintzera bideratzen da; hala nola, auzoko ekitaldiak, topaketak, kultur jarduerak, ingurumenarekin eta landa-ingurunearekin lotutako ekimenak, eta auzoaren bizitza komunitarioa sustatzeko bestelako jarduerak. Edonola ere, jarduera horien eta aldian behin auzotarrek egin behar izaten dituzten gastuak finantzatu ahal izateko, Tolosako Udalaren dirulaguntzaz aparte, ekitaldietako dirusarrerak eta auzotarren ekarpenak ere beharrezko dira.

Artubi Elkarteari emandako urteko 9.000 euroko dirulaguntza, Bedaioko dinamika soziokomunitario osoa hartzen duen eta Tolosako Udaletik Artubi elkarteak jasotzen duen ohiko dirulaguntza bakarra da. Dirulaguntza horrek ahalbidetzen du, auzo bertatik, urtean zehar antolatzen diren jarduera gehienak egitea, Tolosako Udalaren esku-hartze zuzen baten beharrik gabe.

Ikuspegi ekonomikotik, dirulaguntzaren zenbatekoa, egonkorra, aurreikusgarria eta neurrikoa da, Tolosako Udalaren aurrekontu-egituraren barruan pisu erlatibo mugatua du. Eta udalerrialdaketa gauzatuz gero, modu berdinean jarraitu daiteke, Amezketako Udalak Artubi elkarteari dirulaguntza bat emanda. Antzeko izaera duten hainbat hitzarmen baditu lehendik ere Amezketako Udalak Amezketako hainbat herri eragilerekin.

## 6. Ur-hornidura eta estolderia-zerbitzua

Landa eremu gehienetan gertatzen den bezala, **Bedaion ere ez dago euri-uren eta etxebizitzetako hondakin-uren bereizketa egiteko estolderia-sare publikorik**, ezta hondakin-uren bilketa zentralizaturik ere. Eta ur-hornidurarako sare publikoa ere ez da Bedaio auzora iristen; iturri propioak dituzte Bedaioko baserri eta etxebizitzek.

Ur-horniduraren sare publikoa iristen den Tolosako herrigunea eta auzoei dagokionez, Gipuzkoako Urak, S.A. erakundearen bidez kudeatzen du zerbitzu hori Tolosako Udalak.

Bestalde, Tolosako Udalak ur-saneamendu eta estolderia arloan dituen gastuak, “160 – Estolderia” programan biltzen dira, eta azken urteetako aurrekontu likidatuetan gora-behera handiak egon dira urte batetik bestera: 2021ean 9.033 €, 2022an berriz, 127.725 €, 2023an ez zen gasturik sortu, eta 2024an 32.099 €. Datu horiek erakusten dutena da, **esku-hartze puntualak** egin direla zenbait urtetan, eta beste zenbaitetan ez dela mantentze edo konponketa beharrik sortu.

## 7. Argiteria publikoa

### (a) Deskribapen orokorra

Bedaiko kasuan, erabilera publikoko argindar-gastuaren barruan sartu dira:

- Herriguneko **kale-argiteria (frontoikoa barne)**.
- **Abadetxe eraikineko argindarra**

### (b) Argindar-kontsumoaren gastuak

Tolosako Udaleko Hirigintza Sailak emandako informazioaren arabera, 2019tik 2025eko urrira bitarte, azken zazpi urteetako Bedaiko argindar kontsumoaren datuak honakoak dira:

→ **Erabilera publikoko Bedaio auzoko argindar-kontsumoaren aurrekontuak:**

Urtea	Gastu-mota	Zenbatekoa (€)
2019-2025 (urria)	Argiteria publikoa (frontoikoa barne)	11.343,98 € (urteko batez bestekoa: 1.660,00 €)
2019-2025 (urria)	Abadetxe eraikineko argindar kontsumoa	39.232,98 € (urteko batez bestekoa: 5.741,00 €)
Guztira (2019-2025ko urria)		50.576,96 €
<b>Guztira urteko batez bestekoa (2019-2025eko urria)</b>		<b>7.401,00 €</b>

### (c) Urteko batez besteko aurrekontua

2019tik –2025eko urrira arteko aldia hartuta (6 urte oso eta 10 hilabete), Bedaiko argiteria publikora bideratutako gastuen urteko batez bestekoa, **7.401,00 €koa da**.

### (d) Tolosako Udalaren aurrekontu-egiturarekiko pisu erlatiboa

Tolosako Udalak argiteria publikoko gastuak **165 – Kale Argiteria** programaren bidez kudeatzen ditu. Programa honen aurrekontu likidatuak honakoak izan dira (2021–2024):

Urtea	Aurrekontu likidatua (€)
2021	240.828,72
2022	358.783,70
2023	460.370,15
2024	321.451,63

» **2021–2024 aldiko batez bestekoa: ..... 345.358,55 €/ urtean**

Bedaiko argiteria publikoko gastuak %2 inguruko pisua du Tolosako Udalaren Kale Argiteriako aurrekontu osoarekiko.

#### **(e) Balorazio orokorra**

Urtean 1.660 € inguru, kale-argiteriari (frontoia barne) dagokion urteko gastu korrientearen kopurua ez da altua. Altuagoa da, Abadetxe eraikineko energia kontsumoaren gastua, 5 eta 6 mila euro urtean; kontuan hartu behar da ostalaritza-arloko erabilera izan duela eraikin horrek.

Edonola ere, eta udalerrri-aldaketa gauzatu gero, Bedaioko argiteria publikoko gastuak Amezketako Udalaren ohiko argiteria- eta eraikin publikoen kudeaketa-ereduaren barruan integragarriak lirateke.

### 8. Hondakinen bilketa eta kudeaketa

#### **(a) Zerbitzuaren arau-esparrua eta finantzaketa-printzipioa**

Hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatearen bitartez kudeatzen da eskualdeko udalerrri guztietan, baita Bedaio auzoan ere. Zerbitzu honen funtsezko ezaugarria da ordea, indarrean dagoen hondakinen araudi berriak hala ezarrita, zerbitzu horrek ezin diola defizitik eragin udalari.

Horren ondorioz, hondakinen bilketa eta kudeaketaren kostu osoa herritarrei kobratutako tasen bidez finantzatu behar da, eta udalek ezin dute zerbitzu horren defizita beren aurrekontu orokorren kontura estali. Printzipio hori derrigorrezkoa da, eta ez da udalaren borondatezko erabakia.

#### **(b) Udal-aurrekontuarekiko ondorioak**

Testuinguru horretan, hondakinen bilketa eta kudeaketari lotutako aurrekontu-datuak — Tolosako Udalarenak zein Amezketako Udalarenak— ez dira ekonomikoki baloratuko, Bedaioren udalerrri-aldaketak ez lukeelako inolako eragin ekonomikorik izango, ez Tolosako Udalaren aurrekontuetan, ez Amezketako Udalaren aurrekontuetan. Horrela, bideragarritasun ekonomikoaren azterketa hau egiteko, ez dira kontuan hartu, ez hondakinen bilketa eta kudeaketaren gastuak, ezta hondakinen tasa bidezko dirusarrerak ere, lege berriaren arabera, gastu horiek ez dutelako eragin zuzenik izan behar udalaren aurrekontu-orekan.

## 9. Hilerri-zerbitzua

### (a) Zerbitzu-mota

Tolosako Udalak, hilerrietako zerbitzua kanpo-kontratazio bidez ematen du, Tolosako hiru hilerrietan (San Blas, Aldaba eta Bedaio) eta zerbitzu kontratatuen barruan sartzen dira, besteak beste, honako eginkizun hauek:

- Hobiratze-lanak, lurrian, nitxoetan, panteoietan eta kolunbarioetan, bai eta hobiak irekitzeko eta ixteko lanak ere.
- Desobiratzeak eta gorpuzkien ateratzea, hezurak prestatzea eta dagokion lekura eramatea barne.
- Hilerrietako espazioen eta elementuen garbiketa eta mantentzea: nitxoak, panteoiak, hezurtegien guneak, kolunbarioak, pasabideak eta eremu komunak.
- Lorezaintza eta berdeguneen zaintza, belarra moztea, landareak eta zuhaitzak mantentzea barne.
- Instalazioen mantentze prebentiboa eta zuzentzailea, segurtasun-, irisgarritasun- eta osasun-baldintzak bermatzeko.
- Hilerrien irekiera- eta itxiera-ordutegien betetzea, bai eta zerbitzuaren jarraipena eta koordinazioa ere.
- Hileta-eskubideen kudeaketa ekonomikoa, tasen kobrantza, hileko likidazioak eta urteko txostenak egitea.
- Erregistro- eta dokumentazio-lana, ehorzketen erregistro digitala, hileko eta urteko txostenen bidez Udalari informazioa helaraziz.
- Materialen eta ekipamenduaren hornidura, zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den guztia enpresa adjudikaziodunaren kontura izanik.

### (b) Bedaioko hilerri-zerbitzuen aurrekontua eta urteko batez bestekoa

Tolosako Udalaren kontratazio zerbitzutik helarazitako informazioaren arabera, Tolosako Udalak kanpoko enpresa bati kontratatua daukan zerbitzu-esleipenaren arabera, Bedaioko hilerriari dagokion 10 urteko aurrekontua, 47.000,00 €koa da. Horrenbestez, urteko batez bestekoa, 4.700,00 €koa izango litzateke.

→ Bedaioko hilerriari dagokion zerbitzu-kontratuaren aurrekontua:

Urtea	Gastu-mota	Zenbatekoa (€)
10 urte	Hilerriko zerbitzuak	47.000,00 € (urteko batez bestekoa: 4.700,00 €)
<b>Guztira urteko batez bestekoa (indarrean dagoen zerbitzu-kontratua)</b>		<b>4.700,00 €</b>

### (c) Balorazio orokorra

Bedaioko hilerri-zerbitzua, kanpo-kontratazio bidez kudeatzen du Tolosako Udalak, zerbitzu horren urteko batez besteko kostua 4.700 €koa izanik. Amezketako Udalaren kasuan ordea, hilerri zerbitzuari lotutako gastu-aurrekonturik ez du udalak, hilerriko zerbitzuen kudeaketa, zerbitzu erabiltzaileek kontratatutako ehorzketa-zerbitzuetako enpresek egiten dutelako zuzenean, udalaren bitartekaritzarik gabe.

Udalerri-aldaketa gauzatuz gero, hasierako fase batean, egokiena litzateke hilerri-zerbitzua gaur egun zerbitzua ematen duen enpresa beraren bitartez ematen jarraitzea, kontratazio-eredua aldatu gabe, baina kostu ekonomikoa Amezketako Udalak bere gain hartuta. Irtenbide horrek aukera emango luke zerbitzuaren berehalako jarraikortasuna bermatzeko, udalerri-aldaketak zerbitzuaren funtzionamenduan aldaketarik edota etenik sortu ez dezan.

Bigarren fase batean, eta trantsizio ordenatu baten bidez, Amezketako Udalak aukera izango luke hilerri-zerbitzuaren kudeaketa bere udal-eredura pixkanaka egokitzeko, hau da, Amezketan indarrean dagoen praktikarekin bat etorritz, zerbitzuaren kudeaketa ehorzketa-zerbitzuetako enpresen bidez edo bestelako formula sinpleagoen bidez antolatuz.

Ikuspegi ekonomikotik, Bedaioko hilerri-zerbitzua eskala txikiko gastu-partida da, eta ez du eragin esanguratsurik ez Tolosako ez Amezketako Udalen kaudimen ekonomikoan.

## 10. Telekomunikazioak eta azpiegitura digitalak

### (a) Deskribapen orokorra

Bedaio auzoak arazo handiak ditu interneteko **estaldurarekin eta konexio digitaleko zerbitzuak eskuratzeko**. Arazo horri aurre egiteko, Tolosako Udalak hartutako neurriak bi izan dira:

1. **WiFi bidezko konexiorako antena bat jartzea**, herrigunean konektibitatea hobetzeko.
2. **Interneteko konexioaren urteroko gastua ordaintzea**.

Bi jarduera hauek Udaleko **Informatika Sailaren** bidez kudeatu dira.

### (b) Lan edo zerbitzuak, urteak eta aurrekontuak

→ **Egindako jarduerak eta aurrekontu-esleipenak**

Zerbitzua / Jarduera	Saila	Zenbatekoa (€)	Maiztasuna
Internet konexioa	Informatika	300 €	Urtero
WiFi antenaren instalazioa	Informatika	587,60 €	Eskuhartze puntuala

» **Guztira: ..... 887,60 €**

### (c) Urteko batez besteko aurrekontua

Azpiegitura digitaleko gastuei dagokienez:

- **Internet konexioaren urteko gastua: 300 €**
- **WiFi antena:** ez da urteko gastu errepikakorra; jarduketa puntual bakarra izan da.

Horrenbestez, urteko batez besteko gastua kalkulatzeko, internet konexioarena hartu da kontuan: 300,00 €/urtean.

## 11. Garraio publikoa

Bedaio duen garraio-zerbitzu publikoa, Tolosako Udalaren bitartez ez, baizik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen duen zerbitzua da. Zerbitzu hau Bedaioko auzotarren eskaera historiko baten ondorioz ezarri zen, eta Aldundiak bere gain hartu zuen zerbitzuaren kudeaketa eta finantzaketa.

Garraio-zerbitzu publiko hori, **Bedaio auzoaren eta Amezketako Ugarte auzoaren arteko garraio-zerbitzua izatera mugatzen da**, eta ondoren, Amezketara doan autobus zerbitzua erabili behar da, bai Amezketara aldera bai Alegi aldera desplazatzeko.

Garraio zerbitzu publiko hori Gipuzkoako Foru Aldundiarena denez, Tolosako Udalaren aurrekontuetan ez dago Bedaio auzoko garraio publikora zuzenduriko diru-partidarik.

## 6.1.2. Aldian behingo zerbitzu, herri lan eta inbertsioen balorazio ekonomikoa (B blokea)

12. Herrigunean zein baserri bideetan sortutako ustekabeko beharrei erantzuteko egin beharreko aldiari behingo konponketa-lan txikiak.

### (a) Deskribapen orokorra

Atal honetan jasotzen diren gastuak izaera puntualeko eta ustekabeko esku-hartzeei dagozkienak dira. Bedaioko herrigunean zein baserri-bideetan sortzen diren behar zehatzei eta aurrez aurrekusi ezin direnei erantzuteko egindako konponketa-lan txikiei lotuak. Ez dira mantentze-lan sistematikoak edo urteko plangintza baten baitan programatutako jarduerak.

Aztertutako epealdian (2018–2025), egindako esku-hartzeak, batez ere ur-hornidurako konponketa-lanak, bideetako hondoratze puntualak eta izandako luizien ondoriozko herri-lan txikiak izan dira. Jarduketa guzti horiek, bolumen txikikoak eta iraupen laburrekoak izan dira.

### (b) Ustekabeko beharrei erantzuteko egindako lanen urteak eta aurrekontuak

Urtea	Egindako lan edo jarduera	Saila	Zenbatekoa (€)
2018	Bedaion ur ihesa lokalizatu eta konpondu	Hirigintza	375,22
2018	Jazku baserriko herribidean hondoratua konpondu	Hirigintza	917,63
2018	Zumizketa baserriko herribidean hondoratua konpondu	Hirigintza	2.807,80
2018	Udal jabetzeko eraikinerako doan ur hornidura sarearen kanalizazioa konpondu	Hirigintza	616,95
2021	Bedaion luizia kentzeko kamioia	Hirigintza	157,30
2022			0,00
2023			0,00
2024			0,00
2025			0,00
		<b>GUZTIRA (2018–2025):</b>	<b>4.874,90 €</b>
		<b>URTEKO BATEZ BESTEKOA (2018–2025):</b>	<b>609,36 €</b>

### (c) Ezusteko beharrei erantzuteko egindako lanen urteko batez besteko aurrekontua

Aztertutako aldia 2018tik 2025era bitartekoa denez (8 urte), eta urte guzti horietako aurrekontu-metaturia 4.874,90 € denez, **aldian behingo urgentziarako obra txikien urteko batez besteko aurrekontua, 609,36€koa da.**

**(d) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrarekiko, 210 artikuluekiko eta biztanleko pisu erlatiboa**

Obra txiki hauek inpaktu ekonomiko oso txikia dute bai Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrean, bai sailkapen ekonomikoaren arabera **210 artikuluan – Azpiegitura eta ondasun naturalak** kontzeptuan ere.

Tolosako Udalak, 210 artikuluan, azken hamarkadan, 150.000 eta 330.000 euro artean likidatu izan ditu, eta urte batetik bestera aldaketa handiekin. Horren aurrean, Bedaioko obra txikietara azken 8 urteetan bideratutako 609,36 €ko batez besteko, oso kopuru baxua da.

**(e) Balorazio orokorra**

Aztertutako epe osoan (2018–2025) metatutako gastua oso mugatua izan da, urteko 609,36 €ko batez bestekoarekin, eta horrek adierazten du gastu-mota honek ez duela eragin esanguratsurik Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrean. Edozein udalerritan, eta bereziki landa-inguruneetan, noizbehinka sortzen diren ustekabeko egoerei lotutako gastu arrunt gisa kontsideratu beharreko gastuak dira. Balizko udalerrri-aldaketa emango balitz, Amezketako Udalaren ohiko mantentze-eta konponketa lan txikiekin guztiz uztartzen diren lan motak dira, inolako antolaketa-arazorik sortuko ez luketeenak.

13. Herriguneko espazio publikoak edota baserri bideak berritzeko egindako lanak (zuloak estaltzea, zolaketa-lanak).

**(a) Deskribapen orokorra**

Atal honek Bedaioko herriguneko espazio publikoetan eta baserri-bideetan egindako konponketa eta berritze lan puntualak jasotzen ditu, bereziki zuloak estaltzeko, zoladura hondatuak berritzeko eta bide-zati zehatzak egokitzeko egin diren esku-hartzeak. Lan horiek, bere izaeragatik, aldian behingo inbertsio txiki gisa ulertu behar dira, eta ohikoak dira landa-ingurunea duten udalerrri edo auzoetan, non bideen erabilerak, eguraldiak eta denboraren joanak hondatze progresiboa eragiten duten.

**(b) Herri bideetan egindako lanen urteak eta aurrekontuak**

→ **Egindako lanak eta aurrekontu-esleipenak**

Bedaioko bideetan egindako konponketa eta berritze lanei dagokienez, Tolosako Udalak helarazitako informazioaren arabera, honako esku-hartzeak identifikatu dira:

Urtea	Egindako lan edo jarduera	Saila	Zenbatekoa (€)
2017	Autobusa jiratzeko errepidea egokitzea	Hirigintza	1.379,40
2018	Landa auzoetan oinezko ibilbide berrien diseinu-azterketa	Ingurumena	6.050,00
2019			0,00
2020	Parkeen mantenu-lanak		2.563,00
2021			0,00
2022	Bedaioko hainbat landa-bide konpontzeko memoria baloratua	Hirigintza	1.210,00
2022	Gurbilaundiko bidegurutzearen hobekuntza lanak	Hirigintza	4.809,37
2024			0,00
2025			0,00
2025	Illorreta baserriko bidea konpontzea	Hirigintza	876,65
GUZTIRA (2017–2025):			16.888,42 €
URTEKO BATEZ BESTEKOA (2017-2025)			1.876,49 €

**(c) Urteko batez besteko aurrekontua**

Aztertutako epealdia 2017–2025 bitartekoa izanik (9 urte), eta esku-hartzeak puntualak izan direla kontuan hartuta, Bedaioko bideen konponketa eta berritze lanetara bideratutako urteko batez besteko gastua, **1.876,49 €koa da.**

**(d) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorrarekiko, 21 artikulurekiko eta 14 – Landa garapena programarekiko pisu erlatiboa**

Aurrez azaldu bezala, sailkapen ekonomikoaren arabera, “21 – Konponketak, mantentzea eta artapena” artikuluko, “210 – Azpiegitura eta ondasun naturalak” kontzeptuko eta “14 – Landa garapena” programaren Tolosako Udalaren 2021etik 2025era arteko urteko batez besteko aurrekontua **30.325,00 €-koa** da. Bedaioko bideen konponketa eta berritze lanetara bideratutako urteko **1.976,49 €-ko batez besteko gastuak** aipatutako programaren guztizkoaren %4–5 inguruko pisu erlatiboa du.

**(e) Balorazio orokorra**

**Herri eta baserri bideen konponketa eta berritze lanak egitea oso garrantzitsua da bedaiotarrentzat,** irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko, eta bereziki bideen egoera gero eta degradatuagoa dela kontuan hartuta.

**Etorkizunera** begira, eta udalerrri-aldaketaren testuinguru posiblea kontuan hartuta, komenigarria izan daiteke bideen konponketa eta berritze lanetan ikuspegi estrategikoago baterantz jotzea, epe ertainera, bide-sarearen egoera hobetzeko plangintza bat eginda. Udalerrri-aldaketarekin, sortzen diren beharren arabera, Amezketako Udalak Bedaion ere egin beharreko inbertsioak izango dira, lehendik dituen inbertsio-beharrei gehitu beharrekoak. Txosten honen hurrengo atal batean aztertu da Bedaioren udalerrri-aldaketarekin Amezketako Udalaren inbertsio-ahalmena handitu egingo dela eta gehikuntza hori nahiko izango dela Bedaion sortzen diren inbertsio-beharrei erantzun egoki bat emateko.

## 14. Udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegituretan egindako inbertsioak.

### (a) Deskribapen orokorra

Atal honek Bedaioko udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegituretan egindako inbertsio nagusiak jasotzen ditu. Horiez gain, beste atal berri bat gehitu gabe, hemen gehitu ditugu beste bi ikerketa hauek ere: lehena, bedaiotarren eskaera bati erantzunez, Tolosako Udalak enkargatuta Hiritik At enpresak egindakoa; 2021ean egin zen azterlan hori, Bedaioko ekipamendu-beharrak, hirigintza-beharrak eta gobernantza-eredua aztertzeko. Eta bigarrena, Tolosako Udalaren AuzoEkin egitasmoa da, Tolosako auzoen garapen integrala sustatzeko sortua, eta beraz, Bedaio auzoa ere barne hartzen du egitasmo horrek. Aurrekontuei dagokienez, 2021ean Bedaiorako bakarrik egindako Hiritik At enpresaren aurrekontuaren informazioa eskuratu da, baina Auzoekin egitasmoarena ez.

Aztertutako epealdian, Tolosako Udalak urte jakin batzuetan kontzentratutako inbertsio esanguratsuak egin ditu Bedaioko ekipamendu publikoetan, bereziki oinarrizko zerbitzuei lotutako azpiegituretan (ur-hornidura, bideak, berokuntza-sistemak), erabilera publikoko eraikinetan (taberna-merenderoa, Abadetxe baserria) eta espazio publikoen hobekuntzan (kaleen berrurbanizazioa, frontoiaren ingurunea).

### (b) Inbertsioak egindako urteak eta aurrekontuak

Tolosako Udaleko Kontratazio Sailak eta Hirigintza Sailak, 2010 urtetik 2025era Bedaion egindako hurrengo taulako inbertsioak zerrendatu dituzte:

Urtea	Jarduera	Saila	Zenbatekoa (€)
2010	2 ur depositu, kanalizazioa, hormigoia, balbulak, obra-zibila	Kontratazioa	60.000,00
2010	Edateko-ura 3 baserriarako (orain Ur Kontsortzioa)	Kontratazioa	60.000,00
		Kontratazioa	30.000,00
2010	Eskola-etxetik herrigunera arteko bidea konpontzea	Kontratazioa	111.555,10
2010	Taberna-merenderoaren egokitze-lanak, bilera-gune gisa erabiltzeko	Kontratazioa	12.937,80
2011	Abadetxe baserrian pellet bidezko berokuntza-sistema berria instalatzea	Kontratazioa	280.082,80
2013-2016	Abadetxe baserriaren sendotze eta lurreztatze obra: kontratazioa eta exekuzioa	Hirigintza	163.634,20
2018	Bedaioko frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko obra (2018OASI0004)	Hirigintza	17.666,00
2021	Bedaioko Auzo Plana (Hiritik At Kooperatiba)		Informaziorik ez
2025	AuzoEkin egitasmoa		Informaziorik ez
Bedaion egindako inbertsioen guztirakoa (2010-2025)			735.875,90 €
<b>Bedaion 2010-2025 epealdian egindako inbertsioen batez besteko urteko aurrekontua</b>			<b>45.992,24 €</b>

### (c) Urteko batez besteko aurrekontua

2010etik 2025era, 16 urte horietan Bedaion egindako inbertsioen guztirakoa 735.875,90 € dela jakinda, **inbertsioetarako kalkulaturako urteko batez bestekoa, 45.992,24 €koa da.** Azken kopuru hau ez da urtez-urteko gastu erregular bat, baizik eta 2010etik 2025era, urte guzti horietan Bedaion egindako inbertsioen urteko batez besteko bat.

### (d) Tolosako Udalaren aurrekontu-egiturarekiko pisu erlatiboa

Testuinguru ekonomiko zabalagoan kokatzeko, kontuan hartu da:

- Tolosako Udalaren **601 – Azpiegitura eta urbanizazioa** kontzeptuaren urteko batez besteko aurrekontua 846.965 € izan dela 2015–2024 aldian, eta 2025erako hasierako aurrekontua 1.075.000 €koa dela. Bedaioko lan hauen urteko batez besteko inbertsioak (45.992,24 €) kontzeptu honen %4 inguruko pisua du.

### (e) Balorazio orokorra

Bedaioko udal eta erabilera publikoko eraikinetan egindako konponketa eta berritze lanek erakusten dute, **Tolosako Udalak une jakin batzuetan inbertsio handiak egin dituela auzoko azpiegiturak sendotzeko eta egokitzeko; esku-hartze horiek, behar puntualei erantzuteko jarduerak izan dira.** Hirigintza edo azpiegitura-mailako inbertsioetatik aparte, auzoaren beharrak aztertzeke ikerketak ere egin dira, Tolosako Udalak finantzatuta.

Tolosa udalerrri osoa hartuta Tolosako Udalak azpiegitura eta urbanizazioetan egindako inbertsioekiko zati txikia hartzen du Bedaiok; aldiz, landa garapenari lotutako inbertsio-programak bakarrik hartzen badira, pisu askoz ere handiagoa dute Bedaioen egindako inbertsioen aurrekontuek.

Udalerrri-aldaketaren testuinguruan, Bedaioen etorkizuneko mantentze eta berritze beharrak Amezketaren inbertsio-plangintzan modu antolatuan eta aurreikusgarrian txertatzea izango litzateke gomendagarriena.

**Etxebizitzen sustapena:**

Bestalde, eta Tolosako Udalaren informazioaren arabera, azken urteetan ez da Bedaiorako etxebizitza sustapenik planifikatu, ez gauzatu, ezta horretarako diru-partida espezifikorik bideratu ere.

Tolosako Udalaren aurrekontuak aztertuta, 152 – Etxebizitza programaren 2022–2024 aldiko urteko batez besteko aurrekontu likidatua 412.586 €koa izan da, eta 2025eko hasierako aurrekontua 502.000 €koa da.

### 6.1.3. Bedaioko ohiko udal zerbitzuen eta azken urteetako inbertsioen urteko batez bestekoaren balorazio orokorra

Aurreko azpi-ataletan egindako azterketa ekonomiko xehatuaren emaitza orokorra bildu da jarraian. Bedaioko auzoan ematen diren udal zerbitzuen eta egindako inbertsioen urteko batez besteko inpaktu ekonomikoa modu argi eta ulergarrian aurkezteko. Horretarako, aztertutako gastu-motak bi bloketan sailkatu dira: alde batetik, ohiko funtzionamenduari loturiko zerbitzu jarraiak (A blokea), urtero aurrekontu egonkorra eskatzen dutenak; eta bestetik, aldian behin egin beharreko konponketa-lan eta inbertsioak (B blokea), izaera ez-erregularrekoak eta urte jakin batzuetan kontzentratzen direnak.

Ondoko taulan jasotzen da azpi-atal bakoitzerako kalkulaturako urteko batez besteko aurrekontua, ikuspegi agregatu bat eskainiz eta udalerrri-aldaketaren testuinguruan.

#### A BLOKEA – Ohiko funtzionamenduari lotutako zerbitzu jarraiak

Zk.	Zerbitzua	Urteko batez bestekoa (€)	Oharrak
1	Herriguneko espazio publikoen eta berdeguneen ohiko garbiketa-lanak	3.000,00 €	Jai garaian egiten den garbiketa; estimazioa
2	Herri, baserri eta baso-bideen ohiko garbiketa + elurra kentzea	9.047,60 €	Kontratu berria + aseguruak
3	Jaiak, azokak eta kultura-aisialdi jarduerak	3.792,30 €	Kultura Plazara + autobusak + komun publikoak
4	Gizarte-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza)	6.038,00 €	Erabiltzaile bakarra; GFAK kofinantzatua
5	Ingurumena eta landa/garapen soziokomunitarioa (Artubi + banda zabala)	10.251,70 €	Artubi da finantzaketa-iturri nagusia
6	Ur-hornidura eta estolderia	0,00 €	Ez dago sare publikorik Bedaion
7	Argiteria publikoa eta Abadetxe eraikina	7.401,00 €	Gastu egonkorra
8	Hondakinen bilketa eta kudeaketa	0,00 €	Tasa bidez %100 finantzatua (legez)
9	Hilerri-zerbitzua	4.700,00 €	Kanpo-kontratazio bidez
10	Telekomunikazioak eta azpiegitura digitalak	300,00 €	Internet konexioa
11	Garraio publikoa	0,00 €	Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatua
<b>Ohiko funtzionamendu gastuen urteko batez bestekoa GUZTIRA (A blokea)</b>		<b>44. 530,60 € urtean</b>	

## B BLOKEA – Aldian behingo herri-lan eta inbertsioak

Zk.	Zerbitzua	Urteko batez bestekoa (€)	Oharrak
12	Herrigunean zein baserri-bideetan sortutako ustekabeko beharrei erantzuteko aldian behingo konponketa-lan txikiak	609,36 €	Ur-ihesak, errepide-hondoratzeak, luiziak; esku-hartze puntualak
13	Herriguneko espazio publikoak edota baserri-bideak berritzeko egindako lanak (zuloak estaltzea, zolaketa-lanak)	1.876,49 €	Bide-zati zehatzetako konponketa eta berritze puntualak
14	Udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegituretan egindako inbertsioak	45.992,24 €	Inbertsio handien batez besteko estatistikoa; ez gastu erregularra
<b>Bedaion egindako aldian behingo inbertsioen urteko batez bestekoa GUZTIRA (B blokea)</b>		<b>48.478,09 €</b>	

Bi blokeak batera hartuta, Bedaioko udal zerbitzuen eta inbertsioen urteko batez besteko kostu ekonomiko osoa 93.008,69 €koa da.

### Bedaioko gastuen pisu erlatiboa Tolosako Udalaren aurrekontuaren aurrean:

Tolosako Udalaren aurrekontu osoaren eboluzioa honakoa da (likidatuak + 2025 aurrekontu onartua):

Urtea	Aurrekontu osoa (€)
2021	25.869.760 €
2022	30.049.149 €
2023	31.849.357 €
2024	32.253.730 €
2025	39.198.600 €

Azken urteetan Tolosako Udalaren aurrekontuak hazkunde nabarmena izan du. 2021eko 25,87 milioi euroko aurrekontu likidatutik abiatuta, 2024an 32,25 milioi eurora iritsi da, eta 2025erako onartutako aurrekontuak jauzi nabarmena erakusten du, 39,20 milioi eurora, aurreko urtearekiko %21 inguruko igoerarekin.

Testuinguru horretan, Bedaioko auzoari lotutako A blokeko ohiko funtzionamendu-gastuek (44.530,60 € urtean) eta B blokeko aldian behingo lan eta inbertsioek (batez beste 48.478,09 € urteko) oso pisu txikia dute Tolosako Udalaren aurrekontu osoarekiko. Bi blokeak batera hartuta ere, 2025eko aurrekontu onartuarekiko duten pisua %0,25etik beherakoa da.

Ondorioztatzen dena da, eta betiere Tolosako Udalaren funtzionamendu gastu orokorren gastuak eta Tolosako Udalak udalerrri osorako ematen dituen bestelako gastuak ere kontuan hartu gabe, txosten honetan kalkulaturako Bedaioko zerbitzuen aurrekontuak Tolosako Udalaren aurrekontu osoaren zati oso txikia hartzen duela (% 0,25etik beherakoa), eta beraz, Bedaioren udalerrialdaketak ez lukeela eragin esanguratsurik izango udalaren hurrengo urteetako aurrekontu-bilakaeran.

## 6.2. Bedaio auzoari dagozkien Tolosako Udalaren aurrekontuetako sarrerak

Atal honen helburua da Bedaioko auzotarrei dagozkien Tolosako Udalaren sarrerak kuantifikatzea, bai kontzeptu espezifikoetan oinarritutako datu errealen bidez (Tolosako Udalak emandakoak), bai ratio demografikoetan oinarritutako estimazioen bidez. Bedaiok 97 biztanle ditu (2024), eta horrek Tolosako populazio osoaren %0,48 osatzen du. Pisu demografiko hori izan da zenbait kontzepturen estimazioa egiteko erabilitako erreferentzia nagusia.

Hurrengo taulan jaso dira Bedaio auzoari dagozkien Tolosako Udalaren sarrera nagusien datuak.

**22. taula.** Bedaioko auzotarrei dagozkien Tolosako Udalaren aurrekontuko sarrera-kontzeptu nagusien zenbatekoak

Sarrera kontzeptua	Deskribapena	Tolosako Udalaren batez bestekoa (2021–2025)	Bedaio (zenbatekoa)	Oharra	% (Bedaio / Tolosa)
112	OHZ – Hiri eta landa ogasunen gaineko zerga	4.130.478,86 €	13.066,52 €	Tolosako Udalak 2026rako egindako aurreikuspena da	0,32
113	Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	1.393.809,52 €	13.874,26 €	Tolosako Udalak 2026rako egindako aurreikuspena da	1,00
114	Hiri-lurren balio gehitzearen gaineko zerga	468.888,87 €	0 €	Bedaiok ez du azken urteetan transmisio higiezinik izan	0,00
130	Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga (JEZ)	360.059,03 €	0 €	Auzoko jarduera ekonomikoak ez dira JEZ kobratzeko jardueramailara iristen	0,00
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	602.090,13 €	1.500,00 €	Biztanle-ratioaren bidez egindako estimazioaren erdia aplikatu da Bedaiokoa aurreikusteko	0,25
310	Etxez etxeko laguntza	157.433,18 €	759,41 €	Biztanle-ratioaren arabera egindako estimazioa	0,48
310	Zabor bilketa			Ez dira kontuan hartu, gastuen balorazio ekonomikorako ere ez direlako kontuan hartu	
420	Zerga itunduetako partaidetza	16.464.832,95 €	92.150,00 €	~950 €/biztanle (Tolosako Udalak proposatutako ratioa)	0,56
GUZTIRA	—	23.577.592,54 €	121.350,19 €	—	0,49

**Bedaiori dagozkion Tolosako Udalaren sarrera-aurrekontuen ondorio nagusiak:**

**Kalkulatutako Bedaio auzoari dagozkion urteko udal-sarreraren zenbateko osoa, 121.350,19€koa da.** Aztertutako datuek erakusten dute Bedaioko auzotarrek sortzen dituzten Tolosako Udalaren diru-sarrerak, auzoak udalerriko biztanlerian duen pisu demografikoarekin bat datozela. Izan ere, Bedaiok 2024an dituen 97 biztanlek Tolosako populazio osoaren %0,48 osatzen dute, eta aztertutako sarrera-kontzeptu nagusietan Bedaiori egotzitako diru-sarreraren pisua %0,49koa da.

Sarrera-iturri nagusia, alde handiz, zerga itunduen bidezko finantzaketa da (420 kontzeptua), Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez jasotzen dena. Kontzeptu horrek Bedaiori egotzitako sarreraren %75 inguru ordezkutzen du.

### 6.3. Bedaio Amezketako auzo izatearen eragina Tolosako Udalaren aurrekontuetan

Atal honen helburua da Bedaioren udalerrri-aldaketak Tolosako Udalarengan izango lukeen eragin ekonomikoa kuantifikatzea. Horretarako, aurreko ataletan egindako alde biko azterketaren emaitzak ekarri dira hona:

1. **Tolosaren gastuak zenbat murriztuko liratekeen** Bedaio Amezketako auzo izatera pasako balitz: Tolosako Udalaren gastu-aurrekontuan, urtean **93.008,69 € murriztuko litzateke** (aurreko “6.1.3” atalak jasotzen du informazio zehatzagoa).
2. **Tolosako Udalaren sarrerak zenbat murriztuko liratekeen:** “6.2” atalean zehaztu bezala, Tolosako Udalaren diru sarreretan, Bedaioko auzotarrei dagokiena, **121.350,19 € dira da urtean.**

#### ONDORIOAK

- **Tolosak urtean 28.341,50 € galduko lituzke,** hau da, gastuak murriztuko badira ere, diru-sarreraren jaitsiera handiagoa izango litzateke.
- Bedaio galtzeak Tolosari ekarriko liokeen 28.341 €ko galera, Tolosako Udalaren azken 5 urteetako sarreraren % **0,10 baino gutxiago da.**
- Horrenbestez, ikuspegi ekonomiko hutsetik, eta 2/2003 Foru Arauaren 11. artikulua exijitzen duen “kaudimen ekonomikoaren mantentzea” kontuan hartuta, Bedaio auzoa Amezketakoa izateak, **Tolosako Udalaren kaudimen ekonomikoan ez du inolako arrisku eta eragin kaltegarrikerik eragingo.**

## 6.4. Bedaioko ohiko udal zerbitzuen balorazio ekonomikoa Amezketako Udalaren ikuspegitik (A blokea)

Azpi-atal honen helburua da, gaur egun Tolosako Udalak Bedaion ematen dituen ohiko funtzionamenduari lotutako zerbitzu jarraiak (A blokea) Amezketako Udalaren antolaketa-, kudeaketa- eta aurrekontu-ereduaren barruan nola integratuko lirartekeen aztertzea.

Horretarako, Amezketako Udalak gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuen kudeaketa-ereduak, baliabide propioak, kanpo-kontratazioak eta azken urteetako aurrekontuak hartu dira erreferentziazat, eta horien arabera baloratu da Bedaioko zerbitzuen bideragarritasun ekonomikoa.

### 1. Herriguneko espazio publikoen, berdeguneen eta eraikin publikoen ohiko garbiketa-lanak

#### (a) Azalpen orokorrak

Amezketako Udalaren antolaketa-ereduan, espazio publikoen eta berdeguneen ohiko garbiketa eta mantentze-lanak, bi esku-hartze osagarriren bidez ematen dira: alde batetik, berdeguneen eta lorezaintzaren mantentzea kanpo-enpresa espezializatu baten bidez; eta bestetik, espazio publikoen oinarrizko garbiketa-lanak udal bertako langileen bitartez.

Berdeguneen zaintzaren kasuan, XiriMiri enpresarekin egindako kontsulten arabera, hilean behingo mantentze-eredua lehenetsi da, urtean zehar gutxieneko jarraikortasuna eta egoera egokia bermatzen duelako. Espazio publikoen garbiketari dagokionez, udaleko bi alguazilek hiru astean behin egiten dute esku-hartzearen balorazio ekonomikoa egin da.

#### (b) Urteko batez besteko aurrekontua (Amezketako Udalaren ereduan):

Bedaioko espazio publikoen eta berdeguneen ohiko garbiketari lotutako urteko kostuaren estimazioa honako hau da:

- Lorezaintza eta berdeguneen mantentzea (XiriMiri enpresa): Hileko 100 € + BEZa aplikatuta, 1.452 € / urtean.
- Espazio publikoen garbiketa (udaleko langileek):

Ugarte auzoan aplikatutako eredua erreferentzia gisa hartuta: 3 astean behin, urtean guztira 104 lan-ordu, urte osoko lanaren balorazioa, orduaren kostua 25,27 € izanik: 2.628 € / urtean.

**GUZTIRA – urteko batez besteko kostua: 4.080 € / urtean**

**(c) Balorazio orokorra:**

Amezketako Udalaren eredian oinarritutako antolaketa honek aukera ematen du Bedaioko espazio publikoen eta berdeguneen mantentzea modu egonkor, sinple eta ekonomikoki bideragarrian bermatzeko. Lorezaintzari dagokionez, hilean behingo mantentze-ereduak jarraikortasuna ematen dio zerbitzuari, eta urteko esku-hartze puntual bakarraren aldean, zerbitzu hobea eskaintzen du. Eta garbiketa lanak ere, urtean zehar, maiztasun handiagorekin egingo lirateke.

2. Herri, baseri edo baso-bideen ohiko garbiketa-lanak

**(a) Azalpen orokorra**

Amezketako Udalak baseri- eta mendi-bideen ohiko garbiketa eta mantentze-lanak kanpo-kontratazio bidez egiten ditu, Zuzitza E.Z. enpresaren bitartez. Amezketako udalerrian guztira 28 km baseri-bide eta 9 km mendi-bide daude, eta sare horren mantentzea urteroko zerbitzu egonkor gisa kudeatzen da, sortzen diren beharren arabera maiztasuna eta intentsitatea egokituz.

Bedaioko kasuan, udalerrri-aldaketa gauzatu gero, zerbitzu hau Amezketako egungo kontratuaren baitan integratzea aurreikusten da, bideen luzera eta erabilera-mailara egokitutako kostu proportzional baten bidez.

**(b) Amezketako azken urteetako kostu errealak:**

Amezketako Udalak 2018tik 2025era bitartean baseri- eta mendi-bideen ohiko garbiketa-lanetara, **urtean batez beste 6.999,85 €** bideratu ditu. Zenbateko horrek Amezketako udalerriko **37 km-ko bide-sare osoari** dagozkion mantentze- eta garbiketa-lanak barne hartzen ditu.

Bestalde, elurra kentzeko zerbitzuaren gastua 435,60 €koa izan zen 2023an; gainerako azken urteetan ez da zerbitzu horren beharrik izan, ez duelako elurrik egin.

**(c) Bedaiorako zerbitzuaren balorazio ekonomikoa:**

Bedaiok 10 km inguruko baserri- eta mendi-bide-sarea du. Amezketako egungo kostu-egitura eta bideen luzerarekiko proportzioa aplikatuta, honako kalkulua egiten da:

- Amezketako ohiko garbiketaren urteko batez bestekoa: 6.999,85 €
- Amezketako bide-sarea guztira: 37 km
- Kostua kilometroko (gutxi gorabehera): 189 € / km / urte
- Bedaioko bide-sarea: 10 km
- **Ondorioz, Bedaioko baserri- eta mendi-bideen ohiko garbiketa-lanetarako urtean 1.892 € inguruko kostu gehigarria beharko litzateke.**

**Elurra kentzeko zerbitzuari dagokionez**, 2023ko datua erreferentziazat hartuta (435,60 € urtean), eta Bedaioko bide-sarearen proportzioa aplikatuta, gastu hori ere Amezketako zerbitzuaren barruan integragarria litzateke, eta **urtean beste 435,60 €ko aurrekontua aurreikusi da horretarako.**

**(d) Balorazio orokorra**

Bedaioko 10 km-ko bide-sarea Amezketara integratzeak ez luke zailtasun teknikorik edo antolaketa-arazorik sortuko, eta ikuspegi ekonomikotik, 1.892 € inguruko urteko kostu gehigarria, eta noizbehinka elurra kentzeko gastu osagarria (beste 435,60 €), **gutziz bideragarriak izango lirateke Amezketa Udalarentzat, urtean guztira, 2.327,60 €.**

### 3. Auzoko jaiak, azokak eta bestelako kultura eta aisialdi jarduerak

#### (a) Azalpen orokorra

Udalaren aurrekontuetan, kultura eta jaietarako **oinarrizko partida 60.000 €ko zuzkiduratik** abiatzen da, baina azken urteetan, antolatutako jardueren bolumena eta intentsitatea handitu direnez, **100.000 €tik gorako gastu-mailara** iritsi da. Gastu horiek barne hartzen dituzte jaietako egitarauak, kultur emanaldiak, aisialdi-jarduerak, azpiegitura osagarriak eta beharrezko zerbitzu logistikoak.

Udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, Bedaioko jai, azoka eta kultura-jarduerak **Amezketako kultura eta jaietako egitura orokorraren barruan** txertatuko lirateke, udalaren ohiko antolaketa- eta finantzaketa-eredua aplikatuz.

#### (b) Bedaiorako balorazio ekonomikoa

Bedaioko kasuan, Tolosako Udalak azken urteetan kalkulaturako jai, azoka eta kultura-jardueren urteko batez besteko kostua **3.792,30 €koa** izan da. Kopuru horrek barne hartzen ditu:

- “Kultura Plazara” programaren baitako emanaldiak,
- Azokari lotutako autobus-zerbitzua,
- Komun publikoak eta bestelako zerbitzu osagarriak.

Amezketako Udalaren aurrekontu-eskala kontuan hartuta (60.000–100.000 € urtean), Bedaioko jarduerari lotutako **4.000 € inguruko urteko kostua, guztiz bideragarria izango litzateke Amezketako Udalarentzat eta ez luke aurrekontu-doikuntza esanguratsurik eskatuko.**

#### 4. Gizarte-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, prestazio ekonomikoak, sustapena)

##### (a) Azalpen orokorra

Amezketako Udalaren gizarte-zerbitzuetako lantaldea honako hauek osatzen dute: gizarte-langilea, gizarte-zerbitzuetako administrari-laguntzailea eta esku-hartze soziokomunitarioko teknikaria. Zerbitzuen artean, **etxez etxeko laguntza** da aurrekontu-pisu handiena duen zerbitzua, eta horrez gain, oinarrizko gizarte-arreta, prestazio ekonomikoen kudeaketa eta adinekoei zuzendutako jarduera sozial eta prebentiboak eskaintzen dira.

Bedaioko auzoa Amezketako udalerrira eransteak gizarte-zerbitzuen eskariaren **hazkundera eragingo** luke, baina eskala txikikoa, eta egungo egitura teknikoaren bitartez eman daitekeena.

##### (b) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren aurrekontua

Amezketako Udalean, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren 2025eko **kostu gordina** 103.477,28 €koa da. Zerbitzu horren finantzaketa honela banatzen da:

- %31,73 Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenaren bidez,
- %20,20 erabiltzaileen tasen bidez,
- gainerakoa Amezketako Udalaren ekarpen propioa izanik.

Udalaren **kostu garbia** (finantzaketa kenduta) 49.855,93 €koa da. Bedaioren integrazioarekin, **arrazoizkotzat jotzen da** etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskaria %10 inguruan handitzea. Horrenbestez, Amezketako Udalak bere gain hartu beharko lukeen **kostu gehigarria** honakoa izango litzateke:

- $49.855,93 \text{ €} \times \%10 = 4.985,60 \text{ € / urtean (Udalaren aurrekontu propioetik)}$

##### (c) Oinarrizko gizarte-zerbitzuen kostua (giza baliabideak)

Bedaioko auzotarrei arreta emateak, gizarte-zerbitzuetako langileen **dedikazio apur bat handiagoa** eskatu lezake. Egindako estimazioaren arabera, giza baliabideen dedikazioa %10ean handituz gero, ondoko eragin ekonomikoa izango luke:

- **Gizarte-langilea:** dedikazioa %50etik %55era igotzea  
→ Gehikuntzaren kostua: **1.494,12 €**
- **Administrari-laguntzailea:** dedikazioa %30etik %32ra igotzea  
→ Gehikuntzaren kostua: **318,91 €**

Ondorioz, oinarrizko gizarte-zerbitzuei lotutako **kostu gehigarria guztira:**

- **1.813,03 € / urte**

**(d) Garraioa: taxi-zerbitzua**

Amezketako Udalak adinekoentzat memoria-tailerrak eta gimnasia jarduerak eskaintzen ditu jubilatuen txokoan, eta jarduera horietara bertaratzeko **taxi-zerbitzua** finantzatzen du. 2025ean, zerbitzu horren batez besteko kostua **600 € / hilean da. Bedaio auzoa sartuta, hileko tarifa 100,00 € gehiago izatea aurreikusten da, beraz urtean, 1.200 €ko gainkostua.**

**(e) Urteko kostu gehigarriaren laburpena**

Bedaioko gizarte-zerbitzuei lotutako **urteko kostu gehigarria** Amezketako Udalaren ikuspegitik honela laburbiltzen da:

- Etxez etxeko laguntza: **4.985,60 €**
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (giza baliabideak): **1.813,03 €**
- Garraio soziala (taxia): **1.200,00 €**

**GUZTIRA: 7.998,63 € / urte**

**(f) Balorazio orokorra**

Bedaioko auzoa Amezketako udalerrira eransteak gizarte-zerbitzuen arloan, neurriko **kostu gehigarria eragingo** luke, urtean 8.000 € ingurukoa. Zenbateko hori guztiz kudeagarria da Amezketako Udalaren egungo gizarte-zerbitzuen aurrekontuaren eta egituraren barruan.

Aitzitik, aukera emango litzaieke Bedaioko auzotarrei Amezketako **gizarte-zerbitzuetan arreta jaso eta adinekoentzako antolatzen diren jardueretan parte hartzeko.**

## 5. Ingurumena, landa garapena eta garapen soziokomunitarioako proiektuen sustapena

### (a) Azalpen orokorra

Amezketako Udalaren kasuan, ingurumenarekin, landa garapenarekin eta garapen soziokomunitarioarekin lotutako jarduerak hainbat eremutara zabaltzen direnak dira: herri-basoen kudeaketa, larre publikoen mantentzea, landa-ingurune azpiegituren zaintza, herri-ekimen komunitarioen babes eta tokiko elkarten dinamizazioa.

Landa izaera nabarmena duen udalerrria izanik, Amezketak urteetako esperientzia du mota honetako politikak garatzen, eta horretarako hitzarmen eta dirulaguntza-sare egonkorra dauka herriko eragileekin. Testuinguru horretan, Bedaioko auzoa Amezketara eramateak ez luke politika-eredu berri bat sortzea eskatuko.

### (b) Bedaioko jarduera soziokomunitarioen kudeaketa-eredua

Tolosako Udalaren baitan, Bedaioko dinamika soziokomunitarioaren sustapena **Artubi** Elkarteari emandako dirulaguntza izendunaren bidez gauzatzen da. Dirulaguntza horren bitartez, Artubi Elkarteak Bedaioko auzotarrek antolatutako urteko jarduera guztiak kudeatzen ditu: ekitaldi sozialak, kultur jarduerak, auzoko topaketak, ingurumenarekin eta landa-ingurunearekin lotutako ekimenak eta bestelako dinamizazio-jarduerak. Finantzaketari dagokionez, Tolosako Udalaren dirulaguntzaz aparte, antolatutako ekitaldien sarrerekin eta auzotarren ekarpenekin ere osatzen da finantzaketa.

Amezketako Udalaren jardunarekin alderatuta, eredu hori **guztiz bateragarria** da. Izan ere, Amezketak antzeko izaera duten hainbat hitzarmen ditu gaur egun herriko elkarteekin, besteak beste:

- Guraso elkarte: **7.300 €**
- Zazpiburri pelota eskola: **3.500 €**
- Elordi Jubilatuta elkarte: **1.500 €**
- Zazpiburri elkarte: **1.500 €**

Hitzarmen horiek guztiek helburu bera dute: **herriaren bizitza soziala, komunitarioa eta kulturala indartzea**, udalaren esku-hartze zuzena minimizatuz eta tokiko eragileen protagonismoa sustatuz.

**(c) Bedaiorako aplikatu beharreko eredua eta aurrekontua**

Bedaioko kasuan, **Artubi Elkartearekin indarrean dagoen hitzarmenari eustea** da aukerarik egokiena udalerrri-aldaketa gauzatuz gero. Horrenbestez, Amezketako Udalak Artubi Elkarteari **urteko 9.000 € inguruko dirulaguntza izenduna** ematea litzateke planteamendu egokiena, gaur egun Tolosako Udalak egiten duen moduan.

**(d) Urteko batez besteko kostua**

Bedaioko ingurumen-, landa-garapen eta garapen soziokomunitarioko jardueri lotutako **urteko kostu zuzena** honakoa litzateke:

- Artubi Elkarteari zuzendutako dirulaguntza: **9.000,00 € / urte**

**(e) Balorazio orokorra**

Artubi Elkarteari zuzendutako urteko 9.000 euroko dirulaguntza, bideragarria da Amezketako Udalaren aurrekontu-egituraren barruan, eta bedaiotarrentzat ezinbestekoa, auzo bertatik jarduerak antolatzen jarraitzeko.

## 6. Ur-hornidura eta estolderia-zerbitzua

Bedaion ez dago euri-uren eta hondakin-uren estolderia sare publikorik.

## 7. Argiteria publikoa

### (a) Azalpen orokorra

Udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, **planteamendua da Bedaioko argiteria publikoa eta Abadetxe eraikineko argindar-kontsumoari lotutako gastuak Amezketako Udalak bere gain hartzea.**

### (b) Egungo erreferentziazko kostuak eta aurrekontu-inpaktua

Tolosako Udalak emandako datuen arabera, Bedaioko erabilera publikoko argindar-gastuen urteko batez bestekoa honakoa da:

- **Argiteria publikoa (kale-argiak, frontoia barne):**  
1.660,00 € / urte
- **Abadetxe eraikineko argindar-kontsumoa:**  
5.741,00 € / urte

Guztira, **7.401,00 € / urteko gastua.**

Bestalde, **Amezketako Udalaren egungo argiteria publikoko urteko aurrekontua 7.500,00 €koa** da udalerrri osorako.

Ondorioz, Bedaioko argiteria publikoa eta Abadetxe eraikinaren argindar-kontsumoa bere gain hartzeak **Amezketako Udalaren argindar-kontsumoaren aurrekontua ia bikoiztea** eragingo luke.

### (d) Balorazio orokorra

Argiteria publikoaren kasuan, Bedaioko udalerrri-aldaketak **eragin ekonomiko esanguratsua izango luke** Amezketako egungo argindar-aurrekontuarekin alderatuta.

Hala ere, gastu-igoera hori:

- **Argi identifikatua eta kuantifikatua** dago,
- **Urterokoa eta aurreikusgarria** da,
- Eta udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, **Amezketako Udalaren aurrekontu-plangintzan txertagarria** da, bestelako zerbitzu-murritzetarik eragin gabe.

Ondorioz, Bedaioko argiteria publikoa eta Abadetxe eraikinaren argindar-kontsumoa bere gain hartzea **ekonomikoki bideragarria da**, baina **aurrekontu-egokitzapen esplizitua** eskatzen du, argindar-kontsumoaren igoera nabarmena dela kontuan hartuta.

## 8. Hondakinen bilketa eta kudeaketa

Hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzua, Amezetako Udalaren kasuan ere, eskualde-mailako mankomunitatearen bidez kudeatzen da. Baina indarrean dagoen hondakinen araudiak ezarritako printzipioei jarraikiz, zerbitzu honek ezin du defizitik sortu udal aurrekontuetan, eta, ondorioz, sortzen den gastu osoa tasa bidez finantzatu behar da nahitaez.

Horregatik, **hondakinen bilketa eta kudeaketak ez du eraginik udalerrri-aldaketaren bideragarritasun ekonomikoa baloratzerakoan.**

## 9. Hilerri-zerbitzua

### (a) Azalpen orokorra

Hilerriko zainketa lanak, berdeguneen mantenuko lanen kontratazioan sartuak dauzka Amezetako Udalak. Aldiz gainerako hilerri-zerbitzurik ez du ematen eta ehorzketa-enpresek egiten dituzte lan horiek, erabiltzaileek ordainduta. Bedaioko udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, **hasierako fase batean** planteatzen den irtenbidea da **Amezetako Udalak bere gain hartzea gaur egun Tolosako Udalak kanpo-kontratazio bidez ematen dituen hilerri-zerbitzuak.**

Horrek esan nahi du:

- Gaur egun Bedaioko hilerrian zerbitzua ematen duen enpresa adjudikaziodun berarekin jarraitzea.
- Zerbitzuaren antolaketa, funtzionamendua eta estaldura baldintzak bere horretan mantentzea.
- Zerbitzu horren kostu ekonomikoa Amezetako Udalaren aurrekontura igarotzea.

Planteamendu honen helburua da **zerbitzuaren jarraikortasuna bermatzea**, erabiltzaileentzat aldaketarik edo etenik sortu gabe.

### (c) Bedaioko hilerri zerbitzuaren aurrekontua

Hasierako fasean, Bedaioko hilerri-zerbitzuari lotutako gastua:

- **4.700 € ingurukoa izango litzateke urtean**, gaur egun Tolosako Udalak duen kontratuaren arabera.

Epe ertainera, kudeaketa-eredua Amezetako ohiko sistemara egokituz gero, gastu hori **arindu egin ahal izango da.**

### (d) Balorazio orokorra

Hilerri-zerbitzuren kostua, **kudeagarria eta ekonomikoki bideragarria izan daiteke Amezetako Udalarentzat.**

## 10. Telekomunikazioak eta azpiegitura digitalak

### (a) Azalpen orokorra

Bedaioko auzoak konektibitate digitalari dagokionez dituen mugak arintzeko, Tolosako Udalak azken urteetan **oinarrizko neurriak** hartu ditu: herrigunean WiFi bidezko estaldura hobetzeko antena baten instalazioa eta **interneteko konexioaren urteko gastuaren finantzaketa**.

Udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, planteamendua da **zerbitzu horiek bere horretan mantentzea**, Amezketako Udalak bere gain hartuta.

### (b) Zerbitzuak eta kostuak

- **Internet konexioaren urteko gastua:** 300 €.
- **WiFi antenaren instalazioa:** jarduketa puntual bakarra izan da; ez da urteko gastu errepikakorra.

## 11. Garraio publikoa

Bedaioko auzoan ematen den garraio publikoaren zerbitzua **ez da udal-eskumenekoa**, baizik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketapean dago. Zerbitzua Aldundiak zuzenean antolatu eta ordaintzen du.

Horrenbestez, garraio publikoaren zerbitzuan, Bedaioko auzoa Amezketara eransteak **ez du inolako eraginik Amezketako Udalaren aurrekontuan**.

## 6.5. Aldian behingo herri lan eta inbertsioen balorazio ekonomikoa, (B blokea), Amezketako Udalaren ikuspegitik

### Amezketako Udalaren planteamendu orokorra

B blokea osatzen duten jarduketak **izaera ez-erregularrekoak** dira, eta **Bedaio auzoan sortzen diren behar errealen arabera** egingo lirateke beharrezko esku-hartze horiek, Amezketako Udalak gaur egun gainerako auzo eta landa-eremuetan egiten duen bezala, irizpide eta prozedura berak jarraituta.

Amezketako Udalak, inbertsio-ahalmen nahiko handia du; urtero VI. kapitulutik 350.000 € inguruko inbertsioak egin izan ditu, eta herri txikietara bideratutako Foru Funtseko dirusarreraren igoerarekin, **500.000 € inguruko inbertsio-ahalmena du gaur egun. Eta ahalmen hori handitzea ere aurreikusten da Bedaio auzoa Amezketara pasatzearekin.**

12. Herrigunean zein baserri bideetan sortutako ustekabeko beharrei erantzuteko egin beharreko aldian behingo konponketa-lan txikiak.

### (a) Azalpen orokorra

Bedaioko auzoa Amezketara eransten bada, ez da aurreikusten konponketa-lan txiki hauek egiteko kudeaketa-eredu berezirik sortzea. Aitzitik, Amezketako Udalak honako irizpide hauek aplikatuko lituzke:

- Beharraren araberrako esku-hartzea, gertakari zehatzak sortzen direnean.
- Ohiko baliabide teknikoaren erabilera, udal brigaden bidez edo kanpo-kontratazio puntualaren bitartez, lanaren izaeraren arabera.
- Lehentasun-irizpideak, segurtasuna, irisgarritasuna eta zerbitzu publikoaren jarraikortasuna bermatzeko.

Ildo horretan, **Bedaioko herrigunean edo baserri-bideetan sortzen diren konponketa txikiak Amezketako gainerako auzoetan sortzen direnen parekoak lirateke**, eta udalaren esku-hartze irizpide berberen arabera kudeatuko lirateke.

## (b) Aurrekontuaren tratamendua

Amezketako Udalaren balorazioaren arabera, **ez da beharrezkotzat jotzen partida espezifiko edo bereizi bat aurreikustea** Bedaioko konponketa-lan txiki hauetarako. Lan horiek:

- Udalaren **mantentze- eta konponketa-gastuen barruan** txertatuko lirateke.
- Urtero sortzen diren **premien arabera** finantzatuko lirateke.
- Ez lukete **gastuen hazkunde estrukturalik** eragingo udal aurrekontuan.

Kontuan hartu behar da, gainera, Tolosako Udalaren azken urteetako datuek erakusten dutenez, Bedaioko konponketa-lan txiki hauek oso bolumen ekonomiko txikia izan dutela.

Horrenbestez, **udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, Amezketako Udalak gaitasun tekniko eta ekonomiko nahikoa izango luke Bedaioko konponketa-lan txikiak behar bezala eta garaiz kudeatzeko**, bere gainerako auzoetan egiten duen modu berean.

13. Herriguneko espazio publikoak edota baserri bideak berritzeko egindako lanak (zuloak estaltzea, zolaketa-lanak).

## (a) Azalpen orokorra

Amezketako Udalak gaur egun **urtero partida esanguratsu bat** bideratzen du baserri-bideak konpontzera eta berritzera, kanpo-kontratazio bidez egindako lanen bitartez. Azken urteetako praktikak erakusten du gutxienez **70.000 € inguruko** aurrekontua bideratzen dela urtero helburu horretara, eta kopuru hori handitu egiten dela sortzen diren kalteen edo beharren arabera.

Bedaioko auzoa Amezketara eransten bada:

- Bedaioko baserri-bideak eta espazio publikoak **Amezketako bide-sarearen multzoan** integratuko lirateke.
- Esku-hartzeak, **urte bakoitzean sortzen diren beharren arabera** erabakiko lirateke, udalaren inbertsio- eta mantentze-plangintzaren barruan.

## (b) Aurrekontuaren tratamendua

Amezketako Udalak gaur egun **gutxienez 70.000 € urtean** bideratzen ditu baserri-bideen konponketa eta berritze lanetara, udalerrri osoan banatutako **28 km inguruko bide-sareari** erantzuteko. Bedaioko auzoak **4 km inguruko baserri-bide sare gehigarria** ekarriko lukeenez, eta proportzio-irizpide soila aplikatuta, ondoriozta daiteke bide-sare osoa %14 inguruan handituko litzatekeela. Horren arabera: **10.000 € igo daiteke urtero baserri bideetara bideratutako aurrekontua**, betiere beharren arabera eta pixkanakako esku-hartze gisa ulertuta. Eta urteko batez besteko aurrekontu-igoera hori egingarria da Amezketako Udalarentzat, Bedaioko auzotarrei dagozkien udal eskumeneko dirusarrerak Amezketako Udalarenak izanda.

## 14. Udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegituretan egindako inbertsioak.

### (a) Azalpen orokorra

Udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, Bedaioko udal eraikinak eta erabilera publikoko azpiegiturak — hala nola Abadetxea edo bestelako espazio komunitarioak— **Amezketako udal-ondarearen parte** bihurtuko lirateke, eta, ondorioz, **udalaren ohiko inbertsio-plangintzan txertatuko lirateke**.

### (b) Aurrekontuaren tratamendua eta inpaktu ekonomikoa

Tolosako Udalak azken 15 urteetan Bedaioko azpiegituretan egindako inbertsioak, urte jakin batzuetan, inbertsio handiak izan dira. Eta etorkizunean ere, Bedaiok izaten dituen azpiegitura beharren arabera izango dira inbertsio horiek. Horrek, **Amezketako Udalaren inbertsio-ahalmena handiagoa izatea eskatuko du, eta hori, Bedaiori dagozkion ohiko dirusarreraren eta Bedaiori dagozkion ohiko zerbitzuen gastuen arteko alde positiboaren baitakoa izango da**. Txosten honetan aurrerago jaso dago alderaketa hori, eta **ondorioztatzen dena da, Amezketaren inbertsio-ahalmena handitu egingo dela Bedaio Amezketara izatera pasako balitz**. Horrez gain, beste erakundeetatik jasotako inbertsioetarako dirulaguntzek ere lagunduko dute inbertsio horien finantzaketan.

## Bedaioko ohiko zerbitzuen eta inbertsioen Amezketako Udalaren urteko balorazioa guztira:

**Amezketako Udalak egindako balorazioaren arabera, Bedaioko ohiko udal zerbitzuen (A blokea) urteko batez besteko kostu ekonomikoa 39.599,50 €koa da.** Zenbateko horrek jasotzen ditu funtzionamendu arrunteko zerbitzu nagusiak —garbiketa, bideen mantentzea, kultura eta jai jarduerak, gizarte-zerbitzuak, ingurumen eta landa-garapena, argiteria publikoa, hilerria eta telekomunikazioak—, betiere Amezketako Udalaren egungo antolaketa- eta kudeaketa-eredura egokituta.

**Aldian behingo herri-lan eta inbertsioei dagokienez (B blokea), Amezketako Udalaren planteamendua da Bedaion sortzen diren beharren arabera esku hartzea, urteko aurrekontu finko eta itxirik ezarri gabe;** salbuespen gisa, baserri-bideen konponketa eta berritzerako, **10.000 €ko inbertsio gehigarria ezarri da. Gainerako inbertsioetarako, Amezketak badu nahikoa inbertsio-ahalmen (urtean 500.000 € ingurukoa), eta ahalmen hori are handiagoa izan daiteke Bedaio Amezketako udalerrira atxikiz gero.**

## A BLOKEA – Ohiko funtzionamenduari lotutako Bedaioko zerbitzuen Amezketako Udalaren balorazioa

Zk.	Zerbitzua	Urteko batez bestekoa (€)	Oharrak
1	Herriguneko espazio publikoen eta berdeguneen ohiko garbiketa-lanak	4.080,00 €	Lorezaintza: 1.450 € (100 €/hileko + BEZ) + udal langileen lanaren balorazioa: 2.628 €
2	Herri, baserri eta baso-bideen ohiko garbiketa + elurra kentzea	2.327,60 €	Bideen garbiketa: 8.892 € (37 km → +10 km Bedaioren proportzioa: +1.892 €) + elurra kentzea (2023): 435,60 €
3	Jaiak, azokak eta kultura-aisialdi jarduerak	3.792,30 €	Tolosan kalkulaturako urteko batez bestekoa mantentzen da
4	Gizarte-zerbitzuak (etxez etxeko laguntza)	7.998,60 €	EEL: 4.986 € + GZ langileen dedikazioa: 1.813 € + taxi zerbitzua: 1.200 €
5	Ingurumena eta landa/garapen soziokomunitarioa (Artubi + banda zabala)	9.000,00 €	Artubi Elkartearekin hitzarmena mantenduz
6	Ur-hornidura eta estolderia	0,00 €	Ez dago sare publikorik Bedaion
7	Argiteria publikoa eta Abadetxe eraikina	7.401,00 €	Tolosan kalkulaturako kontsumoa bere gain hartuta; argindar-gastua nabarmen igoko da
8	Hondakinen bilketa eta kudeaketa	0,00 €	Tasa bidez %100 finantzaturia (legez)
9	Hilerri-zerbitzua	4.700,00 €	Hasierako fasean Tolosako kanpo-kontratazio bera mantenduz
10	Telekomunikazioak eta azpiegitura digitalak	300,00 €	Internet konexioa mantenduz
11	Garraio publikoa	0,00 €	Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturia
<b>Ohiko funtzionamendu gastuen urteko batez bestekoa GUZTIRA</b>		<b>39.599,50 €</b>	

(A blokea)

**B BLOKEA – Aldian behingo herri-lan eta inbertsioak (Amezketako Udalaren balorazioa)**

Zk.	Zerbitzua	Urteko batez bestekoa (€)	Oharrak
12	Herrigunean zein baserri-bideetan sortutako ustekabeko beharrei erantzuteko aldiari behingo konponketa-lan txikiak	Beharren arabera	Amezketak Udalak beharren arabera esku-hartuko luke
13	Herriguneko espazio publikoak edota baserri-bideak berritzeko egindako lanak (zuloak estaltzea, zolaketa-lanak)	10.000,00 €	Amezketako 70.000 €-ko urteko aurrekontuaren proportzioan Bedaiorako aurreikusitako igoera (4 km / 28 km $\approx$ %14)
14	Udal eraikinetan eta erabilera publikoko gainerako azpiegituretan egindako inbertsioak	Beharren arabera	Amezketak inbertsio-ahalmen nahikoa du (500.000 € inguru urtean), eta inbertsio-ahalmen hori oraindik ere handiagoa izan daiteke Bedaio Amezketakoa izatera pasatzen bada.

## 6.6. Amezketako Udalaren sarrera-aurrekontuen azterketa

Bedaiori dagozkion Amezketako udal-sarrerak kalkulatzeko, honako prozedura jarraitu da:

- Lehenik, abiapuntu gisa, Tolosako Udalaren Bedaioko auzotarren diru-sarrerak zenbatekoak diren kuantifikatu da.
- Bigarrenik, sarrera horiek egokitu egin dira, Tolosako Udalaren eta Amezketako Udalaren arteko zerga-tasen arteko aldeak kontuan hartuta. Izan ere, Amezketako Udalaren zerga-karga, oro har, Tolosako Udalarena baino baxuagoa da, eta horrek eragin zuzena du Bedaiok sortuko lituzkeen diru-sarreraren azken zenbatekoan.

Zehazki, 2025eko udal-ordenantza fiskalak alderatuta, ondoko erlazioak identifikatu dira:

- OHZ landatarra: Amezketako karga-tasa = Tolosakoaren %92,30
- OHZ hiritarra: Amezketako karga-tasa = Tolosakoaren %63,40
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga (TMIZ): Amezketako karga-tasa = Tolosakoaren %65,13

Horrenbestez, Tolosako Udalaren datuetatik abiatuta egindako estimazioak beherantz doituta daude, Amezketako Udalaren zerga-eredura egokitzeko, eta horrek, aurreikusitako kopuruen zuhurtzia bermatzen du.

### Sarrera-kontzeptuen araberako balorazioa

Lehenik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (OHZ) dagokionez, bi azpikontzeptu bereizten dira. Alde batetik, hiri-ondasunen OHZak 7.653,94 €ko sarrera sortuko luke, eta bestetik, landa-ondasunen OHZak 917,51 €. Biak batera hartuta, OHZren bidezko urteko sarrerak 8.571,45 € izango lirateke, Bedaioko etxebizitza eta landa-ondasunen balio katastralean oinarrituta, eta Amezketako zerga-tasetara doituta.

Bigarrenik, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergak (TMIZ) 9.036,31 €ko urteko sarrera ekarriko luke. Zenbateko hori Bedaioko ibilgailu-parkearen tamainaren eta ezaugarrien araberako estimazio errealista da, Amezketako udal-ordenantza fiskalak aplikatuta, eta Tolosarekiko zerga-karga txikiagoa kontuan hartuta.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari (JEZ) dagokionez, ez da sarrerarik aurreikusten, Bedaioko auzoan ez dagoelako zerga horren atalaseak gainditzen dituen jarduera ekonomikorik.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan (ICIO), urteko 1.500,00 €ko sarrera estimatu da. Kopuru hori obra txiki eta puntualen batez besteko historikoan oinarritzen da, eta izaera ez-egonkorra duen arren, urteko batez besteko gisa hartu da.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, sarrera gisa ez da inolako kopururik ezarri, gastuen atalean, sarrera horiek kontuan hartu ondorengo gastu garbia kalkulatu delako. Eta hondakinen bilketari lotutako tasen kasuan ere ez da kopururik ipini, diru-sarrerekin zerbitzuaren kostua estaltzera iritsi behar delako, eta gastu-aurrekontuetan ere ez da kopururik jarri.

Sarrera-iturri nagusia, alde handiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez jasotzen diren zerga itunduetako partaidetzakoak dira (420 kontzeptua). Bedaioko biztanleriaren arabera, Bedaiori egotzitako urteko zenbatekoa 91.652,12 €koa da, hau da, sarrera guztien %80 baino gehiago. Kopuru hori biztanle-irizpidean oinarrituta kalkulatu da.

Azkenik, gainerako sarreretan ez da zenbateko esanguratsurik aurreikusten, Bedaioko kasuan ez dagoelako bestelako diru-iturri egonkor edo berezirik identifikatuta.

### Ondorio nagusia

Ondorio gisa, kontzeptu guztiak batuta, **Bedaiok Amezketako Udalari ekarriko lizkiokeen urteko udal-sarrerak 110.759,88 €koak** lirateke. Zenbateko horrek erakusten du Bedaiok sortutako sarrera-ahalmena koherentea dela bere pisu demografikoarekin, eta oinarri sendoa eskaintzen du udalerrri-aldaketaren bideragarritasun ekonomikoa Amezketaren ikuspegitik baloratzeko.

**23. taula.** Amezketako Udalaren Bedaio auzoari dagozkion dirusarrerak

Kod.	Sarrera-mota	Zenbatekoa (€)
112	O.H.Z.HIRI-ONDASUNAK	7.653,94
112	O.H.Z.LANDA ONDASUNAK	917,51
113	TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	9.036,30
130	JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO	0,00
282	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN	1.500,00
310	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	
310	HONDAKINEN BILKETA	
420	G.F.A. ITUNDUTAKO ZERGEN SARRERAJ	91.652,12
	GUZTIRA	110.759,88

## 6.7. Amezketako Udalaren bideragarritasun ekonomikoa

Amezketako Udalaren ikuspegitik egindako kalkuluen arabera, Bedaiok sortuko lituzkeen **urteko udal-sarrerak 110.759,88 €koak** lirarteke. Zenbateko hori erreferentzia nagusitzat hartuta, eta aurreko ataletan zehaztutako gastu-egiturarekin alderatuta, ondorioztatzen da Amezketako Udalak **marjina ekonomiko nahikoa** izango lukeela, bai Bedaioko **ohiko funtzionamenduari loturiko gastuak (A blokea)** estaltzeko, bai **aldian behingo inbertsio eta konponketa-lanak (B blokea)** finantzatzeko ere.

Zehazki, Bedaioko **A blokeko gastuen urteko batez bestekoa 39.599,50 €koa** da. Horrek esan nahi du Bedaiori lotutako sarrera arruntekin (110.759,87 €ko sarrerak), Amezketako Udalak, **ohiko zerbitzu guztiak bermatzeko behar den finantzaketa propioa izango** lukeela, eta gainera, **urtean 71.160,38 € inguruko soberakina izango lukeela, bestelako inbertsio-proiektuak finantzatu ahal izateko.**

Soberakin horrek aukera ematen du Bedaioko **B blokeko jarduketak** modu errealista batean integratzeko Amezketako Udalaren inbertsio-plangintzan. Kontuan hartu behar da B blokeko gastuak ez direla gastu erregularrak, baizik eta **beharren arabera egiten diren esku-hartze puntualak**, eta horien intentsitatea urtez urte aldakorra dela.

**Horrez gain**, azpimarratu behar da Amezketako Udalak **urtean 500.000 € inguruko inbertsio-ahalmena** duela gaur egun, eta ahalmen hori, Bedaiok sortutako zerga-sarreraren eta foru-finantzaketaren ondorioz, **are gehiago sendotu** litekeela udalerrri-aldaketa gauzatu gero. Eta aurrekoari gehitu behar zaio, bai Bedaiori bai beste auzoetan egin beharreko inbertsioetarako, beste erakundeen dirulaguntzak eta kanpo finantzaketa-aukerak ere izango dituela Amezketako Udalak. Testuinguru horretan, Bedaioko udal eraikinetan eta erabilera publikoko azpiegituretan egin beharreko inbertsioak **ez dira presio gehigarri esanguratsu bat** Amezketako Udalaren aurrekontuarentzat, baizik eta lehendik dagoen inbertsio-egituraren barruan modu naturalean txertatu daitezkeen jarduketak.

Ondorioz, datu ekonomikoek erakusten dute Amezketako Udalaren Bedaiori lotutako **sarrerak, behar bestekoak eta egonkorak** izango lirartekeela:

- lehenik, Bedaioko A blokeko ohiko zerbitzu guztiak kalitatez eta jarraikortasunez bermatzeko;
- bigarrenik, B blokeko inbertsio eta konponketa-beharrak pixkanaka eta planifikatuta finantzatzeko;
- eta, azkenik, udalerrri-aldaketak ez lukeela Amezketako Udalaren **kaudimen ekonomikoa ezta inbertsio-gaitasuna** arriskuan jarriko, kontrara, haren posizio ekonomikoa sendotzeko aukera eskainiko lukeela.

Horrela, ikuspegi ekonomikotik ere betetzen dira **2/2003 Foru Arauaren 11. artikulua** ezarritako baldintzak, udalerrri-aldaketaren ondorioz zerbitzuen kalitatea hobetu eta finantza-oreka mantentzea bermatuta geratzen delarik.

## 6.8. Bideragarritasun ekonomikorako azterketaren ondorioak

Egindako bideragarritasun ekonomikoaren azterketaren lehen ondorio nagusia da, **Bedaio** auzoa Tolosako udalerritik bereizi eta **Amezket**a udalerrira eransteak ez duela eragin negatiborik izango ez Tolosako Udalaren ez Amezketako Udalaren kaudimen ekonomikoan, eta ondorioz, bi udalerriek, beren udal eskumenei erantzuteko behar dituzten baliabide ekonomikoak bermatuta izango dituztela, **Bedaio** auzoa udalerriz aldatu ondoren ere.

Eta bigarren ondorioa da, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, udalerrri-aldaketa gertatu ondoren, **aurrez Bedaion ematen diren udal zerbitzuen kalitatea hobetu eta zerbitzuen jarraikortasuna bermatuta geratuko liratekeela, Amezketako Udalak etorkizunean bere gain hartuko Bedaioko ohiko zerbitzuen antolaketari dagokionez, zerbitzu horiek emateko bideratu ditzakeen urteroko baliabideei dagokionez, eta baita Bedaion sortzen diren beharrei erantzuteko aldi behin egin beharko diren inbertsioei erantzuteko inbertsio-ahalmenari dagokionean ere.**



## 7. Azken ondorioak

### Oinarri juridikoa

Aztertutako marko juridikoaren arabera, Bedaio auzoa Tolosa udalerritik bereizi eta Amezketa udalerrira atxikitzea bideragarria da indarrean dagoen araudiaren arabera. Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak aurreikusten duen 5.1.c artikulua espresuki jasotzen du udalerrri bateko lurralde zati bat bereizi eta beste bati eransteko aukera, baldin eta txosten honetan aztertu diren arrazoibide, baldintza eta justifikazio-elementuei jarriki egiten bada.

Bestalde, abenduaren 22ko 5/2025 Foru Arauak 2/2003 Foru Arauaren zenbait alderdi eguneratu baditu ere, aldaketa horiek ez dute eraginik udal barrutiak aldatzeko baldintza materialetan, ezta espedientearen edukiari edo oinarritzko betekizunei dagokienez ere. 5/2025 Foru Arauak prozedurari dagokionez ezartzen duen aldaketa bakarra da, udaletako udalbatzarrek hartu beharreko erabakiak, legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartzea nahikoa izatea; aurreko araubidean, egitatezko kideen bi herenen aldeko botoarekin hartu behar ziren erabakiak.

### Kokapen geografikoa

Bedaioen kokapen geografikoa berezia da oso, Tolosa udalerrikoa izateko. Tolosako hirigunetik urrun egoteaz gainera, ez du lurralde-jarraitasunik, eta ez du Tolosako beste auzo bakar batekin ere muga egiten. Bedaioko elizatik Tolosako udaletxeraino autoz 17 kilometro inguruko ibilbidea dago, eta Amezketako udaletxeraino, berriz, 9 kilometro ingurukoa. Datu horiek, administrazioarekiko irisgarritasunean duten eragina kontuan hartzekoa da.

### Landa-izaera

Bedaio landa-izaera nabarmena duen biztanle-gunea da, bai kokapenari, bai egitura fisikoari, bai jarduera-ereduei dagokienez. Biztanleria sakabanatua eta biztanleria-dentsitate baxua, eta lurzorua erabilera, nagusiki nekazaritza- eta baso-izaerakoa.

Landa-izaera horrek zerbitzu publikoen plangintzan eta kudeaketan tratamendu egokitu eskatzen du, bereziki mugikortasunari, mantentze-lanei, konektibitateari, segurtasunari eta ekipamendu txikien antolaketari dagokienez.

Bedaioen landa-izaerak, bertako auzotarrek udal zerbitzuekiko dituzten beharrak eta lehentasunak ezberdinak izatea eragiten du, eta horrek, administrazioarekiko hurbiltasuna, malgutasuna eta administrazioaren erantzun-gaitasuna, bertako auzotarrentzat oso garrantzitsuak izatea dakar.

Tolosako Udalak, betidanik izan du harremana Bedaioko auzotarrekin eta, bere eskumen eta baliabideen baitan, auzoaren beharrei erantzuten saiatu izan da. Auzotarren ikuspegitik ordea, landa-izaerarekin bat datorren eskala txikiagoko udal batek, auzoaren errealitateari hobeto erantzuteko gaitasuna izango luke.

### **Bedaioren auzo-bizitza eta auzo-dinamika propioa**

Bedaiok, auzo-bizitza eta dinamika komunitario propioa dauzka. Auzolana eta auzotarren arteko elkarlana daude herri-dinamika horren oinarrian, eta horri esker, auzoak bere beharrei erantzuteko antolaketa-gaitasuna eta ekimenak bultzatzeko ahalmena erakutsi ditu.

Dinamika horren erdigunean, Artubi elkartearen erreferentziarako espazio eta egitura gisa kokatzen da. Artubi elkartearen bidez, auzo bertatik abiatuta, hainbat jarduera eta ekimen antolatzen dira urtean zehar, auzoaren bizitza soziala aktibatuz eta harreman-sarea sendotuz. Tolosako Udalak hitzarmena du Artubi elkartearekin eta aurreko herri-ekimen horiek sortzen dituzten gastuak ordaintzera bideratzen da Tolosako Udalaren dirulaguntza. Auzolanaz aparte, auzotarren diru-ekarpenekin ere finantzatzen dira hainbat gastu.

### **Herritarren funtzionaltasunari lotutako arazoibideak**

Egunerokoan, bedaiotarrek nabarmen lotura handiagoa dute Amezketarekin Tolosarekin baino; bai zerbitzu-erabilerrari dagokionean, bai harreman sozialei dagokienean: haurren eskolaratzea, haur eta gazteei zuzendutako eskola orduz kanpoko zerbitzuak, kirol- eta aisialdi-jarduerak, elkarbizitza eta eguneroko bestelako hainbat eginkizun.

Auzotarren ikuspegitik, herritarrek egunero erabiltzen dituzten zerbitzuak eta udal-zerbitzuen antolaketa udalerrin berean izatea onuragarria da bizilagunentzat, administrazioarekiko harremana hurbiltzen baitu, eta administrazioarentzat, errazagoa da herritarren beharrei erantzun berehalakoagoa ematea.

### **Udal zerbitzuen jarraipena eta hobekuntza-aukerak**

Txosten honetan aztertutako proposamenaren arabera, Bedaiori gaur egun jasotzen dituen udal zerbitzuen jarraipena bermatuko zaio, eta zenbait arlotan, zerbitzua hobetzeko aukerak edota zerbitzu osagarriak eskaintzeko aukerak badaudela identifikatu da. Ildo horretan, udalerrin-eskala, hurbiltasuna eta landa-izaerarekiko egokitasuna kontuan hartuta, mantentze- eta garbiketa-lanen maiztasuna handitzeko, espazio publikoen zaintza hobetzeko edo eguneroko kudeaketa malguagoa izateko aukerak daudela ikusi da.

Azpimarratu beharra dago, orain arteko udal-kudeaketarekin, Bedaioko beharrei erantzuteko ahalegina egin dela, eta txosten honek ez duela aurreko jarduna zalantzan jartzen; helburua da, auzoaren ezaugarri espezifikoak zein diren ikusita, hobekuntzarako aukerak non dauden aztertu eta aukera horiek aprobetxatzea.

### **Udalerrri-aldaketaren eragina biztanlerian eta lurralde-azalera**

Proposatutako udal-barrutiaren aldaketaren eragin demografikoa eta lurralde-azalera oso desberdinak dira, Bedaio auzoaren biztanleria-dentsitatea oso baxua delako. Biztanleriari dagokionez, Bedaiok 97 biztanle ditu (2024), eta udalerrri-aldaketa gauzatuz gero, Tolosak bere biztanleriaren % 0,48 bakarrik galduko luke, 20.099 biztanletik 20.002 biztanlera igaroz. Amezketak, berriz, bere biztanleria % 10,32 handituko luke, 940 biztanletik 1.037 biztanlera igaroz. Lurralde-azalera dagokionez ordea, Bedaiok 12,1 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta ondorioz: Tolosaren lurralde-azalera % 32,4 murriztuko litzateke (37,38 km<sup>2</sup>tik 25,28 km<sup>2</sup>tara); eta Amezketaren lurralde-azalera, % 58,8 handituko litzateke (20,58 km<sup>2</sup>tik 32,68 km<sup>2</sup>tara).

Testuinguru horretan, Amezketaren landa-izaera indartuko litzateke, eta aldiz, Tolosaren egitura urbano-trinkoa funtsean mantendu egingo litzateke, udalerrriaren izaera eta udal-zerbitzuen antolaketa orokorra bere horretan mantenduz.

### **Tolosako Udalaren eta Amezketako Udalaren antolaketa eta funtzionamendu operatiboarekiko eragina**

Bedaio auzoa Tolosa udalerritik bereizi eta Amezketako udalerrira atxikitzeak ez luke eragin adierazgarririk izango Tolosako Udalaren antolaketa eta funtzionamendu operatiboan, ez baliabide pertsonalei dagokienez, ezta baliabide tekniko eta materialei dagokienez ere. Proposatutako aldaketak ez du udal-zerbitzuen egitura orokorra aldatzea eskatzen, ezta egungo baliabideen berrantolaketa esanguratsurik ere.

Amezketako Udalaren antolaketa eta funtzionamendu orokorrean ere, Bedaioren tamaina eta biztanleria kontuan hartuta, udal-kudeaketaren eskala eta egungo egitura egokiak dira auzoaren integrazioa bere gain hartzeko, funtzionamendu arruntean desorekarik sortu gabe. Gizarte-zerbitzuen arloan, aurreikusten da igoera txiki eta zehatza baina igoera hori aurrekontu-aurreikuspenetan kontuan hartu da, eta beraz, ekonomikoki bideragarria da.

Ondorioz, proposatutako udal-barrutiaren aldaketa Amezketako Udalaren antolaketa-ereduarekin bateragarria dela ondoriozta daiteke, eta auzoaren integrazioa modu neurtu, progresibo eta jasangarrian gauzatzeko baldintzak badaudela.

### **Udalerrri aldaketaren eragin ekonomikoa Tolosako Udalean**

Bedaio Amezketako auzo izatera pasatzeak, Tolosako Udalaren gastuak urtean batez beste 93.008,69 euro murriztea ekarriko luke, urteroko ohiko funtzionamendu gastuak eta aldian behin egindako inbertsioen aurrekontuak ere kontuan hartuta. Aldiz, Tolosako Udalaren diru-sarrera arruntetan, urtean 121.350,19 euroko murrizketa aurreikusten da, Bedaioko auzotarrei lotutako zerga, tasa eta bestelako sarrera arruntetan ondorioz. Gastuen murrizketa eta sarreraren jaitsiera alderatuta, udal-barruti aldaketak Tolosako Udalean urtean 28.341,50 euroko balantze negatiboa eragingo luke.

Zenbateko hori Tolosako Udalaren azken bost urteetako urteko sarreren % 0,10 baino txikiagoa da, eta, ondorioz, inpaktu ekonomikoa oso mugatua eta proportzionatua dela ondoriozta daiteke.

Horrenbestez, ikuspegi ekonomikotik, eta martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 11. artikulua eskatzen duen udalaren kaudimen ekonomikoa mantentzearen printzipioa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Bedaio auzoa Amezketako udalerrira atxikitzeak ez duela inolako arrisku edo eragin kaltegarriarik sortzen Tolosako Udalaren finantza-jasangarritasunean.

### **Udalerrri-aldaketaren eragin ekonomikoa Amezketako Udalean**

Bedaio auzoa Amezketako udalerrira atxikitzeak Amezketako Udalaren sarrera arruntak urtean 110.759,88 euro altuagoak izatea ekarriko luke. Eta Bedaiori lotutako A blokeko ohiko funtzionamendu-gastuen urteko batez bestekoa 39.599,50 eurokoa da. Horrenbestez, Bedaiok sortutako sarrera arruntekin, Amezketako Udalak ohiko zerbitzu guztiak bermatzeko behar adinako finantzaketa propioa izango luke, eta, gainera, urtean 71.160,38 euro inguruko soberakin ekonomikoa sortuko litzateke.

Soberakin horrek Bedaioko B blokeko inbertsio eta konponketa-jarduketak modu planifikatuan eta progresiboan finantzatzeko aukera ematen du, kontuan hartuta jarduketa horiek ez direla gastu erregularrak, baizik eta beharren arabera egiten diren esku-hartze puntualak. Testuinguru horretan, Bedaioko inbertsio-beharrak Amezketako Udalaren egungo inbertsio-plangintzan modu naturalean txertagarriak direla ondoriozta daiteke.

Horri gehitu behar zaio Amezketako Udalak gaur egun urtean 500.000 euro inguruko inbertsio-ahalmena duela, eta ahalmen hori Bedaiok sortutako zerga-sarreren, foru-finantzaketaren eta kanpo-dirulaguntzen bidez are gehiago sendotu litekeela. Ondorioz, Bedaioko udal-eraikinetan eta erabilera publikoko azpiegituretan egin beharreko inbertsioek ez lukete presio gehigarri esanguratsurik eragingo Amezketako Udalaren aurrekontuan.

Horrenbestez, ikuspegi ekonomikotik, eta martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 11. artikulua eskatzen duen udalaren kaudimen ekonomikoa mantentzearen printzipioa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Bedaio auzoa Amezketako udalerrira atxikitzea ekonomikoki bideragarria eta jasangarria dela, eta ez duela arriskuan jartzen Amezketako Udalaren kaudimen ekonomikoa ezta inbertsio-gaitasuna ere, kontrara, udalerrriaren posizio ekonomikoa sendotzeko aukera eskaintzen duela.